

**puntu**

+

BetiON: laguntza gertu izatearen segurtasuna

Amaia Agirianori elkarrizketa, adimen gaitasun handiaz

## KORONABIRUSA



# IKASGELAK HUTSIK

Gaurtik aurrera, eta hamabost egunez, Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan ez dute eskola presentzialik emango / 2

Aramaioiko Herri Eskola eguen goizean. Araban, beste bi lurraldeetan baino egun bat lehenago eman zuten ikasleak etxera bidaltzeko agindua.

IMANOL SORIANO

### JARDUERAK

Kirol jarduera guztiak eta kultura emanaldi gehienak bertan behera geratu dira

### INSTALAZIOAK

Kirol, kultura eta aisialdi instalazioak itxi egin dituzte, eta udal zerbitzu gehienak eten

### ERRETIRATUAK

Erretiratuaren egoitzak itxi egin dituzte, eta zaharrentzako jarduerak bertan behera laga

### TELELANA

Debagoieneko enpresa askotan, etxetik lan egiten hasi dira langileak

### KONTSUMOA

Janari-dendetan eta farmazietan gora egin du kontsumoak azken egunotan

**Manifestazioa eta lanuztea egin dituzte Elgetan, Zaldibarren gertatutakoa "argitzeko" / 6**

### SINADURAK

	BERNARDO KORTABARRÍA / 8		OIER PENAGARIKANO / 29
	RAMON UGALDE / 12		XABI GESALAGA / 33
	PEDRO GARITANO / 26		IDOIA ETXEBERRIA / 48

**2mó / 229€**

progresibo, erreflexuen aurkako lenteekin  
(bat eguzkitakoa izan daiteke)


**Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira**

Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIÓPTICAS**

www.multiópticas.com



Aramaioiko San Martin eskolako ikasgela bat hutsik, aulkiak mahai gainean daudela. Halaxe egongo dira martxoaren 23ra arte, behintzat. IMANOL SORIANO

#### Eneko Azurmendi ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak atzo bertan hartutako erabakia da. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztien eskola-jarduera presentziala aldi baterako etengo dute, koronabirusa dela eta. Etenaldi horrek hamabost egun iraungo du, gaurtik aurrera. "Ondorioz, bertan behera geratzen da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru lurralde historikoetako ikastetxeetan aurrez aurreko eskola-jarduera guztia, baita Haurreskolak Partzuergoaren mendeko haur eskoletan ere", dio Jaurlaritzaren zirkularrak.

Era berean, ikasleekin edo irakasleekin egiten diren mota guztietako irteerei dagokienez, Osasun Sailaren jarraibideak bete behar direla ohartarazi du Jaurlaritzaren zirkularrak. "Une honetan horiek saihestea gomendatzen du sail horrek".

Mondragon Unibertsitateari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko campusetako aurrez aurreko eskola guztiak online emango ditu gaurtik aurrera, "abisu berri bat izan arte".

Martxorako programatutako ate irekien eta onarpen-proben jardunaldiak atzeratu egingo dituzte edo online bidez egin,

# Gelak hutsik, berrogeialdian

Koronabirusaren hedapena saihesteko asmoz, EAEko ikastetxe guztietan irakaskuntza jarduna eten egin dute eta kirol eta kultura ekintzak bertan behera geratzen ari dira; horrez gain, bailarako herri gehienetako udal instalazio gehienak itxi egin dituzte

eta horietan izena eman duten pertsona guztiekin harremanetan jarriko da unibertsitatea, beste data batzuk eskaintzeko.

#### EKINTZA ASKO, BERTAN BEHERA KULTUR ETA KIROL EKINTZA GEHIENAK BERTAN BEHERA GERATZEN ARI DIRA

Datozen egunetarako aurreikusita zeuden kultur eta kirol ekintza gehienak bertan behera geratzen ari dira. Horrekin batera, Debagoieneko herrietako

udal instalazio gehienak itxi egin dituzte, printzipioz datozen hamabost egunetarako, eta ondorioz, entrenamendu, partidu eta bestelako saiorik ere ez dute egingo egunotan.

Arrasateko udal instalazio gehienak itxita daude gaurtik eta programatuta zegoen guztia bertan behera utzi dituzte. Kiroldegiak, liburutegiak edota Amaia antzokia dira itxi dituztenetako batzuk. Jendaurreko udal zerbitzuetara, berriz, banaka sartu beharko dira herritarrak, metro bateko distantzia mantenduz.

Bergaran ere itxi egin dituzte udal instalazio gehienak, Agorrozin, Seminarixoa edota liburutegia, esaterako, eta zerbitzuak ere eten egingo dituzte, herritarren arreta zerbitzua eta gizarte zerbitzuak izan ezik.

Aramaion, kiroldegia, kultura etxea, erretiratuen etxea eta gazte lokala ixtea erabaki dute. Halaber, Eskoriatzan, pertsona nagusien klubak aldi baterako ixtea agindu du eta Antzuolan, Landatxo adinekoen aisialdi-gunea itxita dago.

Bestalde, zapatuan egitekoak ziren Ertzaintzako 700 plaza eta

Udaltzaingoko 111 betetzeko hautaketa-prozesua, Barakaldo-ko BECen, baina hori ere bertan behera geratu da.

#### ZAHARREN EGOITZEKIN ZER? ZAHARREN AISIALDI ZENTROAK IXTEKO GOMENDIOA EMAN DU JAURLARITZAK

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako adinekoentzako aisialdi zentro guztiak ixteko ere eskatu du Eusko Jaurlaritzak, "birusaren hedapena murrizteko eta pertsona zaurgarriak babesteko" helburuarekin, Nekane Murga Osasun sailburuaren arabera.

Gainera, Murgak herritarrei eskatu die arnas sintomak izanez gero ez joateko leku jendetsuetara, eta adineko pertsonekin eta gaixotasun kronikoak dituztenekin aurrez aurreko harremanak ekiditeko.

Zaharren egoitzei dagokienez, prebentzio neurriak are gehiago zorroztu dituzte. "Bisitei dagokienez, guztiak garbitu behar dituzte eskuak sarreran eta tenperatura hartzen diegu. 37 gradutik gora duten pertsonak ezin dira sartu. Bestalde, bisitariak

gehienez ordubete egon daitezke barruan eta egoiliar bakoitzeko beti bisitari bera izan behar da", azaldu du Olatz Etxabek, Iturbi de egoitzako zuzendariak. "Ia egunero ari gara neurriak aldatzen", gaineratu du.

Erretiratuen bidaia guztiak ere eten egingo dituzte hilabetez, Salvador Illa Espainiako Osasun ministroak jakinarazi duenez. Joan-etorriak mugatzea da neurri berriaren helburua, eta horrela adineko pertsonak "babestea" bilatzen dutela nabarmendu du ministroak.

#### MODU BATERA EDO BESTERA

### ZERBITZU ETA KOMERTZIOETAN ERE IZATEN ARI DA ERAGINA PANDEMIA

Komertzio eta zerbitzuak ere nabaritzen ari dira koronabirusaren eragina, modu batera edo bestera. Izal landetxeko German Letek hala baieztatu du. "Jendea ez dator. Alde batetik, beldurra eta, bestetik, etortzeko ezintasuna". Aitortu du bezeroak erreserbak ezeztatzen ari direla. "Datorren asteko zubiko erreserbak ezeztatzen ari da jendea. Aste Santura begira, momentuz, beteta gaude, baina ikusi egin beharko dugu egoera nolakoa izango den". Mugimendu falta dagoela dio. "Garai hauetan guzuzan mugitzen den jendea ez da oso urrunekoa izaten, normalean, eta egoera ikusita etxean gelditzen ari dira. Asteburu honetarako ere baditugu erreserba batzuk, baina ez ninduke harrituko bertan behera geratuko balira".

Bestalde, Salegi harategiko arduradun Jose Miel Salegik azpimarratu du aste honetan

antzerian duela jendeak gehiago erosi duela. "Normalean baino jende gehiago ibili da erosten eta denetik erosi dute. Hala ere, txahalaren edo oilaskoaren haragia gehiago saldu da".

Era berean, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak Zuzendaritza Batzordeak elkartekideei jakinarazpen bat bidaltzea erabaki du, pintxo-barrak kristal edo antzeko sistemen bidez estaltzea aholkatuz.

Azkenik, datorren eguaztenetik aurrera, Ibai-arteko dendek bezeroentzako gel desinfektatzaileak izango dituzte eta erosteko aukera ere eskainiko dute. "Interesik izanez gero, bezeroek Ibai-arteko saltokietara hurbildu eta bat eskatu besterik ez dute egin behar. Salgai jarriko diren gelak 150 mililitroko poteak dira, eta kostu-prezioan egingo dira; hau da, 3,5 eurotan".

#### ETXETIK LAN EGITEKO SIMULAKROA

### GOIENAK ERE HAINBAT PREBENTZIO NEURRI HARTU DITU ASTE HONETAN

Egoera nola dagoen ikusita, enpresa asko prebentzio neurriak hartzen ari dira birusari aurre egiteko, eta neurrietako bat da langileek etxetik lan egitea. Goiena Komunikazio Taldeak simulakro bat egingo du gaur, egubakoitza, datozen egunetara begira beharra egonez gero gauzak nola egin daitezkeen ikusten joateko. "Gure enpresa nahiko prestatuta dago telelana egiteko. Beraz, ordenagailuak etxera eramanda eta VPN sare bat antolatuta, hemengo artxibo eta beste hainbat kontuetara konektatzeko aukera izango dute langileek etxetik. Momentuz, hale-

re, prebentzio hutsa da", azaldu du Iban Arantzabalek, zuzendariak.

Era berean, aurreko astetik zuzendaritza egunero ari da bilitzen. Langileei gomendio orokorrrak eman dizkie orain arte baina, aste honetatik aurrera neurri espezifikoak ere hartu ditu. "Ez dira bilera jendetsuak egingo eta hauetan behar beste ko separazioa egon beharko da, kafe gelan eskainitako denbora murriztuko da eta harreraren distantzia handituko da". Neurri

txiki hauek langileak ez kutsatzen lagundu dezaketela dio Goienako zuzendari nagusiak.

Gaiari tratamendua ematerakoan jokatzeko moduari dago-kionez, sentsazionalismoan erori gabeko kazetaritza egitearen garrantzia azpimarratu du Arantzabalek. "Goienak erabaki duen beste gauza bat da kazetaritza egitea. Hau da egiten dakiguna, ez dakigu aurreikuspenak egiten. Kazetaritza egingo dugu sentsazionalismoan erori gabe eta alarrik ez sortuta".

#### ADEGIREN JAKINARAZPENA

### HONI LOTUTAKO BAJAK GAIXOTASUN PROFESIONAL GISA HARTUKO DITUZTE

Koronabirusak kutsatuta edo bakartze prebentiboan dauden langileek gaixotasun profesionalagatik hartuko dituztela laneko bajak, eta ez gaixotasun arruntagatik. Hala, oinarri arautzailearen% 75 jasoko dute Gartzarte Segurantzaren kargura.




## Gure ikasleen ahotan



**Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?**  
Txanbixu ikastolan ikasi nuen Unibertsitatera heldu arte. Leinn gradua Oñatiko campusean ikasi nuen. Bidaiatzea asko gustatzen zait. **Zergatik aukeratu zenuen Leinn gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?** Nire ibilbide profesionala atzerrian garatzeko aukera emango zidan gradu bat aukeratu nahi nuen. Mondragon Team Academyk hezkuntzarekin duen proposamena eta metodologia oso ausarta eta berritzailea iruditu zitzaidan. **Nola baloratuko zenuke Leinn-en bizitako esperientzia?** Ez da gradu bat soilik. Mundua ikusteko modua aldatu dit eta nire burua hobeto ezagutzeko

**“Garrantzitsuena bakoitza bere ikasketa prozesuaren jabe izatea da”**

**Irati Gutierrez (Oñati, 23 urte) Leinn-en (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza) graduatua da.**

tresna asko eman dizkit. Hiru gauza azpimarratuko nituzke: taldea, bidaiak eta komunitatea. Eta bidaiak ezinbestekoak dira. Denetik egin dugu. Finlandiako eskoletan metodologia berriak sortu, Silicon Valley-n itzulpengintza merkatua aztertu, Txinako probintzia ezezagun baten eskola kontzeptu berri bat ireki, etab. Mundu osoko profesionalak, ekintzaileak eta coach-ak ezagutzeko aukera izan dugu. **Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?** Berritzailea. Garrantzitsuena bakoitza bere ikasketa prozesuaren jabe izatea da. Lanari begira autonomia handia ematen dizu. **Lehen egunetik enpresa bat sortu unibertsitatean eta proiektuak garatu, nola egiten da hori?**

Zalantza beteta, baina ekinean. Lehenengo urtean, esperimintatzeko aukera handia ematen dizute. Hirugarren eta laugarren urteetan, gehien gustatu zaizkizun arloetako proiektuak garatzen jarraitzeko aukera duzu. Taldea koordinatzen ikasi dugu emaitza jakin batzuk lortzeko. **Ze proiektu mota garatu dituzue Leinn graduan zehar?** Batez ere, hezkuntzarekin, turismoarekin eta teknologiarekin lotutako proiektuak. **Atzerriko esperientziarik izan duzu?** Bai. Finlandian, Ameriketako Estatu Batuetan, Indian eta Txinan egon naiz graduan zehar. **Zer egiten duzu orain?** Gradua bukatu genuenean, sortu genuen Weif kooperatiban ari naiz lanean.

## 112 linea, kolapsatuta

112 telefonoa larrialdi egoerarako dagoela jakinarazi dute osasun zerbitzuek. "Batzuek ezin dute itxaron, iktusa, bihotzekoa edo beste arrazoi larriren bat izan baitezakete. Ez dezagun lerro hori ase". Hala, norbaitek gripearen antzeko sintomak baditu, koronabirusa izan dezakeela uste badu eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi bada, 900 20 30 50 telefonora deitzeko gomendioa egin dute, eta ez 112 zenbakira.

Osasun Sailak emandako azken datuen arabera, 346 kasu dira orain artean EAEn detektatu dituztenak; 16 Gipuzkoan, 259 Araban eta 71 Bizkaian. Kutsatuta dauden pertsonen artean 147 ospitalean daude, eta Covid-19 gaitzak jota hamaika heriotza egon dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.



Atzo, eguna, egin zuten Geroa bermatuz jardunaldietako lehen saioa, Debagoieneko Mankomunitatean. E.A.

# Enpresen geroa bermatu dadin, informazio saioak

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak antolatutako 'Geroa bermatuz' jardunaldiaren lehen saioa egin zuten atzo, eta hilaren 26an egingo dute bigarrena; enpresen transmisioari buruzko informazioa eta orientazioa ematea da helburua

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Mankomunitatean bertan egin zuten atzoko saioa eta han egingo dute hilaren 26koa ere. Langileei, enpresetako kide eta zuzendariari eta eragileei zuzenduta daude jardunaldi hauek, nahiz eta Garapen Agentziako arduradun Koldo Azkoitiak azaldu duen interesa duen edonondako atekak zabalik dituztela.

Atzoko saioan, besteak beste, enpresaren kapitalean langileek duten partaidetza izan zuten berberak, eredu ezberdinak, transmisiorako alternatibak eta enpresaren kapitalean parte hartzeko prozesuak landuta. Modu berean, kasu praktikoak eta eskualdatzeen gaineko programak eta laguntza ezberdinak ere aztertu zituzten. 17 pertsonak eman dute izena.

**Formula kooperatiboak aztergai** Bigarren saioa martxoaren 26an egingo dute, eta enpresen transmisioan gizarte-ekonomiak eskaintzen dituen formulak azter-

tuko dituzte. "Kasu gehienetan gertatzen dena planteatu dugu bigarren saio horretarako, hau da, langileek enpresa hartzea, eta horretarako, ekonomia sozialeko formularen bat erabiltzea. Izan ere, baliteke enpresaren eredu aldaketa bat ere izatea, eta askotan gertatzen da hori. Familia enpresek edo jabetza pribatuak dituztenek normalean langileei transmititzen dietenean jabetza, formula kooperatiboak bilatzen dituzte", dio Azkoitiak.

Horretarako, Elkarlan eta Asleko ordezkariak izango dituzte, arduradunaren esanetan. "Doako zerbitzuak ematen dituzten bi eragile dira, halako kasuekin oso trebatuak direnak". Norberto Alboniga izango da Elkarla-

**MANKOMUNITATEKO GARAPEN AGENTZIAK LEHENENGO ALDIZ ANTOLATU DITU JARDUNALDI HAUEK**

neko ordezkaria eta Aslekoa, berriz, Ana Isabel Yoldi.

**Iaz, horrelako hiru kasu**

Jardunaldi hauek hainbat helburu dituzte, baina inportanteena enpresak eskualdatzeko prozesuari buruz informatzea eta orientatzea da, "jabeek erretiroa hartu behar dutelako, enpresa saldu nahi dutelako edo beste arrazoi bat dela-eta euren enpresa transmititu gura duten horiendako". Normalean, enpresa txikiak dira, Azkoitiaren esanetan, eta, askotan, planteatzen dutena da transmisio hori zeini eta nola egin.

Dienez, iaz, adibidez, horrelako hiru kasu izan ziren. "Horietatik bik ondo egin zuten prozesu guztia, eta besteak ez. Horrelako kasuak gertatu izan dira, eta geroz eta gehiago daude. Gure ikuspegitik, garrantzitsua da enpresa eta ekintzaile berriak egotea, baina baita ditugunak ere merkatuan mantentzea", gaineratu du.



Eguaztenean egin zuten ekimenaren aurkezpena, Donostian, Tabakaleran. GURE ESKU

## Galdeketa aldeko sinadura bilketa abiatu du Gure Esku-k

Hamaika Gara ekimena aurkeztu dute asteon, eta gauza bera egingo dute Arrasaten astelehenean, Kulturaten

**E.A. ARRASATE**

Hamaika Gara ekimenaren bitartez, erreferendum baten aldeko sinadura bilketa jarri du martxan Gure Esku dinamikak, hainbat eragile sozialekin elkarlanean. Donostiako Tabakaleran egin dute ekimenaren aurkezpena aste honetan. "Gure bidean mugarri izango da ekimen hau", azaldu dute Amalur Alvarez eta Josu Etxaburu bozeramaileek.

Haien esanetan, "sinadura bilketa masiboa" izango da, "etorkizun politikoaz eta gai guztiez erreferendum bidez erabakitzearen alde, erabakitze eskubidea arautzea helburu duena". Hala ere, ez da sinadura bilketa soil izango, eta harekin loturik hainbat ekintza egingo dituzte; besteak beste, bi hauek aurreratu dituzte oraingoz: maiatzaren 16an, Durangon "mobilizazio egun handia" egingo dute; eta ekainaren 13an, berriz, Hamaika Gara eguna, herri ezberdinetan. "Ekintza kolektibo masiboa eramango dugu aurrera, herritarren konpromisoak pilatu eta urrats eraginkorrek egiteko", azaldu dute.

Hauek dira, oraingoz, egitasmoa sustatuko duten eragileak, alfabetikoki: AEK, ANC Euskal Herria, Bilgune Feminista, Demokrazia Bai, Euskal Herrian Euskaraz, EHNE, Euskal Herria Kirola, Erabakizaleak, Ernai, ESK, Etxalde, Etxerat, Gaur Geroa, Gure Esku, Hiru, Ikastolen Elkarte, Kontseilua, LAB, Lumagorri, Nor, Olatu Koop, Onea, Sare eta Steilas.

Erreferendumaren aldeko hautua defendatzeko bi arrazoi eman dituzte: "Lehenik, demokraziaren legezko praktika unibertsala delako eta bestetik izan dezakegun tresnarik eraginkorra delako. Bigarrenik, burujabe izan nahi dugulako eta gure Herriaren norabidea eta etorkizuna elkarrekin erabaki nahi dugulako. Hau da, gure bizitzan eta komunitatean eragina duten auzi guztien inguruan erabaki nahi dugu, askatasun osoz".

**Udazkenean, bi eskaera**

Haien esanetan, sinadura bilketak oinarri izango duen manifestuan, sinatzaileek burujabetzarako bidean euren borondatea eta konpromisoa adieraziko dute. "Eta, era berean, tokian toki hala erabakita, eskaera zehatzak bideratuko zaizkie Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari".

**Arrasatekoa, bertan behera**

Honekin lotuta, Arrasateko Gure Eskuk herri ekimenaren aurkezpena egin behar zuen astelehenean, martxoaren 16an, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean. Hala ere, koronabirusa dela eta, bertan behera geratu dela jakinarazi dute.

**ASTELEHENEAN EGITEKOAK ZIREN AURKEZPENA BERTAN BEHERA GERATU DA AZKENEAN**

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pesealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Arebabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Arebabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

### JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Arebabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Arebabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arebabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Clarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

# Zaldibarren gertatutakoa argitzeko, mobilizazioak

Zaldibar Argitu! herritar plataformak deituta lanuzteak egin zituzten atzo Eibarren, Ermuan, Zaldibarren, Mallabian eta Elgetan. Hiru aldarrikapen izan dituzte ardatz: desagertuak aurkitzea, osasuna eta ingurumena bermatzea eta ardurak argitzea

**Jone Olabarria** DEBAGOIENA

Otsailaren 6an Zaldibarko zabortegea behera etorri zenetik "gauza gehiegi argitu gabe" daudela salatu du Zaldibar Argitu! plataformak. Hala, duela hila-bete gertatutako hondamendiak gizartearen zein ingurumena kudeatzeko indarrean dagoen ereduaren "agortzea" agerian geratu dela iritzita, hainbat mobilizazio egin dituzte asteon, Zaldibar Argitu! plataformak deituta.

Hain zuzen, zabortegearen inguruko herrietan, tartean Elgetan, egin dituzte hainbat aldarrikapen ekintza: martitzenean Eibarren eta Ermuan egin zituzten batzar irekiak, baita kontzentrazioa ere. Eguaztenean auto karabana egin zuten Ipuruatik abiatuta. Atzoko, lanuzteak deitu zituzten 12:00etatik 15:00etara eta manifestazioak egin zituzten Eibar, Ermua, Zaldibar Mallabia eta Elgetan.

## Balorazio positiboa Elgetan

Elgetaren kasuan, hamabietatik hirurak arte egin zuten lanuzte deialdiarekin bat erakunde, komertzio eta lantegiek. Elgetako Herri Eskolako irakasleek eta jangelako langile eta begiraleek ere egin dute bat lanuztearekin, baina ordutegi bereziarekin. Plataformako kide Janire Lazkano gustura agertu zen deialdiak izandako erantzunarekin: "Gustura gaude izan duen jarraipenarekin. Alor ezberdinetako herritarrak batu gara, denoi eragin digun zerbait da, azken finean; gure osasunarekin jolastu dute eta ez dute aurpegia eman".

## Hiru aldarrikapen nagusi

Manifestazioan Zaldibarren gertatutakoa argitzea eta bertan desagertutako bi langileak aurkitzea eskatzen zuten oihuak izan ziren nagusi. Hain zuzen



Zaldibar Argitu! lelopean atzo Elgetan egindako manifestazioa. TXOMIN MADINA

## "GUSTURA GAUDE JARRAIPENAREKIN, ALOR EZBERDINETAKO HERRITARRAK BATU GARA ELGETAN"

ere, hiru aldarrikapen nagusi egin dituzte plataformatik: lutzia gertatu zenean zabortegean lanean ari ziren Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze aurkitzea, herritarren osasuna eta ingurumena bermatzea eta ardura guztiak argitzea. Mobilizazioen babesari dagokionez, ELA, LAB, CCOO, ESK, Steilas, Hiru eta Etxalde sindikatuek bat egin dute lanuztearekin.

## Babes manifestua

Era berean, Zaldibar Argitu, ereduaren agortzea agerian izenburupean, esparru akademiko eta kultur alorreko 84 pertsonak manifestu bat izenpetu dute, "desagertutako langileen senideei eta hondamendi eksozial honek zuzenean eragin dien auzotarrei elkartasuna eta babesik beroena adieraziz". Agiriaren arabera, Zaldibarkoa

ez da inguruko herrietako biztanleei soilik eragiten dien kontua, eta sinatzaileek erakunde publikoei, sektore pribatuari eta gizarte zibilari" dei egin diete, "trantsizio ekologiko eta sozialerako eztabaida zintzoa abian jarri eta bide-orri bat osa dezaten".

## "Agortutako" eredia

Manifestuan adierazten denez, "Zaldibarren gertatutakoa ez da soilik inguruko herrietako biztanleei eragiten dien zerbait", eta gizartearen zein ingurumena kudeatzeko indarrean dagoen ereduaren "agortzea" agerian jarri du: "Erakunde publikoek zorrotz eta zuhurtziaz jokatu ezean, araudien betetze mailan, lizentzia kontzesioetan, eta abar, kontrolaezinak diren egoerak sortzeko aukerak biderkatzen dira".

Hondakinen kudeaketa "helburu lukratiboak dituzten enpresa pribatuen eskuetan" utzi dela esan dute. Egoera horretan, osasun publikoari eta herritarren bizi kalitateari modu zuzenean eragiten dieten esparruetan "kontrol publiko zorrotz eta arduratsua" eskatu dute.

## Udalekuak 2020: 1.150 haur gipuzkoarrentzat aukera zabala

Programak euskararen erabilera sustatu nahi du, aisialdiko jardueretako komunikazio hizkuntza gisa

**J.O.** DEBAGOIENA

"Dibertsiorako eta elkarbizitzarako espazio bat" eskaintzeko asmoz, Udalekuak 2020 programak 1.150 plaza eskainiko ditu 7 eta 13 urte bitarteko neska-mutilentzat.

Harkaitz Millan Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lan-kidetzeta, Gazteria eta Kiroleko diputatuak, Pablo Oraa Bizkaiko Kirolo foru diputatuak eta Andoni Iturbe Bizkaiko Kultura foru diputatuak eguaztenean aurkeztu zuten programa, haurren "autonomiaren garrantzia" azpimarratuz: "Aukera izango dute gozatzeko eta beren autonomia pertsonala garatzeko, hainbat balioen bitartez, hala nola berdintasuna, ingurumenarekiko errespetua, adiskidetasuna eta elkartasuna".

## Eskaintza zabala

Udalekuak uztailaren 1etik 29ra bitartean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egingo dituzte. Hala, Gipuzkoak, guztira, zazpi eguneko iraupena duten 1.150 plaza eskainiko ditu, herri hauetako instalazioetan: Orio, Zarautz, Hondarribia eta Zestoa. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak leku hauetako instalazioetan eskainiko ditu egonaldiak: Gorkiz, Lapurreketa, Lurraska, La Arboleda, Astiz, Meakaur, Galdames eta Bidasoa Garaia. Azkenik, Arabako Foru Aldundiak hemen eskainiko ditu: Barria, Zuhatza eta Espejo. Instalazio horietara guztietara joan dai-

tezke Gipuzkoako neska-mutilak, aldundien artean plazak trukatzeko aukeraren bitartez.

## Euskara sustatu nahian

Udalekuak 2020 programak euskararen erabilera sustatu nahi du, "aisialdiko jardueretako komunikazio hizkuntza gisa", eta, Millanek azpimarratu duenez, "garrantzitsua da, baita ere, aintzakotzat hartzea eskualde bakoitzeko kultura-balio, ohitura eta baliabideak, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa aisialdiarekin konbinatuta".

## Epeak eta txandak

Kanpainan, zazpi eguneko iraupena duten hainbat txanda ezarriko dira. Taldeak adin-tarte eta hizkuntza-eredu desberdinen arabera ezartzen dira hiru probintzietan: 7 eta 8 urte bitartean, 400 plaza; 9 eta 11 urte bitartean, 2.270 plaza; eta 12 eta 13 urte bitartean, 1.330 plaza. Guztira, eskaintako 3.745 plazetatik %94 euskaraz dira eta gainerakoak, berriz, eredu elebidun bati dagozkie. Gipuzkoan 1.039 euskaraz izango dira eta 71 ele bitan.

Aurtengo kuota 130 eurokoa izango da eta horren baitan egongo dira ostatua, gosaria, bazkaria, merienda eta afaria; dinamizazioa; istripu eta erantzukizun zibileko aseguru eta joan-etorriko garraioa jatorritik (Donostia, Bilbo, eta Gasteiz). Eskaerak martxoaren 16tik 24ra bitartean aurkez daitezke, udalekuen webgunearen bidez.

## 'A-636 peajerik ez' taldeak bidesaririk ez jartzea eskatu du

Gipuzkoako Foru Aldundiak A-636 errepidean, Beasain eta Bergara arteko tartean, ordain-saria jarriko duela iragartzearekin batera abiarazi zuten A-636 peajerik ez plataforma. Bertako Jokine Lizarralde eta Edu Reguerok salatu dutenez, errepideak "erabateko diskriminazioa" dakar Beasain, Zumarraga, Antzuola edo Bergarako herrita-

rrentzat, besteak beste: "Lanera joateko, ikasteko edo ospitalera joateko erabiltzen dugu errepide hau eta ezin gaituzte behartu ordaintzera".

Azaldu dutenez, Aldundiak Europatik datorren agindu bat dela adierazi du, eta plataformatik faltsua dela "salatu" dute. Hala, Aldundiari eskatu diote urte amaieran abiaraztekoa den neurria "bertan behera utzi" eta "duela 40 urte erabiltzen zen errepidea hartzea ez kondentzea" A-636ko erabiltzaileak.

## Aintzane Oiarbideri

### JAIONE ISAZELAIA

BERGARA

Zure oroimenek gogora ekarri dizkidate nireak.

Puri-purian izan genuen gure osasunean eta ingurumenean eragin zuzena duen hondakinen gaia.

Legegintzaldia hasi bezain pronto, Mankomunitatean ordurako hasita zegoen hausnarketarekin jarraitu genuen. Gure aurrekoek Antzuolan eta Aretxabaletan hondakin bilketa moduak aztertzeko bideratu ziren proben emaitzak jakin genituen: Antzuolan atez ateko bilketa sistemarekin lortzen ziren birziklatze tasek eta Aretxabaletan bosgarren edukiontziaekin lortzen zirenek ez zuten zalantzarako tarterik uzten, Antzuolakoa zen eraginkorrena; berau ezartzeko urratsak egiten hasi ginen. Erabaki guztiz teknikoak zen honek talka egin zuen

GHK-k hartutako erabakiarekin: Zubietan errausketa planta erraldoia egitea; izan ere, munstroak zaborra jaten du eta hondakinak ondo bereizi eta biltzeak galarazi egiten du janari hori sortzea.

Interes politiko eta ekonomiko itzelekin egin zuen talka gure proiektuak, eta inoiz bideratu den jazarpen mediatiko, sozial eta populisten jarri zenuten martxan.

Artikuluak egiak eta gezurrak nahasten dituzu. Egia da Epeleko konpostaje planta egiten zen bitartean kanpoko plantetara bideratzen zela hondakin organikoak; egia da, baita ere, hondakin guztiz inerteak ondo sailkatu eta biltzea zela asmoa, baina proposamen horiek ez zioten inolako kalterik egiten ingurumenari.

Egia da Epeleko diru funtsa erabili zela, eta egia da –eta ez duzu esaten– diru hori itzuli

egin zela. Gezurra da informazioa ukatu zitzaizuela.

Zaldibarren erori den garbiena zaborra dela diote... Azpian desagertutako langileak eta inguruan pozoiak utzi ditu. Gertatutakoa diru gosearen eta Jaurlearitza kontrol eskasaren ondorio izan da.

Azken galderari erantzunez, Bilduk ezin du soluzio magikorik eskaini, soluzioetan magia soberan dago, konponbideak teknikariek proposatu behar dituzte, ingurumena eta herritarren osasunaren zaintza kontuan hartuz, eta ardura hori, Zaldibarko hondamendiak argi utzi duenez, esku publikoetan utzi behar dugu.

### EAJren magia

#### IBAI LARRAÑAGA

ELGETAKO EH BILDU

ELGETA

Joan de astean irakurri nion herrira gutxitan etortzen den Elgetako zinegotzi bati zein ote

zen hondakinen arazoari irtenbidea emateko ezker abertzalearen soluzio magikoa. Bide batez, proposatzen genuen –inerteen biltegi publikoen– eredu Zaldibarko gertaera lazarria eragin zuen kontrolrik gabeko zabortege pribatuarekin alderatzeko aprobetxatu zuen.

Gure politika egiteko modua ez da sekula magian oinarritu. Garbi esan genuen hondakin gutxiago sortuz gero eta sortutakoak berrereabiliz, birziklatuz eta modu egokian tratatuz gero erraustegirik ez genuela beharko, eta haren orde tratamendurako plantak eta, azkenik, biltegiak erabiliko genituela. Hor ez zegoen magiarik.

Gogoan dut nola saldu ziguten Zubietan neurketak modu jarraian egingo zituztela eta isurien mugak gaindituz gero erraustegia ordu erdian geratu ahal izango zutela. Nola liteke orain datuak jakiteko gutxienez bost egun behar izatea? Magia? Ez, gezurra.

Gogoan dut nola saldu ziguten Gipuzkoan erraustegia eraikita zabortege ez genuela beharko.

Nola liteke, orduan, Bizkaian 2005ean erraustegia martxan jarri zuten arren, 2020an gutxienez 11 zabortege –11, literalki– zabalik egotea? Magia? Ez, hau ere gezurra.

Horieta bat zen, hain zuzen, Zaldibarkoa. EAJk 2000. urtean legea aldatu zuen, Verter bezalako enpresei egin beharreko kontrolak Jaurlearitzak egin orde enpresek euren kaxa egin zituzten. Eta orain, EAJren lurraldean eta EAJren kudeaketa eredu jarraituz zaborra burutik behera erori zaienean, gure zinegotziari EH Bilduren kudeaketa datorkio burura. Izan ere, magorik onenen moduan arreta desbideratzen iaioak dira, zabor pilak itota eta aire kutsatua arnasten egonda ere, oasian gaudela saldu nahi digute. Horra EAJren magia.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Online erosi eta dendan jaso



Lekua egingo dizugu

Erosketak jasotzeko zerbitzu berria  
Arrasateko Hipermerkatuko aparkalekuan dauden hoztutako kutxatila adimendunetan.

-21°



4°



<4°



DOAN, 4 orduan eta itxaron gabe



\*Deskontu-kodea: PT12141612; gutxienez 60 €-ko erosketa batean erabili ahalko da. 2020/05/31ra arte.

supermercado.eroski.es



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

## Koroaren birusa

Hau idazteko orduan, koronabirusa da komunikabideetako errege. Besterik ez dago sare sozialetan, telebistan, prentsan, irradian eta, ondorioz, kalean. Mundu dena dago kezkatua birusarengatik. Eta zenbateraino!

Pentsa, dagoeneko ez da Zaldibarko zabor-mendiaren hondamendiari eta ondorengo kudeaketa ilun eta penagarriari buruz ia ezer entzuten; aste honetan ez du inork Mankomunitatera deitu Epelez galdetzeko; futbola eta futboleko errege-kopa bera ere bigarren mailara pasa dira; inori, jada, ez zaizkio hauteskundeak inporta; Lesbosen gertatzen ari den guztia eta Europa hor hartzen ari den jokamolde ankerra ia ez dira bistaratzen... eta bada bigarren mailan ez, baizik eta askoz ezkutuagoan geratu den beste kontu bat, Juan Karlos errege ohiak Saudi Arabiaren eskutik jasotako 100 milioi euroko propina.

Koroaren birusa da hori, oraindik kontrako txertorik ez duena. Franco jeneral kolpistak jarri zuen borboia Espainiako buru; ez ahaztu, milaka pertsona hil ondoren boterera iristea lortu zuen jeneral kolpistak berak, 40 urtez diktadura ezarri zuenak. Eta

oraindik irauten du, e!

Diotenez, buruan koroa jarri zioten egunean, borboiaren poltsikoak eta haren ingurukoak zuloz beteta zeuden, ondasunik gabeko tipoa zen; orain, baina, munduko aberatsenen artean ei daude bera eta familia. Lana eginda? Bai, seguru. Lan zikina, ordea, eskupekoak jasotzeko aukerak ematen dituen horietakoa. Eskupeko zikinak, bide batez, eskuak odolez zikinduta dituen Saudi Arabiarengandik oraingoan. Izan ere, koronabirusari kostatu zaio estatu horrek eragin dituen heriotzen marka gainditzea.

Eta egon da aukera kontua ezkututik atera eta egunerokotasunaren lehen lerrora ekartzeko, baina komunikabide handiek bizkarra eman diote, eta politikariek ere bai: Vox-ek, PPK eta PSOEek errege-ohiaren diru-kontuak ez ikertzea erabaki dute.

Zergatik ote?

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Marea gora

ASIER HILARIO ORUS

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Urtero gertatzen da, neguan.

Bat-batean, itsasoa haserretu egiten da eta olatu erraldoiek gure kostaldean kalte handiak eragiten dituzte.

Inoiz baino argiago esan daiteke gudu hori alde zuzenetik galduta daukagula.

Etorkizunean itsaso-maila igo egingo da eta sistemak gero eta energia gehiago izango duenez muturreko gertakari hauek gero eta aruntagoak izango dira.

Gure kostaldeko estuarioetako sedimentuak

aztertuz jakin ahal izan dugu azken 7.000 urteetan itsas maila egonkorra izan dela, baina azken urteetan gauzak nabarmen aldatu direla.

XX. mendean 2 mm/urtean igoen hasi zen eta azken 30 urteetan 3-4 mm/urtean igoen ari da.

Beraz, itsas mailaren igoera ez da etorkizuneko kontua, jada aktibatu den prozesu baten aurrean gaude.

Eta etorkizunean zer?

2100. urterako berotegi efektuko gasen isurketa asko murriztu eta Parisko protokoloa betetzen badugu, klima 1,5 gradu berotu daiteke eta itsas maila 42 cm igoko litzateke.

Aldiz, *business as usual* jarraitzen badugu, klima 5 gradu berotu daiteke eta itsaso-maila 75 cm igoko litzateke, baina muturreko itsas ekaitzek metro batetik gorako igoera eragin dezakete.

Hauek datuak, hauek zientzialarien iragarpenak.

Dramatismoetatik ihes, gertatuko denaren aurrean neurri egokiak hartzea dagokigu.

Ez hori bakarrik, neurrien abiadurak klima aldaketarena baino arinagoa izan beharko luke.

Denbora kontua ere bada.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

### Lehendakaria

Aitor Izagirre.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.

### Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

### Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

### Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza,  
Maite Igartua.

### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

### Lege Gordailua:

SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen

aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta  
Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza  
Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Kurduon genozidioa gura du Turkiako Gobernuak"

ZILAN UGUR SOZIOLOGOA ETA EKINTZAILE KURDUA

**Xabier Etxebarria** OÑATI Soziologia Juridikoko masterra ikastera etorri da Zilan Ugur (Amed, Kurdistan, 1996) Oñatira. Bere egonaldian hainbat herritar ezagutu, eta haiekin Newroz eguna antolatu du gaztetxean. Newroz kurduen egun nazionala da. Ospakizunaz eta Kurdistango egoeraz dihardu. **Newroz eguna ospatuko duzue zapatuan Oñatin. Zer da kurduentzat Newroz?**

Newrozek *egun berria* esan nahi du persieraz. Kondairak dio herria zapaltzen zuen errege baten aurka altxatu zirela kurduak. Gaur egun, elkartu eta askatasuna iritsiko den eguna irudikatzen dugu. Horregatik, Turkiako Gobernuak mila oztopo eta debeku jartzen dizkio ospakizunari. Hala ere, kurduak elkartu, gure arropa tradizionalak jantzi, jan, dantza egin eta lagunekin egoteko baliatzen dugu. **Azken urteetan, Siriako gerra dela eta, kurduak zeresan ugari**



Zilan Ugur kurdua Oñatin oraingo astean. XABIER ETXEBERRIA

**eragin duzue. Gutxi baldin bada ere, munduak pixka bat begiratu dizue. Zein da orain herri kurduaren egoera?**

Gaur egun, aspaldidanik bezala, Turkiako gobernu faxistak herri kurdua

erasotzen jarraitzen du; kurduon genozidioa helburu du 1980ko eta 1990eko hamarkadetako gatazkaren ondoren. 2013an, PKK-k su-etena iragarri zuen eta bake prozesua martxan jarri

genuen. Hala ere, Turkiako Gobernuak Kobane eta Afrini eraso egin zien, ISIS bezalako erakundeak baliatuz. Testuinguru honetan, herri kurduak aurre egin zion erasoari eta Rojavako iraultza hasi zen. Orain, Rojavari ere eraso egin diote eta asimilazio politikak aplikatzen hasi dira bertan, Turkia osoan egiten ari diren bezalaxe.

**Zu zeu Turkiako Kurdistango zatikoa zara.**

Bai; gure eremura, Bakurrera, PKKren su-etenen ondorengo erasoaldia 2015ean iritsi zen. Turkiako armadak herri osoak txikitu zituen; nire jaioterria, besteak beste. Horren aurrean, herri kurduaren erantzuna itzela izan zen, etxetik, kalez kale aurre eginez armada turkiarrari. Gainera, kurduak ordezkatzen gaituen HDP alderdiko ehunka kide, buruzagi, zinegotzi eta alkate atxilotu zituzten.

Horretarako, Turkiako alderdi politiko guztiak elkartu ziren, Erdogan buru zutela. HDP kurduon alderdia izateaz gain, Turkia osoko indar aurrerakoi, ezkertiar eta feministentzat ere erreferentia da.

**Rojava defendatuz bertan iraultza egitera pasa zineten.**

Kurdistango erresistentziaren ideiak Konfederalismo Demokratikoan daude oinarrituta. Ideia honek emakumeen askapena lehen lerroan jartzen du. Erresistentzia honen gauza ederrena da iraultza global bat irudikatzen duela. Horregatik, Europa osotik hurbiltzen da jendea Kurdistango iraultzan borrokatzera. Borroka honek patriarkatu eta nazio estatuen zapalkuntzari aurre egiten die; horregatik, NATO bezalako erakundeek etsaitzat gaituzte.

**Zapatuan Oñatiko gaztetxera hurbiltzen denak zer aurkituko du?**

Oso eskertuta nago jai hau ospatzeko aukera eman izanagatik. Oñatiko gaztetxekoek kurdua nintzela jakin zuten momentutik proposatu zidaten Newroz eguna ospatzea. Newroz egunaren erdigunea sua da, eta hemen ere halaxe egingo dugu. Egoera latza izanagatik ere, kurduak jende alaiara gara eta Halay dantzen bitartez hori irudikatuko dugu zapatuan. Ekimena, oro har, herri kurduari elkartasuna adierazteko modu polita izango da, *biyi* (gora!) Oñatiko jendearen elkartasuna kurduetik!

## ITURRI ONETIK

## Danbaka Musika Lehiaketa berriro antolatuko dute

Danbaka Musika Lehiaketak aro berria izango du aurten, 10 urteko etenaren ostean. 2004. urtean egin zen lehen aldiz eta lau edizio antolatu ziren jarraian, bi urtetik behin; azkena, 2010ean. Lehen garai hartan, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian antolatu ziren zuzeneko emanaldiak. Bosgarrena izango da aurtengo udazkenean. Antolatzeke bidelagunekin harremanetan dihardu Goiena Komunikazio Taldeak. Lehiaketako kontzertuak osorik jasoko ditu Goiena telebistak.

## ALBISTE IZAN ZEN



2006-03-12

## Lehen hileta musulmana Debagoienean

Debagoieneko lehen hileta musulmana egin zuten Bergarako Ipintza futbol zelaian. Meskitan egin ohi dituzte halako ekitaldiak musulmanek, baina, Bergaran halakorik ez zenez, Zubair Mohamed -26 urte- hildakoaren senide eta lagunak ondo ezagutzen zuten tokian egin zuten. Izan ere, kriketeen jokatzeko tokia izan ohi zuen pakistandar talde batek Ipintza. Bergarako Udaleko langilea zen Zubair Mohamed.

## HAU BE BADOGU!

## Koronabirusa, gai bakarra sarean

Sare sozialetan marka guztiak hausten ari da koronabirusaren gaia. Mundu mailan, gai eztabaidatuena da:

*@aingerugm*: "Txinan eta Italian gertatutakoa ikusita, argi dago epe motzeko arrisku handiena ospitaleen kolapsoa dela. Hau ekiditeko, neurri gogorak hartu behar dira berehala denbora irabazteko".

*@arrabita*: "Gobernuak eta multinazionalak honezkero ariko dira ikerketak, frogak eta esperimenduak egiten *#koronabirus*-aren kontuarekin. Hori bai dela beldurgarria".

# Maiatzerako, wifi-gune gehiago eta azkarragoak

Europa mailako WIFI4EU programaren 15.000 euroko dirulaguntza jaso berri du Udalak. Horri esker, bost wifi-gune berri jarriko dituzte, eta gaur egun dauden gune batzuetan Internet abiadura 30 aldiz azkarragoa izango da -1 MB-tik 30 MB-ra-.

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Lehen, ohikoa izaten zen Kulturrate kanpoan doako Internet bila zegoen jendea ikustea: telefono mugikorrekin, ordenagailuekin... baina, duela bizpahiru urtetik hona, irudi hori desagertuz joan da, herrian jarritako lehen wifi-guneen eraginez. 2017an, proiektu pilotu eran Arimazubi plazan eta Garibai eta Maisu Arano kaleetan jarri ziren lehen puntuak; 2019an, sare hori sei puntutara zabaldu zen: Arimazubi plaza, Arizmendiarieta plaza, Biteri plaza, Euskara plaza, Makatzenako jolas parkea eta Musakolako kiroldegia. Orain, beste bost gune berri jarriko dute: Monterron parkea, Herriko Plaza, Seber Altube plaza, kiroldegiko skate parkea eta Mojategiko harmailak.

**Sei gunetan konexio azkarragoa**

Orain dagoen wifi konexio publikoa 1 MB-koa da, eta sistema berriarekin sei gunetan 30 MB-



Iker Agirresarobe eta Anuska Ezkurra, wifi-gune izango den Herriko Plazan. X.G.

koa izango da. Hauek dira 30 MB-ko abiadura izango duten guneak: Garibai etorbidea, Biteri plaza, Euskara plaza, Arimazubi plaza eta kiroldegiko sarrera eta kanpoko igerilekua. Antena horietako bakoitzak 500

konexio batera kudeatzeko gaitasuna du.

**Wifi-guneak nola erabili**

Zerbitzu hau erabiltzeko, posta elektronikoa kontua besterik ez da behar. Sarera konektatu eta

## Herriko wifi-guneak

**Gaur egun martxan daudenak**

- **2017an jarritakoak:** Arimazubi plaza, Garibai etorbidea, Maisu Arano kalea.
- **2019an jarritakoak:** Arizmendiarieta, Biteri eta Euskararen plazak, Makatzenako jolas parkea eta Musakolako kiroldegia.

**Orain jarriko diren gune berriak**

- Monterron parkea, Herriko Plaza, Seber Altube plaza, Kiroldegiko skate parkea eta Mojategiko harmailak.

**30 MB-ko abiadura izango duten guneak**

- Garibai etorbidea, Biteri plaza, Euskara plaza, Arimazubi plaza eta Musakolako kiroldegiko sarrera eta kanpoko igerilekua.

bertan erregistratu beharko da, izen-abizenak eta posta elektronikoa kontua jarri. Sistemak mezu baten bidez lotura bat bidaltzen du erregistroa guztiz burutzeko. Momentu horretatik aurrera, erabiltzaileak gune publiko horietan zerbitzua erabiltzeko aukera askea izango du, mugikorrek edo tabletak duen wifiaren ikurrean klik eginda.

**Europako dirulaguntza**

Proiektua garatzeko, Udalak 15.000 euroko -BEZa barne- dirulaguntza jaso du Europatik WIFI4EU erakundetik. Bertatik inbertsioak finantzatzeko dira: antenak, instalazioak... Mantentze gastuak eta Interneteko konexioa, adibidez, Udalak ordainduko ditu. Anuska Ezkurra zinegotziak adierazi du Udalak herritar ororen sarerako konexioa

bermatzea duela jomuga: "Ekimenaren helburua da herri osoan kalitate handiko Interneterako sarbidea ematea egoiliarrei eta bisitariei, espazio publikoetan dauden doako wifi sarbide-puntu bidez: parkeak, plazak, administrazio-eraikinak, liburutegiak eta osasun-zentroak... Guztiok batera egin behar dugu aurrera eta zerbitzu publikoen unibertsaltasuna bermatu. Inor atzean geratu gabe. Wifi publikoa ere bada pauso bat gehiago".

**Zuntz optikoa alde zaharrean**

Internetekin lotuta, alde zaharrean zuntz optikoa jartzeko eskaerei bide emango dieten edo ez galdetu zioten kazetariak, eta Ezkurak adierazi zuen hau "beste proiektu bat" dela eta gaur-gaurkoz ez dutela esku-hartze hori egitea aurreikusten.

## "Josu Arkauz 2020ko azaroan irtetea aurreikusten dugu"

**TXEMA MATANZAS** ABOKATUA

Haizea Ziluaga abokatuarekin hitzaldia egingo du

**X.G.** ARRASATE

Sarek herriko bi preso egoera ikustarazteko lau ekintza antolatu ditu, eta, besteak beste, hitzaldi bat izango da.

**Paroti zein legedi aplikatu zaio?**

3.000 urteko kartzela zigor metatua zuen hainbat delitugatik, baina orduko legediarekin, kondena horiek guztiak 30 urteko kondena bakarrarekin ordezkatzeko ziren. Gero, lortutako erredentzio urteak kentzen ziren, 30 urteko kondentatik. Baina 2006an interpretazio berri bat egin zioten legeari, ikusita hainbeste urteko

kondena zuen preso bat libre geratzetik gertu zegoela. Ordura arte lortutako erredentzioak 30 urteko kondena bakarrari aplikatuta, Parot libre geratu beharko zen 20 urte inguru beteta. Baina hori eragozteko erabaki zuten erredentzioak banan-banan zituen kondena bakoitzagatik aplikatzea, hala, bai edo bai, 30 urteko espetxealdia bete zezan. Hala ere, 2013an Estrasburgok hori legez kanpokotzat jo ostean, bigarren trikimailu bat aplikatu zioten: pertenezia bikoitzarena. ETAko preso guztiek 10 urteko



Txema Matanzas abokatu. T.M.

kondena bat izaten zuten erakundeko kide izateagatik, eta, ordu arteko interpretazioen arabera, ETAko kide ziren euren kondena amaitu arte. Baina irizpidea aldatu zuten, eta erabaki ETAko kide zirela kondena ezarri arte.

Parotek kartzelan ETArekin trukatutako gutun bat aitzakiatzat hartuz, bigarren jarri zioten ETAko kide izateagatik kondena; guztira, 41 urteko espetxealdia egin beharko du.

**Arkaui zein legedi aplikatu diote?**

Frantziako urteak kontatu gabe, 1997an espetxeratu zuten Espainian, eta gehienezko 30 urteko kondena ezarri, 2027ra arte. 2003ra arte, bi kartzela eguneko erredentzio egun bat ematen zitzairen, baina urte hartan sortutako zaintza epaitegi zentralak irizpidea aldatu zuen, eta lan egitea edo ikastea derrigortzat jo erredentzioak lortzeko. 2005etik 2015era ez zuten erredentziorik izan, ez baitzuen lanik egin, ezta ikasi ere. 2015ean lanak egiten hasi zen, eta erredentzioak aplikatuz 2020ko azaroan irtetea aurreikusten dugu.

## Atzeratuta 'Hamaika gara' ekimenaren aurkezpena

Martxoaren 16an, astelehena, Gure Esku-k erreferendumaren aldeko herri ekimena aurkeztu behar zuen Kulturategi areto nagusian, 18:30ean, baina atzeratu egin da ekitaldia. Kulturategi itxita egongo da gaurtik aurrera, eta, horregatik, Herri Ekimenaren Arrasateko aurkezpena atzeratu egin behar izan dute antolatzaileek. Gauzak bere onera bueltatzean data berria helaraziko dutela iragarri dute. "Elkarrekin eta elkarlanean" egin nahi dute, eta, horregatik, sinadura bilketa masiboa egitea da Gure Eskuren nahia, "demokraziaren legezko praktika unibertsala" gauzatzeko eta "burujabe" izateko.


# Martxoaren 8aren bueltan jazotakoak salatu dituzte

Arrasate Mugimendu Feminista barruan Martxoaren 8rako propio sortutako talde batek oharra atara du, besteak beste, zapatu gauean egindako ekintzan jasotako "erasoak" eta adingabeko kide batzuei Ertzaintzak egindako "jarraipena" salatzen

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Oharra Arrasateko Neska\* Gazteak izenpean sinatzen dute eta zapatu gauean taberna taberna egindako ekintzan bizitakoak azaltzen dituzte hasieran. "Ekintza zuzena baliatuz", herriko zortzi tabernatan sartu ziren, aurpegiak estalita eta aurrez adostutako musika bat jarrita, "jai giroan pairatzen dituzten eraso sexistak salatzen". Herri-tar batzuen harrera "beroa" izan zen arren, diote "taberna guztietan erasoak jasan" zituztela. "Taberna guztietan erasoak jasan genituen: irainak, mespretxuak, bultzadak, mehatxuak, ukituak... Argi geratu zaigu espazioa botere eta indarrez hartzen dugunean deserotasuna sortzen dela pertsona-batez ere, gizon-askorengan".

GOIENAK ekintza ikusi zuten hiru lagun iritziak jaso ditu. "Harriduraz hartu nuen ekintza hasieran; musika oso fuerte jarri zutelako, eta jarrera aldarrikatzailearekin sartu zirelako. Agresiboa iruditu zitzaidan lehen kolpean, baina, Martxoaren 8aren testuinguruko ekintza bat zela ondorioztatzean, hobeto ulertu nuen", dio batek. "Tabernara sartu ziren, oihuka, dantzan, eta musikaren laguntzarekin. Euren aldarrikapenak egin zituzten, eta



Arrasateko Neska\* Gazteak taldeak taberna batean jarritako kartela. XABI GOROSTIDI

## Mugimendu Feministaren balorazioa

"M8 jai eta borroka uztartzeko egun zoragarria izan dugu berriz. Gure eskerrik beroena M8 Plataformak antolatutako ekintzetan parte hartu dutenei. Eskerrik asko Arrasateko Neska\* Gazteei, egindako lanagatik. Aldarrikapen eta jai-giroa ilundu zuten gertakarien kritika egin nahi genuke. Ez dugu emakumeen kontrako jazarpenik onartuko, gutako bakoitza erasotzen dutenean denok erasotzen gaituzte. Erakundeek dagokionez, M8-ra gerturatu baziren ere, egunerokotasunean urrun sentitzen ditugu. Beraien konpromiso falta nabarmena sentitzen dugu egiten ditugun aldarrikapen erantzuterakoan, eta beharrezkoa dugun adierazpen askatasunari dagokionez. Bada garaia hitzetatik ekintzetara pasatzeko eta benetako berdintasuna lortzeko neurriak hartzeko".

joan egin ziren", dio bigarrenak. Hirugarrenak dio jendeak "harriduraz" hartu zuela. "Esango nuke jende askok ez zuela ekintza bera ulertu. Jai-giro erdian, halako ekintza batekin topo egiteak –musika altua, oihuak, aurpegi estaliak– harridura sortzen du, eta esango nuke jende askok ez duela mezua harrapatzen".

### Kideei jarraipena

Ekintzaren ostean, Ertzaintzako agente batzuek taldeko kide batzuk "etxeraino" jarraitu zituztela salatu dute. Honela kontatu dute gertatutakoa: "Kontua da tabernetako ekintza bukatzerakoan Ertzaintzaren patruila bat agertu zela. Hauek guri jarraika aritu ziren gatzetxera iritsi arte. Ondoren, gazte batzuk gatzetxetik irteten zirenean euren atzetik hasi eta etxeraino jarraitu zieten. Bi ertzain-auto eta sekreten auto bat izan ziren. Gainera, haien atzetik zebiltzala argi uzteko argiekin enfokatu zituzten pare bat aldiz. Hurrengo goizean portalean zain zituzten eta berriro ere gatzetxeraino jarraitu zituzten. Ondoren, talde osoaren atetik ibili ziren goizean zehar".

Ertzaintzarekin harremanetan jarri da GOIENA, eta hona jaso duen erantzuna: "Larunbat gauean, Deba Urolako ertzainetxeko ertzainak –uniformedunak eta kalez jantzitakoak– debekatutako substantzien kontsumoa prebenitzeko hainbat lan egiten ari ziren Arrasateko zenbait tabernatan zehar; eta egia da orduan konturatu zirela neska gazteen ekintzaz –jai-giroan tabernak hartzen, alegia–, baina ez zitzaie arreta berezirik jarri, agenteak beste lan espezifiko batzuetan ari baitziren. Hurrengo eguneko "jarraipenei" ez diegu inolako sinesgarritasunik ematen".

### Kartelak kentzea

Igandean, Emakumeen Nazioarteko Egunean, herrian zehar jarritako kartel batzuk kendu zizkietela ere salatu dute: "EAJ-PSE-EEren Udal Gobernuak garbitzaileak bidali eta gure aldarrikapenetako batzuk kendu zituzten". Bi kartel izan ziren konkretuki, *Errotik dena aldatzeko* ari gara eta *Ongi-etorri edertasunaren lurraldera* mezuak zituztenak. "Hala ere, kartelak zakarrontzietan aurkitu eta berriro jarri genituen. Ezingo dugu Arrasate feminista eraiki gure aldarrikapenak kaleetatik kentzen badituzte", adierazi dute.

Manifestazioan, Maria Ubarretxenak "gehiegizko protagonismoa" izan zuela uste dute, eta "hipokritizat" jo zuten alkatearen jarrera, "kartelak kentzea agindu eta, aldi berean, "feminismoa lehen lerrotik" aldarrikatzeagatik.

Oharrean aipatutakoei buruz galdetuta, zera adierazi dute Udal Gobernutik: "Arrasateko Udalak herritarrei eskertu nahi die Martxoaren 8aren bueltan, Emakumeen Nazioarteko Eguna, antolatutako ekitaldietan izan duten parte-hartzea, eta emakume taldeei zein eragile ezberdinei, antolakuntzan egindako lana. Ekintza andana antolatu zen eta giro aparta nagusitu. Udal Gobernuak Martxoaren 8ko eguna babestu zuen bere osotasunean, eta antolatu ziren ekintza ezberdinetan parte hartu, beste hainbat erakunde eta elkartetako kide ezberdinekin batera. Beste behin, eskertu herritarren atxikimendua emakumeen eskubideen alde, eta aldarrikatu berdintasuna, arrasatear guztiok lankidetzan, egikaritu behar dugula; Arrasate berdinzale bat baitugu, guztiok, helburu".

## Ludoteka ibiltariaren bigarren geldialdia, San Andres auzoan

Goiena komunitatea  
Txatxilipurdi / ARRASATE

Lehen asteburuan eguraldi euritsua izan zen arren, taldetxoak bildu zen Bedoñabeko herri eskolako patioan. Datorren astebururako proposamenak ere bota zituzten: pizza egitea eta parkourra. Hitzordua, 11:00etan: eguraldi ona bada, Arimazubiri; txarra bada, Bedoñaben.

## 'Nik sinisten dizut' liburuaren aurkezpena, atzeratuta

Martitzenean, *Nik sinisten dizut* liburuaren egileak hitzaldia eskaini behar zuen Kulturatego areto nagusian, 18:30ean. Bortxaketaren kultura eta sanferminetako talde bortxaketa hartu behar zituen hizpide Samara Veltel idazleak baina udalak hartutako neurriei jarraituz, Kulturatego itxita egongo da eta ezin izango da aurkezpena egin.

## Quebecoko delegazio bat Arrasaten izan da oraingo astean

Martxoaren 10ean eta 11n izan dira Arrasaten, eta kooperatibismoaren historia, eredu, berrikuntza, talentua, prestakuntza, formakuntza eta langileria izan dituzte hizpide. Lau lagun egon dira; besteak beste, Quebecoko kooperatiben kontseiluko presidentea eta eskualde garapenerako kooperatibako zuzendaria izan dira bertan.

**eya**  
**ALTZARIAK**

SUKALDERAKO ETA ETXERAKO ALTZARIAK  
DEKORAZIOA ETA OSAGARRIAK

**DESKONTU HANDIAK**  
**ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK!**

Ignacio Zuloaga 4 - Arrasate

Te.: 943 79 05 07

[www.eyaaltzariak.com](http://www.eyaaltzariak.com)



Xabier Bengoa eta Jose Angel Barrutiabengoa, Laso-ren bobina banarekin esku artean. XABIER GOROSTIDI

# Lasok grabatu zituen "altxorrek", pelikula bat

Arrasate Zientzia Elkarteak arrasatear askoren oroitzapenak biziberrituko ditu; zehaztasunez biziberritu ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako Arrasateri buruzko bideo hunkigarri batzuk batu baitituzte, ordubeteko pelikula batean

## Xabi Gorostidi ARRASATE

50 urtetik gorako arrasatear askok argazki euskarrian dituzte haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapenak. Orduan, apenas zegoen bideoarik, baina zeuden apur horiek Arrasate Zientzia Elkartearen eskuetara heldu dira, eta Iban Del Campo zinegilearen laguntzarekin ordubeteko pelikula batean batu dituzte.

## Lasoren altxorra

Pedro Sologaitza Laso argazkilaria eta argazkilaritza-zale zen Jose Mari Lasagabasterrek Laso argazki denda ireki zuten Arrasaten—Laso izena bien abizenen batura-joko bat da—. Hasieran, Ferrerías kalean izan zuten denda, eta ostean, Grupo San Juanen. "Argazki pila egiten zituen Lasok: nortasun agirietarako, tramite administratiβοetarako, askotariko ekintzetakoak... Argazkiez gain, bideoak ere egiten zituen, Super 8 argazki kamera bereziarekin", azaldu du AZEko Jose Angel Barrutiabengoa.

Hala, duela gutxi, Pedro Sologaitzaoren lobetako bat AZEkoekin harremanetan jarri zen. 60ko eta 70eko hamarkadetan egindako grabaketa mordoa aurkitu zituen etxean, eta horrekin zer-bait polita egin zitekeela pentsatu zuen. "40 bat bideo bobina ekarri zizkigun, gutxi gorabehera 40 orduko materialarekin. Herriko zein jai edo ekintza aurkitu dituzten galdetuta, zerrrenda luze batekin erantzun du AZEko Xabier Bengoa: "Ikurri-na udaletxean jarri zutenekoa, Seber Altube plazaren inaugurazioa, Santa Marinako ikastetxearen inaugurazioa, erretiratuiei egin zitzaizkien lehen omenaldia, 1964ko Euskal Jaia, danborradak, ziklo-kros lasterketa

**AZKEN UKITUAK EMATEN ARI DIRA ETA BIHAR, ZAPATUA, TRAILERRA PLAZARATUKO DUTE**

Santa Barbaran, sanjuanak... baita Arzallusek Gurea zineman emandako mitin bat ere".

## Batu eta forma eman

40 orduko bideo horietatik garbiketa egin eta hiru orduko aukeraketa egin zuten, eta ostean, aliatu bat aurkitu zuten. "Iban del Campo zinegilearengana jo genuen, eta bere laguntzarekin ordubeteko filma egingo dugu. Altxor bat genuela esan zigun bideoak ikusi bezain pronto. Ostean, *Ahotsak.eus*-eko audio batzuk eta Goienak Pedro Sologaitzoiari egindako elkarrizketa bat ere gehitu dizkio Del Campok".

Ekainaren 10ean egingo dute estreinaldia, Kulturaten—ziur asko, emanaldi bat baino gehiago egin beharko dute—, eta bihar, zapatua, Pedro Sologaitza jaiotzeko 100. urteurrenean, pelikularen aurrerapen-bideoa argitaratuko dute, Juan Arzamendik konposatutako *Gora Arrasate* abestiarekin.

## NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

## Arrasateko Udala eta hondakinak

Behin, baso bide batean konponketa lan batzuk egiten nabilela, Arrasateko Udalaren jakinarazpen bat jaso nuen, baimenik gabeko betelan bat egiten ari nintzela eta ingurumen ziurtagiri bat behar nuela betelan hori baimentzeko. Eta, hala, Gasteizera jo nuen, Ingurumen Sailera, ahal nuen dokumentazio egokienarekin: argazkiak, betelanerako materialen deskripzioa... Eta han harrituta geratu ziren: Arrasateko Udalari dagokio dokumentazio hau bidaltzea eta bide bateko zuloak tapatzeko ez da eskatzen horrelako zertifikaziorik, eta, gainera, Arrasaten beste espediente bat ireki dugu Mietzan baimenik gabeko zabortege bat egin dutelako. Azalpen bat eskatu diogu Udalari, baina ez dugu erantzunik jaso.

Geroago, Gasteizera deitu nuen jakiteko ea zer gertatu zen Mietzako zabortege klandestino harekin. Eta erantzuna izan zen Udalak ez zuela eskatutako dokumentazioa bidali eta dagoeneko kasua artxibatuta zeukatela.

Jarrera hori babestu zuten indar politikoez Zaldibarkoa salatu dute...

## OHARRAK

### Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean egingo dute, 12:30ean, Herriko Plazan.

### 1940koen kintada

1940an jaiotako emakumeek bazkaria egingo dute martxoaren 28an. 13:00etan, mezara joango dira, parrokia, eta gero, bazkaria egingo dute Buenuenan. Izen ematea tabernan egin beharko da eta 20 euro aurreratuko beharko dira.

### San Felipekoen batzar orokorra

Domekarako, San Felipe Elkarlaguntzak bazkideei zuzendutako ohiko batzar orokorra du deituta, 12:00etarako, Kulturaten, baina, gaur-gaurkoz, Kulturate itxita dago.

### Soinu eta argi teknikari ikastaroa, bihar, gaztetxean

Arrasateko gaztetxeak ekimen berezi bat jarri du martxan, gaur egun duten behar bat ase ahal izateko. Gaztetxean kontzertu ugari egiten dira, eta horiek ez lirakeke posible izango soinu eta argi teknikaririk gabe. Hala, kontzertuak antolatzearen zama ahalik eta pertsona gehien artean banatzeko, debaldeko soinu eta argi teknikari ikastaroa antolatu dute zapatu goizerako.

"Gaztetxe kontzertuak aurrera ateratzeko behar-beharrezkoak dira soinu eta argi teknikariak. Horregatik, beharra ikusi dugu ikastaro hau antolatzeko", azaldu dute antolatzaileek. Hitzordua 10:30ean da, gaztetxean.

### Autodefentsa feminista ikastaroak; orain, astero

Arrasateko Borroka Arte Eskolak (ABAE) beste urrats bat egingo du emakumeak autodefentsan ahalduntze aldera, eta asteroko maiztasunez eskainiko dituzte doako klaseak. Udalaren laguntza izango dute eta eskolak Etxaluze eraikineko azken solairuan egingo dituzte.

Apiriletik hasita, asteazkenero batzartuko dira, 17:00etatik 18:00etara bitartean, eta, hain zuzen ere, ekain erdialde-arte jardungo dute. Adingabekoez ere har dezakete parte bertan, betiere, tutore baten laguntzarekin. Izena emateko, deitu 600 37 18 96 (Julio) edo 669 66 33 66 (Jose) telefono zenbakietara.



Dorletako Ama txirrindulari eskolako taldeen aurkezpena, domeka goizean, Seber Altube plazan. GOIENA

## Txirrindulariek "gogotsu" hasi dute denboraldia

Dorleta Ama txirrindulari eskolak domeka goizean egin zuen taldeen aurkezpena Seber Altube plazan eta maila eskolarrean arituko diren JMAko benjamin, alebin eta infantil taldeak eta kadeteen kategorian izango den Eroski taldea batu ziren

### Amaia Aranegi ARRASATE

Azken urteetan gora egin du Dorleta Ama txirrindulari eskolako txirrindulari kopuruak, eta aurten, 36 txirrindulari izango dira errepidean, kategorian ezberdinetan.

Kadete mailako taldea sendotu egin da, eta aurten, sei txirrindulari izango dira Eroski taldean: "Gehienak hainbat urte taldean ari direnak dira, baina badira taldekide berriak ere", adierazi zuen Dorletako Ama elkarteko lehendakari Ander Elortondok. Era berean, entrenatzaile berria aurkeztu zuten: Iker Eskibel eskoriatzarra, eskarmentu handiko txirrindularia, afizionatueta ari dena. Gainerako txirrindulariak maila eskolarrean arituko dira: Dorletako Aman hainbat urtez entrenatzaile lanetan diharduen Aitor Juaristirekin infantil kategorioakoak eta Mikel Iribekantosek, berriz, benjaminak eta alebinak entrenatuko ditu.

### Denboraldiko lasterketak

Dagoeneko "gogotsu" hasi dute denboraldia. Kadeteek, esaterako, zapatuan Beasaingo laster-

ketan parte hartu zuten estreinaldian, eta, eguraldi kaxkarra izan bazuten ere, gustura ziren egindako lasterketarekin. Dorletako Amak Debagoienean antolatuko dituen lasterketen berri ere eman zuten: Gipuzkoa mendebaldeko eskolarren lasterketa Arrasaten maiatzaren 23an eta Kadeteen lasterketa Arrasaten uztailaren 5ean besteak beste.

### Aurtengo erronkak

Harrobia sendotzea da Dorletako Ama TX Eskolaren erronketako bat 2020ari begira, "ematen dituen aukerak ezagutzera eman eta txirrindularitza gogoko duten neska-mutilak kirol hau praktikatzera animatzeko". Bestetik, elkarlana ere sustatu gura dute: "Batetik, barruko egitura sendotu kolaboratzaileen sarea handituz, eta, bestetik, gainerako klubekin eta erakundeekin harremanak sakonduz". Eta berdintasuna eta integrazioa bultzatzea ere erronken artean dute: "Debagoieneko neska-mutilo guztiek txirrindularitza praktikatzeko aukera berak izan ditzatela".

Gora  
beherak

Zertan ari da  
Mikel laboa  
igogailu  
batean?

Martxoaren 20tik aurrera 'Gorabeherak' websaila 'Ttap' aldizkari berrituan ikusgai!

**ttap**  
Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

**DOAN**  
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu  
astero zure mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: [ttap.eus](http://ttap.eus)

**DESKARGATU**  
Play Store-n

**DESKARGATU**  
APP Store-n





Patxo Telleria, ezkerrean, *Simplicissimus kabaret* antzezlaneko aktoreekin; azaroan aurkeztu zuten antzezlan. GUILLERMO CASAS

## "Ideologia eta jarrera batzuek bizirik dira"

Tartean antzerki taldearen eskutik iristekoa zen domekan 'Simplicissimus kabaret' lana Amaia antzokira. Baieztapen ofizialaren zain, Udalak antolatutako kultura hitzorduak bertan behera geratuko dira

**X.U / A. IRRATIA** ARRASATE

*Simplicissimus* XVII. mendeko Alemaniako nobela pikareskoaren izenburua da, baina domekan Amaia antzokian plazaratu behar zuten lana –kultura ekitaldiak bertan behera utzi ditu Udalak– mende batzuk aurrerago kokatzen da. Izan ere, kabaretean II. Mundu Gerraren bueltan hiru komiko alemaniarren gorabeherak kontatzen dituzte: Fritz Grunbaum-en, Kurt Geron-en eta Werner Fink-en bizipenak, hain zuzen ere.

Eta gorabehera horiek lotura estua izango dute nazien terrorearekin eta kontzentrazio-esparruekin: "Izan ere, sasoi hartan komikoei aurpegiratzen zieten ezkertiarak zirela, juduak... Alegia, kabaretak pertsona *gaiztoek* egiten zituztela, eta aitzakia horrekin asko eta asko gas hilgarriarekin erail zituzten. Hala, sasoi hartako hainbat pertsonaia aukeratu ditugu, ez bereziki euren istorio pertsonala interesatzen zaigu-

lako, baina bai orduko sinbolo izan zirelako, umorea egiterakoan euren bizitza arriskuan jartzen zutelako", dio Telleriak.

Hain zuzen, komiko haiek kontzentrazio-esparruetan komedia egiten jarraitu zuten: "Berlingo kabaretetako istorioak irakurtzen hasi nintzenen hasi nintzen lan hau idazten. Kosta egiten zitzaidan imajinatzea komiko haiek lanean, non eta kontzentrazio-esparruetan, eurak moduan atxilotuta zeudenei umorea aldatzeko lanean. Zelako ausardia zuten pertsona haiek".

Eta garai ilun haiek ez ei daude horren lurperatuta. "Historia zirkularra dela ikusten gabilta, badirudi orduko akatsak gain-

**"ENTRETENITZEAREKIN BATERA HAUSNARKETARAKO TARTEA ERE HARTUKO DU IKUSLEAK"**

ditu ditugula eta ikasgaia ondo ikasi dugula, baina errealitateak erakusten digu berez lurperatuta egon beharko zuketena jarrera eta ideologia batzuek bizirik dirautela", dio.

Eta ez hori bakarrik: "Garbi dago gaur egungo komikoekin ez dela sasoi hartan naziek jotzen zuten moduan jokatu, baina egun, artista askok arazo handiak izan dituzte umorea egiteko orduan".

**"Irakurketa bikoitza"**

Hala, obraren gaineko irakurketa bikoitza egiten du egileak: "Batetik, helburua da ikuslea entretenitzea eta umorearen eta musikaren bitartez ikuskizun ona eskaintzea. Baina horrekin batera plazaratuko dugun gaiaren bueltan hausnarketa ere egingo du ikusleak. Hala, kabaretoko espirtuarekin fidelak izaten saiatu gara". Publikoak, baina, oraingoz itxaron egin beharko du antzezlan hori Arrasaten ikusteko.



Maialen Madariaga, Ainara Kortabarria, Iraitz Agirre eta Amaia Pavon. AIN\_1

## "Entseetzen hasi eta berehala izan dugu oso sentsazio ona"

Bertan behera geratu da Arrasateko AIN\_1 taldeak Arrasateko gaztetxean bihar jo behar zuen kontzertua

**X.U. ARRASATE**

Ain\_1 musika taldeak zapatuan gaztetxean eman beharreko kontzertua bertan behera uztea erabaki zuten egunean, pena handiz. Izan ere, arrasatearrek martxoaren 7an Bergaran sei urteren ostean lehen emanaldia egin eta gero bazuten etxeko plaza ezagunean jotzeko gogo: "Gaztetxea guk aukeratutako lekua zen, bertan eroso sentitzen garelako".

**Sei urte elkarrekin jo barik**

Sei urte ez dira alferrik pasatzen. 2014 amaieran eskaini zuen Eskoriatzan AIN\_1 talde arrasatearrak azken emanaldia, eta orduetik taldekide gehienek instrumentuak armairuan izan dituzte gordeta, "hautsa hartzen". Horregatik, harrituta geratu dira hil honetan eskaini behar zituzten bi emanaldiak prestatzeko entseetzen hasi direnean bizi izan-

dakoa. "Zer den memoria auditiboa, eta gure artean horren ondo ezagutzea...", dio Amaia Pavonek. "Izan ere, lehenengo entsegutik oso sentsazio onak izan ditugu. Segituan hasi ginen abestiak gogora ekartzen, eurekin gozatzen".

**Seminarixoa ondo gozatuta**

Hala, Bergarako Udaletik jasotako proposamen bat onartuta batu da taldea: "Martxoaren 8aren bueltan Bergarako Seminarixoa emanaldia egiteko eskatu ziguten, eta onartu egin genuen. Berez, errespetu handia ematen zigun proposamenak, hainbat urtez kontzerturik eskaini barik egoitearekin batera gu ez gaudelako ohituta halako areto handi eta formatuetara. Gureak gehiago izan dira tabernetako kontzertuak. Baina soinu probak egiten hasiarekin batera konturatu ginen izugarri gozatu behar genuela, ederto entzuten zelako dena".

**Serge abeslariaren kontzertua gaur Taupa tabernan**

Zortzi diskoren ondoren, Eraso! eta Osso musika taldeetako Sergio Ruiz G-Txabarri (Serge) abeslari eta musikariak bakar-kako lehen proiektua kaleratu du modu intimista eta akustikoan. Eta azken lan hori erakutsiko du gaur, egubakoitza, Arrasateko Taupa tabernan eskainiko duen kontzertuan (22:00etan).

**Bertan behera Carolina Ruedaren emanaldia**

Gaur, hilak 13, *Ahoz aho 2020* ekimenaren barruan, Carolina Rueda ipuin kontalariak Kulturaren egin beharreko emanaldia bertan behera geratu da. Kolonbiarrak –saioa gazteleraz izan behar zen– hiru hamarkada baino gehiago daramatza taula gainean, "heriotzari tranpak egiteko helburuarekin ipuinak kontatzen".

# Eskuen higienizatzailea



**Ibai-arte**  
dendetan bakarrik



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, MERKATUTZA  
ETA KONTSUMU SAIA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO



Erakusketa ikusten, ireki zuten egunean, martitzenean. JULEN IRIONDO

# Hilekoari lotzen zaion "mezu negatiboari" buelta, begirada moretik

Domekara arte dago ikusgai Sastiñan –18:00etatik 20:00etara, gaur, eta 12:00etatik 14:00etara, asteburuan– Ainhoa Aldazabal eibartarraren –Irakurle Klub Feministako dinamizatzaile ere badena– ikerketa eta bilketa lanaren emaitza den erakusketa

## J.I. ARAMAIO

"Ikerketa lan bat dago oinarrian, ikusteko nola irudikatu den hilekoaren gaia artean. Hortik abiatuta, artelan batzuk erosi nituen, beste batzuk eskatu, denak batu, eta ikusgai jarri.

Tabu izan ohi dena ikusaraztea da helburua, eta hilekoari lotzen zaion mezu negatiboari buelta ematea, begirada feminista batetik", dio Aldazabalek.

Dimentsio kolektiboaz gain bizipen oso pertsonalak dituen

gaia izatera, era askotara irudikatzen eta iradokitzen da hilekoa erakusketan.

Eta hileko ezak ere badu bere lekua: "Abortua, haurdunaldia, menopausia..."; dena, domekako bisita gidatuan, 12:00etan.

## Mota askotako obrak



**Txakur Gorria** Emakumez osatutako sormen taldearen ekarpena du, besteak beste, erakusketak. Askotariko lanak daude erakusketan, batzuk esplizituak eta beste batzuk iradokitzaileagoak.



**Edurne Kortabarria** Hileko-kopak irudikatu ditu aramaioarrak bere lanean. Bertako zein nazioarteko artisten "kalitate handiko" obren artean, saiatzen da Ainhoa Aldazabal erakusketa hartzen duen tokiko lagunen bati ere lekua egiten.

## Martxoaren 8arekin, gustura

Emakumeen Eguneko ekintzek izandako erantzunaz eta sortutako giroaz "oso pozik" agertu da talde feminista.

### Falta direnak, bertan behera

*Feminismo beltza*-ri buruzko saioa eta *Carmen y Lola* filma bertan behera geratu dira, koronabirusagatik. Erakusketako bisita mantendu egin dute; talde txikietan egingo dute.



Aurreko domekan, Martxoaren 8an, egindako bilkura. ARAMAIOKO UDALA



# "Titulu garrantzitsuenen artean, hau jarriko nuke"

**AITOR UGARTE** LA SPORTIVA TALDEKO MENDI KORRIKALARIA

Puntako taldean ariko da aurten aramaioarra, eta arduradunak pozik utziko zituen estreinakoan. Espainiako Txapelketan garaile, eta Mundialerako txartela, bideratuta

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Kilometro bertikala zen Jaengoa, eta Ugartek bi minutu eta erdi atera zizkion bere kategoriako bigarrenari.

**Denboraldi berria, talde berria... Aldatzen ez dena emaitzak dira.**

Bai, denboraldiko lehen lasterketa, talde berriarekin, eta emaitza, bai, oso ona, eta oso pozik. **Ze asmorekin iritsi zinen? Espero zenuen horrelako emaitzarik?**

Aurten, oso azkar tokatu da Espainiako Txapelketa, eskiko denboraldiarekin bat egin du, eta lesio batetik ere banentorren; hiru hilabete egin ditut korrika egin gabe, eta aprobetxatu dut bizikletarekin eta eskiekin entrenatzeko, bertikalerako ahalik eta ondoen prestatzeko, eta, egia esan, sentsazio onekin nengibilen, ondo sentitzen nintzen, eta espektatibak eta neure buruari jarritako erronkak bete nituen.

**Ze ezaugarri zituen lasterketak?**

Inoiz egon gabe nengoen inguru hartan. Barikuan iritsi ginen, eta, ibilbidea ikusterakoan, argi zegoen oso bertikala zela. 2,7 kilometroko luzera zuen, eta 950 metro inguruko desnibela. Baina lehenengo 600 metroak lauak, edo apur bat berantz, ziren; beraz, desnibel positibo guztia bi kilometroan zegoen. Oso gogorra. Zoruari dagokionez, lehenengo zatia garbiagoa zen, harri soltea egon arren, lurra... eta bigarren zatian harri handiagoak ziren, leku batzuetan eskuak ere erabili beharra... Paraje ederra da.

**Kontrarioak ezagutzen zenituen? Ze maila zegoen?**

Bai; Espainiako Txapelketara beti etortzen da oso jende ona, eta aurreko urtetik kontrolatuta neukan jendea; asko, gainera, eskitik datoz. Aurkari indartsuenak, behintzat, banituen buruan, eta, erlojuaren kontra, izanda, erreferentziak eta denborak kontrolatu nituen, amaren laguntzarekin, bera ibilbidearen erdian zegoen eta.



Aitor Ugarte, Jaengo lasterketan. ROGER SALANOVA

**"SENTSAZIO ONEKIN NENBILEN, ONDO SENTITZEN NINTZEN, ETA ESPEKTATIBAK BETE EGIN ZIREN"**

**Bastioekin izan zenuen dilema.**

Ibilbidea ezagutu gabe, bastioekin egiteko asmoa nuen, jakinda, gainera, nire entrenamendu guztiak eskiatzen izan direla. Baina, iritsitakoan, jende askok zioen oso tekniko zela, eta bastioekin egiteko nahikoa zikina; batez ere, bigarren zati hura. Baina ibilbidea ikusi nuenean, berehala erabaki nuen bastioekin egitea. Normalean, gainera, bastioekin irtenez gero, amaierara arte eraman behar dira; baina araudia aldatu egin zuten, eta erdian uzteko aukera eman zuten. Baina nik pentsatu nuen goraino eramatea, erditik aurrera ere, bidea tekniko izan arren bazeudelako pala gogorak, bastioiak beharrezko zirenak.

**Eta, azkenean, beste titulu bat palmareserako, eta badira batzuk.**

Garrantzitsuenen artean hau jarriko nuke, zalantza barik,

Munduko Txapelketarekin batera eta iazko Espainiako Txapelketarekin batera.

**Egindako denborak dakarrenagatik ere bai, ezta?**

Bai. Aurten, iaz bezala, helburua da Italian jokatu den Munduko Txapelketara heltzea; lekuak oso mugatuak dira, nire kategorian leku bakarra egongo da, eta hori eskuratuko du bertikaleko denbora eta iraupeneko batuta denbora onena duenak. Beraz, irabazteaz gain, inportantea zen Jaenen beste aurkarietako denboratxo bat ateratzea, eta, egia esan, nahikoa denbora polita egin nuen, eta aukera ematen dit konfiantza handiagoarekin joateko Izabara, ekainean egingo den Camille Extreme lasterketara [iraupeneko Espainiako Txapelketa].

**La Sportivakoak gustura egongo dira: taldera iritsi berri, lehenengo lasterketa, eta garaipena.**

Fitxaketa 2020rako da, mendiko lasterketen denboraldirako. Ni, oso pozik, euren konfiantzagatik. Managerrak esan zidan presiorik gabe irteteko, eta horrela irten nintzen. Eta, emaitzarekin, oso pozik, talde berrian hasteko oso modu polita izan da.



Olaizola eta Beitia -bizkarrez-, elkar besarkatzen. MIKEL ISUSI

## Txapelketa borobildu ezinda geratu da Julen Olaizola

14-22 galdu zuen Zeanuriko Danel Beitiaren kontra, eta ezin izan zion txapela Orozkoko klubari eman

**J.I. ARAMAIO**

Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako finala jokatu zuen aurreko domekan Julen Olaizolak Orozkon, baina Zeanuriko Danel Beitiarentzat izan zen txapela, haren pilotarekin zail egin zitzaion-eta lehiatzea aramaioarrari.

Ligaxkako partiduan 22-9 nagusitu zitzaion Olaizola Beitiari. Finalean, 8-5 irabazten hasi zen Olaizola, baina, orduan, Beitiak pilota bizia atera eta seigarren-zazpigarren koadrotik boleaz edo hamargarrenetik botez jardutera behartu zuen

aramaioarra, eta bizkaitarrak eskuratu zuen txapela, 14-22 irabazita.

**Udaberrikoa, bertan behera**

Udaberriko pilota txapelketako partidua jokatzekoak ziren bihar, zapatua, Aramaioko frontoian, baina bertan behera geratu dira, koronabirusagatik, "osasun publikoa babesteko eta koronabirusaren hedatzea saihesteko salbuespeneko neurriak bete daitezzen", erakundeetatik jaso eta Aramaioko Pelota Elkartekoek zabaldu duten oharren arabera.



IMANOL SORIANO

## Etena, Bertso Kuadrilla Artekoan

Kuadrilla Artekoaren finalerdia jokatu zen zapatuan udaletxean, eta Izenbakuek lortu zuten finalerako txartela, Zalduondoko taldearen kontra. Aramaioko beste taldeak, Konde Basoko Iluek, bihar zuten euren finalerdia, Gasteizko Errexalaren kontra, baina bai hura eta bai finala atzeratu egin dituzte, koronabirusa dela-eta.

# Plan orokorrari hasiera eman dio udalbatzak

Aretxabaleako Udala hasi da hiri-antolamenduko plan orokorra (HAPO) lantzen; orain, hainbat fase zehaztuko dituzte eta herritarren partaidetza "garrantzitsua" izango da. Agintaldi bukaerarako "behin-behinean behintzat" onartuta egotea gura dute

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Eguaztenean, martxoaren 11n, egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak HAPO-ri hasiera ematea, baita herritarren partaidetza programari ere. Era berean, Gipuzkoako Senideak-ek onartutako mozioa ere aho batez onartu zuten. Eta apirilaren 5ean hauteskunde-mahaian egongo diren herritarrek aukeratu zituzten.

**Fase ezberdinak**

Hiri-antolamenduko plan orokorraren lanketa egitekoen artean zuen Udalak. "Aurreko agintaldian ekin gura genion lanketa honi, eta egia da oso atzeratuta gabiltzala. Arkitektoaren kontratazio prozesua ere uste baino gehiago luzatu da; ea, bada, hasten garen! Espero dugu agintaldi honen bukaerarako behin-behineko onarpena, behintzat, ematea", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak. Martxoaren 30erako lanean izango dela arkitekto hori aurreratu zuen.

Plan orokorra lantzearen ardura EH Bilduko Ion Albizuk izango du. Herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua izango dela aipatu zuen hark osoko bilkuran. "Herritarren iritzia jasotzen dela bermatzea gure ardura da. Eta horretarako, osoko bilkuran egindako planteamendu orokorrean erreminta ezberdinak ikusten ditugu; batetik, herritarrek gonbidatuko ditugu parte hartzera eta horretarako fase ezberdinak izango dira. Baina, bestetik, gu geu ere joango gara herritarrengana galdetzerara, funtsezkoa delako halakoetan parte hartzen ez duten horien iritzia ere". Herritarrek eroso senti daitezen lan egingo dutela gaineratu zuen.

Maiatz aldera esleituko dituzte parte-hartze prozesuaren gidaritza eta beste arlo tekniko batzuk. Partaidetza prozesua udazkenean, urri inguruan,



Udalbatzako kideak, eguaztenean egindako ohiko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

## "HERRITARREN IRITZIA JASOTZEN DELA BERMATUKO DUGU HAPO GARATZERAKOAN"

abiatuko dutela aurreratu zuen: "Herriaren diagnostikoa eginez hasiko gara. Hainbat herritarrek diote askotan parte hartu izan dutela halako prozesuetan eta horiei esan gura diet ez garelako hutsetik abiatuko, orain arte egindakoa ere kontuan hartuko dugula, lana emankorra izan dadin". Sektoreka lan egiteko asmoa ere badutela aurreratu zuen: umeekin, adinekoekin, emakumeekin, auzoetan...

**Partaidetza prozesua udazkenean**

Plan orokorrak aretxabaletarren bizitzan eragin zuzena duela gogorarazi zuen, eta horregatik hain zuzen dela garrantzitsua herritarren iritzia: "Herriko egitura definituko da eta hor sartzeko dira: mugikortasun elementuak, etxeak eraiki behar diren edo ez eta non, kirol ekipamenduak eta bestelakoak non

egin... Ez bakarrik kalean, baserri auzoetan ere arautuko dira elementu batzuk: lurren erabilera, baserrietan zenbat bizileku egin daitezkeen... Eta kaleko etxeetan ere eragingo du; izan ere, erabakiko dira balkoi bat itxi daitezkeen edo ez, etxe baten garaiera...". Halako erabaki guztiak hartuko direla HAPO garatzerakoan gogorarazi zuen: "Orain geratuko da definituta hurrengo 10 edo 20 urteetarako plangintza; hortaz, garrantzitsua da parte-hartzea".

**Zaharren egoitzetako gatazka**

Gipuzkoako Senideak taldeak Udalera bideratutako mozioa ere mahai gainean izan zuten osoko bilkuran. "Eskatzen dutena da duintasuna bermatu behar dela nagusien zaintzan, eta hori une honetan ez da hala, bereziki lan baldintza prekarioak dituztelako langileek egoitzetan", zioen Albizuk. Udal Gobernuak adierazi zuen gatazka baten aurrean "alde guztiak hartu behar direla kontuan eta sindikatuak ez dituztela aipatu eskaera horretan". Dena den, aho batez onartu zuten eta konpromisoa hartu Aldundira bideratzeko eskaera.



Herritar bat Durana kalean dagoen denda baten aurrean. M.A.

## Euskararen erabilera indartu gura dute merkatariekin batera

Udalaren ekimena da eta Loramendirekin lankidetzan egingo du, Elhuyar Aholkularitza enpresak gidatuta

**M.A.** ARETXABALETA

Herriaren euskararen erabilera handitzeko asmoarekin beste pauso bat eman gura du Udalak, eta, horretarako, merkatariegan eta ostalariengan jo du. Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen egoera zein den jakitea da asmoa. "Bezeroekin zelako harremana duten ezagutuko dugu, baita egoitzan zein hizkuntza darabilten ere; idatzizko kontuetan, adibidez", azaldu du Euskara zinegotzi Koldo Zubillagak. Eta behin horren jakitun, neurri zehatzak hartzen hasiko dira.

Proiektua Udalak jarri du abian, Loramendi elkartearekin lankidetzan, eta Elhuyar Aholkularitza gidatuko du. "Kudeaketaren eta finantzaketaren ardura du Udalak. Asmoa da ondorioetatik abiatuta lan egitea, eta euskara elkarteak zeresan handia izango du", dio Loramendiko teknikari Eñaut Zubizarretak.

Egoera zein den jakiteko, inkesta pasatu diete, bete dezaten, eta behin emaitzak jasotakoan egingo dute diagnosis. "Bi-hiru urterako plana diseinatuko da gero, euskalduntzen laguntzeko", dio Zubillagak.

## GORA ETA BEHERA



I.B.

## Segurtasuna hobetzen zebra-bideetan

Oinezkoen segurtasuna hobetzeko azken asteotan hainbat kaletan egindako lanak txalotu gura izan ditu herritar batek; zebra-bide askoren inguruan piboteak jarri dituzte.



# Zerbitzu psikosoziala berrikuntzekin dator

Prebentzioan eragiteko eta eremu komunitarioan jarduteko helburuarekin, Udalak haur eta nerabeei eta haien familiei orientazioa eta laguntza eskaintzen dien esku-hartze sozioedukativo eta psikosoziala egiteko zerbitzua indartu du

**Imanol Beloki** ARETXABAETA

Esku-hartze sozioedukativo eta psikosozialaren zerbitzua eremu komunitarioa zabaldu du Aretxabaletako Udalak. Eguaztenean, kultura bulegoan, egin zuten prentsaurrekoa, eta bertan, Mirari Aiastrui eta Bego Arenaza Gizarte langileak, Karmele Uribarri Gizartegintzako batzordeburua eta Demelsa Gomez zerbitzuaren koordinatzailea batu ziren.

Aurkezpenean adierazi zuten, familiekin eta adingabeekin ez ezik, programak lehen aldiz helduei ere eskainiko die laguntza; baita herritar guztiei zuzendutako aholkularitza eta orientazio psikologikorako zerbitzuak, eta prebentzio eta informazio programak.

## Zerbitzua indartu egin dute

Prebentzioan eragiteko eta eremu komunitarioan jarduteko helburuarekin, Aretxabaletako Udalak esku-hartze sozioedukativo eta psikosoziala egiteko zerbitzua indartu du, haur eta nerabeei eta haien familiei orientazioa eta laguntza eskaintzen diena. Urtarriletik hona, Lorratz Elkarteko bi familia hezitzailek, terapeuta batek eta koordinatzaile tekniko batek osatzen dute programa zuzentzen



Mirari Aiastrui, Bego Arenaza, Karmele Uribarri eta Demelsa Gomez aurkezpenean. I.B.

duen taldea, Udaleko Gizarte Zerbitzuen gainbegiratze eta koordinaziopean.

Demelsa Gomez Lorrak Elkarteko koordinatzaileak adierazi zuen aurretik datorren egitasmoa izan arren berrikuntzak dituztela: "Bazterkeria egoeran dauden helduei dago zuzenduta eta herriko eragile guztiei, komunitateko zerbitzu eta baliabide normalizatuak. Hala, zerbitzuak aukera ematen du Gizarte Zerbitzuetatik detektatzen diren beharrak modu integralagoan erantzuna emateko".

"Osasun zentroarekin, ikastetxeekin, kale hezitzaileekin, gaztelekuarekin, ludotekarekin... sarean lan egitea da kontua, udalerrian dauden zerbitzu guztien artean indarrak batu eta sinergiak sortzeko", adierazi zuen Uribarrik.

## Bulegoa Iralabarri plazan

Zerbitzuak Iralabarri plazako 13. zenbakian du bulegoa, eta asteleheneetik eguenera martxan dago, 09:30etik 12:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Egubakoitzetan, berriz, arratsaldean.

## M8-ko ekitaldi jendetsuez gain, zenbait hitzordu egiteke

'Fabricando mujeres' filmaren proiektzioa eta 'Aitatasun arduratsura bidean' izeneko ikastaroa egingo dira

**I.B.** ARETXABAETA

Martxoaren 8an, ekitaldi jendetsuak izan ziren Aretxabaletan. Goizean, Aresko martxa izan zen, Eskoriatzan hasi eta Aretxabaletan amaitu zena, eta aurtengo omendua Garazi Estebez txirridularia izan da. Horrekin batera, bazkaltzen, esaterako, ia 50 lagun elkartu ziren mojen komentuan, eta iluntzean, *Antolatu indarrak eta batu borroka feministara* lelopean egindako manifestazioan jendetza izan zen.



M8-ko manifestazioa. IMANOL SORIANO

## Dokumentala eta hitzaldia

Emakumeen Nazioarteko Eguna-ren bueltako ekitaldiekin jarraituz, Berdintasun Sailak antolatuta, martxoaren 17an, *Fabricando mujeres* izeneko dokumentala proiektatuko da, Arkupen, 19:00etan. SETEM Hego Haizeak egindako ikus-entzunezkoa ikusi eta gero solasaldia izango da.

Horrekin batera, martxoaren 28an, *Aitatasun arduratsura bidean* izeneko ikastaroa izango da Kukumiku elkartearen. Gizon Eki-menako kide Iñaki Kasaresek bideratuko du, eta ateak edonondako izango dira zabalik -ordua zehazteko dago-.

## Hibai Gain elkarteko bertso afaria atzeratu egin dute

Gaur, egubakoitzean egitekoa zen, Lekaixoka bertso eskolako antolatuta -Loramendi elkartearen eta Aretxabaletako Udalaren laguntzarekin-, bertso afaria Hibai Gain elkartearen, 21:00etan. Nerea Elustondo eta Nerea Ibarzabal bertsolariak izan behar ziren afaria girotzen, eta 25 lagunek zeukatzen erositako afarirako txartelak. "Aste hone-

tako ekintzak bertan behera geratu dira Koronabirusa delata, eta afarirako txartela erositako zeukatenekin, banan-banan jarriko gara harremanetan, hurrengo baterako txartela gorde edo dirua bueltatzea nahi duten galdetzeko", adierazi du Loramendi Elkarteko Eñaut Zubizarretak. Horrekin batera, gaineratu du, hilaren 25era arte, ludoteka, Gazte Zoro eta hizkuntza errefortzua itxita egongo direla beste adierazpenik ez badago behintzat.

**Durana**  
Hartz Klinika

<b>Odontologia estetikoa</b>	<b>Ortodontzia</b>
<b>Endodontzia</b>	<b>PADI zerbitzua</b>
<b>Inplantologia</b>	<b>Hortz protesiak</b>

Asteleheneetik ostegunera: 08:30-20:00  
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55  
[www.duranahortzklinika.eus](http://www.duranahortzklinika.eus)

# "Herriaren alde lan egiteko gogoarekin nator"

**AINARA MUGA ZURRIARAIN** UDA KIROL ELKARTEKO KUDEATZAILEA  
Ainara Muga Zurriaran Bergaran bizi den lasartearra da UDA Kirol Elkarteko kudeatzaile berria. Ilusioz eta gogo handiz hasi du erronka Mugak

**Narua Urien Berrio** ARETXABALETA

Ainara Muga lasartearra da jaiotzez, Oñatin Enpresagintza ikasitakoa, eta Bergaran bizi da duela zortzi urte. Alor profesionalari dagokionez, UDAn hasi aurreko ibilbidean bi lan mota nabarmentzen ditu: aholkularitza lana eta osasunarekin lotutako enpresa txiki baten zuzendaritza lana. Otsailean hasi zen UDA Kirol Elkarteko kudeatzaile lanetan.

**Zelako harrera izan duzu?**

Eroso sentiarazi naute, oso gertuko jendea da UDAKoa eta iruditzen zait balio konpartitu asko ditugula. Horrek elkarren arteko tratua eta lana asko errazten du.

**UDA ezagutzen zenuen aurretik?**

UDA ezagutzen nuen, bai. Baina entzutez bakarrik, ez nuen gertutik ezagutzeko aukerarik izan orain arte. Lehen inpresioa oso ona izan da. Orain arte ezagutzeko aukera izan dudana pertsonetako bakoitzak ilusio pila bat, herri baten alde lan egiteko gogo eta konpromiso handia eta orokorrean pertsonetikiko errespetu maila oso altua erakutsi dit. Eta hori gustuko dut, indarra eta motibazioa ematen dit.

**Zeintzuk dira zure eginbeharrak UDA Kirol Elkartean?**

Nire eginbeharrak UDako egunerokotasunari lotutako lanekin erlazioatuak daude, batetik, eta, bestetik, UDAn antolatzen dituen zein bere antolakuntzan parte hartzen duen ekintza horien guztien kudeaketarekin. Beno, egia esan, ekintza hauek ere dagoeneko UDaren jardura arrunt bihurtu dira, UDaren izaeraren parte dira eta UDaren balioei estuki lotuta daude. UDA lanketa handia egiten ari da bere egitura sendotze aldera, bai kirol alorrean, bai aurrera eramaten dituen ekintzen alorrean, eta baita gestio alorrean; eta nire inkompletzioa sendotze prozesu horretan kokatuko nuke.



Ainara Muga Zurriarain, UDA Kirol Elkarteko kudeatzaile. A.M.Z.

## "KONPROMISO HANDIKO POSTUA DELA BADAKIT, ETA SERIOTASUN OSOZ LAN EGITERA NATOR"

**500 kirolari inguru eta 900 bat bazkide. Horrek beldurtu egin zaitu edo motibatu?**

Beldurtu? Ez, ez, alderantziz. Zuk diozun moduan, motibatu egiten nau hainbeste jende baren dagoela jakiteak. Badakit ez dela arinkeriaz hartu beharreko postu bat, hain zuzen ere, zuk diozun horregatik guztia-gatik. Eta seriotasun osoz lan egiteko asmoz nator hona. Edozelan ere, aipatu dituzun puntu horiek positiboak dira. Herriak nahi ez duen zerbait balitz, kontrako uretan igerian gabiltzaneko sentsazioa izango banu, UDAn bultzatutako ekimenek herriarren aldetik erantzunik ez dutela ikusiko banu... horrek bai beldurtuko nindukeela.

**Kirol talde bat edo beste enpresa bat kudeatzerakoan, ezberdintasun handia nabaritzen duzu?**

Beno, nik orain arte izan dudana esperientziatik hitz egingo dizut. Enpresa baten kudeaketa "hottzagoa" dela esango nuke. Hau da, UDAn egingo dudana duen oihartzuna edota ondorioa komunitate oso bati lotuta dago. Ez da enpresa batetik beste enpresa batera ematen den zerbitzua edota enpresa batetik pertsona batera, baizik eta komunitate oso bati eragiten dion zerbait da, eta, gainera, herri eta eskualde "txikia" izanda, horrek are gertukoago egiten du dena. Komunitate oso batekin lan egiteak behar duen konpromisoa handia dela badakit. Lehen ez dut esan, baina hori ere bada nire erronka nagusietako bat: herria eta eskualdea oso ondo ezagutzea eta, batez ere, bizitzea. **Zure arloari dagokionez, aurtengo helburua zein izango da?**

Beno, nik esango nuke nire erronka bakarra UDA osatzen duten guztien -juntakide, bazkide, entrenatzaile...- eta baita UDaren inguruan kokatzen ditugun erakunde, kolaboratzaile, eta abarren konfiantza irabaztea dela. Haien konfiantza lortzen badut, esan nahi du nire lana ondo egiten ari naizela.



Kurtzebarri eskolako ikasleak, Goiena telebistako platoon. GOIENA

## Kurtzebarri eskola, 'Galdegazte'-n

Aretxabaleako Kurtzebarri eskolako ikasleek Aramaioko abeslari Maria Izaga elkarrizketatu dute *Galdegazte* saioaren seigarren denboraldiaren barruan. Saioa martxoaren 18an ikusi ahal izango da Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

## 'Bizi dantza', atzeratuta

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek *Bizi dantza* ikuskizuna eskaintzeko ziren neska-mutikoei martxoaren 13an Ibarra kiroldegian. "Lurra sortu zen unetik bertatik, jirabiraka dantzari hasi zen bere buaren eta eguzkiaren inguruan. Animaliak ere sortu ziren unetik bertatik, dantzari dabilta lurraren inguruan. Zatoz gurekin dantzara". Testu horrekin animatzen zizuten ikusleak. Atzo jakinarazi zenez, ikuskizuna atzeratu egingo da.

## Kantari saioa telebistan

Kantari saioa Goiena Telebistan egongo da asteburuan. Karaoke saioan parte hartu zuten Aretxabaleako eta Eskoriaztako neska-mutilak kantuan eta dantzan ikusi ahal izango dira zapatu zein domekako emanaldietan. Zapatuan estreinatuko dituzte lehen bi saioak: 09:30ean eta 10:00etan. Eta ondoren, errepikapena egongo da, 17:30ean eta 18:00etan. Domekan ere beste bi saio estreinatuko dituzte ordu horietan, eta errepikatu gero.

Jou Díaz  
Karakiua  
Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

Mobiliario  
ARENAZA  
ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



2018ko irailaren 19an egin zen hamaikakoaren ekitaldia Zaldibar antzokian. IMANOL BELOKI

## Entitateekin bilera, Euskaraldia ardatz

2020. urtean, azaroaren 20tik abenduaren 4ra gauzatuko da Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta aurkezpen-bilera deitu dute antolaketa taldeko kideek herriko zenbait entitateekin. Bilera osoko bilkura aretoan izango da, martxoaren 17an, 19:00etan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Datorren martitzenerako, martxoaren 17rako, Euskaraldiaren bigarren edizioaren xehetasunak aurkezteko bilera antolatu dute Euskaraldiaren batzordeko kideek eta Euskaraldia dinamizatzeko ari den Udalak eta herriko hainbat boluntariok, herriko entitateekin. 19:00etan udaletxe-ko osoko bilkura aretoan izango da, esandako moduan, martxoaren 17an.

**Norbanakoetatik haratago**

Euskaraldiaren lehenengo edizioan norbanakoengan eragin nahi izan zen, eta, horregatik, *ahobizi* eta *belarriprest* rolak izan ziren orduko nobedadea. Eskoriatzan 846 lagunek hartu zuten parte egitasmoan, eta pauso garrantzitsuak eman ziren hizkuntza ohituren aldaketan.

Bigarren edizioan, berriz, norbanakoek ere modu berean parte hartuko dute, baina, gainera, entitateei ere parte hartzeko dei egingo zaie. Izan ere,

2020. urtean, azaroaren 20tik abenduaren 4ra gauzatuko da Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta pauso berriak emango dituzte: oraingoan, entitateei, elkartei, enpresei... ere neurriak hartzea proposatuko zaie, nahi badute hizkuntza praktika berriak bultzatzeko.

**'Arigunea': kontzeptu berria**

Euskaraldiaren aurtengo kontzeptu berria *arigunea* izango da. *Arigunea* kontzeptua "euskaraz lasai aritzeko gunea" da, entitate baten barruan, eta talde eratu arruntetan gauzatuko dena. Horregatik, Eskoriatzako Euskaraldiaren batzordeak erabaki du datorren martitzenean bilera egitea eta bertan entitateei

**NORBANAKOEZ GAIN, ENTITATEEI ETA ENPRESEI ERE PARTE HARTZEKO DEI EGINGO DIETE**

aurkeztea ze nobedade izango diren aurtetik, eta parte hartzeko gonbidapena egingo zaie. Hala ere, lehenengo bilera honetara ez dira entitate guztiak gonbidatu. Sailkapen bat egin du Euskaraldia batzordeak eta herriko elkarteak eta publikoak diren organismoak konbokatuko dituzte. Aurreago, berriz, ostalari-merkatari, enpresa eta banketxeekin egingo dute aurkezpen-bilera.

**Bilera irekietan parte hartzeko**

Joan den martitzenean, martxoaren 3an, Euskaraldiaren batzorde irekia izan zen kultura etxean, eta bertan batu zirenek Eskoriatzan gauzatuko diren ekintzen gainean jardun zuten, besteak beste.

Herrian ekimen hori dinamizatzeko duen lantaldea batzeko eta interesa duen edonor joateko beste zenbait dei ere egingo dituzte hemendik aurrera. Horren berri [eskoriatzakoagenda.eus](http://eskoriatzakoagenda.eus) helbidean emango dute.

## Uxue Azkue da Asun Casasola V. ipuin lehiaketako lehen saritua

Arizmendi Ikastolako Almen guneko batxilergoko ikasleak gazte mailako lehen saria jaso du

**I.B. ESKORIATZA**

Uxue Azkue Arizmendi Ikastolako Almen guneko batxilergoko ikaslea da eta Asun Casasola V. ipuin lehiaketako gazte mailako lehen saria jaso du. Gaitzat indarkeria matxista duen ipuina 71 lanen artean aukeratu izan da.

Martxoaren 5ean, joan den egunean, banatu zituzten V. Asun Casasola ipuin lehiaketako sariak, Irungo Bronte liburudendan, eta antolatzaileekin batera, 2008an eraildako Nagore Laffageren ama Asun Casasola izan zen bertan.



Uxue Azkue sariduna. ARIZMENDI IKASTOLA

**'Ez zaude bakarrik' leloa**

Edizio honetako leloa *Ez zaude bakarrik* izan da, "indarkeria matxistikar gabeko jendarte bat irudikatzen" helburuarekin. Gauzak horrela, 378 lan jaso dituzte: helduek euskarazko 22

eta gaztelarazko 206 aurkeztu dituzte; gazteek, berriz, euskarazko 71 eta gaztelarazko 39.

Asun Casasolak lehiaketako antolatzaileei eskerrak eman zizkien feminismoaren eta berdintasunaren alde egindako lanetatik.

## Eskoriatzako neska-mutikoak kantuan eta dantzan telebistan

Otsailaren 15ean eta 16an, Aretxabaletako Arkupeko Zarama aretoan grabatu zituzten Kantariren zazpigarren aldiko saioak. Horietan parte hartu zuten Eskoriatzako 7-11 urte bitarteko neska-mutikoek. Euskal kantu ezberdinak abestuz eta dantzatuz ikuskizun bikaina eskaini zuten zuzeneko emanaldian. Orain, baina, emanaldi hori pantailaz

bestalde gozatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, eta baita gainerako ikus-entzuleek ere, Goiena telebistan.

Asteburu honetan, martxoaren 14an, estreinatuko dira Aretxabaletan ekoiztutako lehenengo bi saioak. Ondorengo asteburuetan joango dira emisioan gainerakoak. Hauek grabatu ziren ordena berean estreinatuko dira telebistan ere, eta orduetgia honako hau izango da: 09:00etan, 09:30ean eta 10:00etan; 17:00etan, 17:30ean eta 18:00etan.





Iñaki Encina piano-jole eta orkestra zuzendaria pianoaren aurrean, lanean. IÑAKI ENCINA OYON

## Punta-puntako artistak Zaldibar antzokian

Iñaki Encina piano-jole eta orkestra zuzendari eskoriatzarrak eta Adriana Gonzalez balio handiko soprano guatemalarrak kontzertua eskainiko dute martxoaren 24an, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrerak salgai daude bost eurotan, kiroldegian

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Martxoaren 24an, 19:00etan, Zaldibar antzokian, punta-puntako bi musikariren kontzertua izango da. Batetik, Iñaki Encina piano-jole eta orkestra zuzendaria izango da oholtza gainean, eta berarekin batera Adriana Gonzalez soprano guatemalarra. Bi artistek grabatu berri duten *Melodies Dassaut & Covatti* lana eskainiko dute, ordubete inguru iraungo duen emanaldian.

Sarrerak salgai daude Manuel Muñoz kiroldegian, bost eurotan, eta saldu gabe gelditzen direnak kontzertu egunean bertan jarriko dira salgai, 18:30etik aurrera, Zaldibar antzokiko leihatilan.

### Maila handiko musikariak

Iñaki Encina eskoriatzarrak Gasteizko Antzoki Zaharreko Ganbera Musika Ziklora egingo duen bisita aprobetxatuz eskainiko du kontzertua Eskoriatzan, dagoeneko sari pila bat jaso dituen Adriana Gonzalez balio handiko soprano gazte guate-

malarrarekin. Grabatu berri duten diskoa bere herrian aurkezteko tartea hartuko du Encinak, eta, besteak beste, Robert Dussaut, Isaac Albeniz, Helene Covatti, Robert Dussaut eta Jesus Guridiren lanak joko dituzte. Hala, XX. mende hasierako piezak izango dira entzungai, maila handikoak; inpresionista eta post-erromantikoa eta testu gozoekin.

### Ibilbide luzeko artista

7 urte zituela familiarekin Gasteizera joan zen bizitzera; ordurako hasita zegoen musika eskolan, eta hala jarraitu zuen. Ogibidez musikari izateko bidean, Okzitaniako Tolosako izen handiko eskolara joan zen

**PIANO-JOLEAK ETA SOPRANOAK MAILA HANDIKO EMANALDIA ESKAINIKO DUTE ZALDIBAR ANTZOKIAN**

gero, Frantzian bakarrik dagoen pianista-laguntzaile ikasketak egitera; eta handik, Donostiako Musikene kontserbatoriora. Ondoren, Parisko Opera Nazionalaren Musikari Gazteen programan sartzea lortu zuen, pianista-laguntzaile, eta lau urtean opera asko zuzentzeko aukera izan du. Gaur egun, Parisen bizi da, opera konpainiek eta antzokiek kontratatuta egiten du lan, zuzendari, eta baita, aldi berean, abeslari askorekin euren audizioak edo bestelako probak prestatzen laguntzen.

### Musikari handiekin lanean

Orain arteko ibilbidean, punta-ko musikari askorekin egin du topo bidean Eskoriatzako piano-jole eta orkestra zuzendariak. Madrilgo Teatro Realean, esaterako, Placido Domingorekin egin zuen lan, eta Valentzian Miren Urbieta soprano handia ezagutu zuen; *Turandot* operan, esaterako.



Bibliotekan, erretiratuendako informatika ikastaroan. I.B.

## Erretiratuentzako informatika ikastaroa, fruituak ematen

Hastapeneko formakuntza ari dira jasotzen udal bibliotekan, eta dagoeneko hiru saio izan dituzte

### I.B. ESKORIATZA

Olazar erretiratu elkarteok antolatuta, erretiratuentzako informatika ikastaroa abian da Eskoriatzako udal bibliotekan. Arrasateko Mikros dendako Ruben Baena irakaslearen gidaritzapean lau saio egin dituzte, oraingoz, eta, poliki-poliki ari diren arren, oinarrizko zenbait kontzeptu ikasten ari direla gaineratu dute zenbait partaidek.

Aro teknologikoan murgilduta "ezinbesteko" ikusten dute ikastaroko partaideek informatikaz ezagutza minimoa izatea, eta saio orduetan, gainera, egu-

nerokotasunean mugikorrarekin izan ditzaketen arazoei irtenbidea emateko hartzen dutela tartea adierazi du Baenak: "Ikasleak oso gustura ari dira informatika ikastaroan. Astean bi egunetan batzen gara bibliotekan, eta, ordenagailuaz gain, mugikorrarekin dituzten arazoak ere ekartzen dituzte, hauei irtenbidea emateko".

### Aurrera begirakoak

Ikastaroak hamabi saio izango dituen arren, ez dute baztertzeko datuak hilabetei begira ere taldea osatzea.

## 'Sal marina' antzerkirako sarrerak salgai daude

Alanbikere antzerki taldearen *Sal marina* izeneko antzerkia martxoaren 22an izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian, eta dagoeneko salgai daude sarrerak bost eurotan, Manuel Muñozen.

Juana Lorrek eta Javier Liñerak zuzendutako antzezlan honek izendapen asko izan ditu eta sari ugari jaso antzerki lehiaketetan. Talde lan bat da, jende guztiari zuzendutakoa, gaztele-raz, eta 70 minutu irauten du. Marina da protagonista, eta agorafobia du. Denbora luzea darama etxetik irten gabe, eta mundu eroso eraiki du inguruan. Beldurrak egunero jotzen du bere atea, bizirik jarraitzen duela gogoraraziz.

## Joskintza tailerra beteta, beste txanda bat izango da

Emakumeentzako euskal jantzi tradizionala egiten ikasteko (gona eta txalekoa) Eskoriatzako kultura etxeak antolatu berri duen ikastaroak izandako arrakasta ikusita, eta kontuan izanik hainbat lagun ikastarorako plazarik gabe gelditu direla, ikastaroa errepikatu egingo da.

Ematen ari diren ikastaroa amaitutakoan hasiko da hurrengo; hau da, Aste Santuaren ondoren, 18:00etatik 20:00etara, egunenetan, kultura etxeko lehenengo solairuan. Interesa dutenek lekua gorde dezakete kultura etxean edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deituz. Ikastaroak 5 aste iraungo du, eta izen-ematea 10 euro izango da.

# Emakumeak kalera aterata, erreibindikatzera

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, jendetsua izan zen Eskoriatzan. Goizetik gauera arteko ekintzetan jende ugari hartu zuen parte, eta berdintasunaren bidean pausoak eman behar direla argi utzi zuten herriaren aurrean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Joan den domekan izan zen Emakumeen Nazioarte Eguna, Martxoaren 8a, eta Eskoriatzan partaidetza handiko ekintzak izan ziren. Lehenbizi, Aresko martxa izan zen, aurten laugarren edizioa izan dena, eta plazan Igone Armendariz omendu zuten. Zaintzaren erreferente eta emakume borrokalari eta indartsu moduan jaso zuen mezeitako omenaldia herritarren partetik, eta ondoren, Aretxabaletarainoko bidea oinez egin zuten bertan batutakoek.

**Berdintasunaren bidean**

Egunarekin bat egin zutenek Eskoriatzan feminismoa bizirik dagoela argi utzi zuten egunean zehar egindako bestelako ekintzetan ere. Fernando Eskoriatza plazan, bazkaria izan zen, eta herriko kaleetan zehar manifestazioa egin ostean, zenbait mezu irakurtzeko tartea ere hartu zuten. Besteak beste, berdintasunaren bidean oraindik lan handia dagoela egiteko adierazi zuten hitza hartu zuten Amaia Isasmendi eta Naiara Gonzalez eskoriatzarrek. Amaitzeko, borobilean eskuak helduta, Irradakan dantzak eginez eman zioten amaiera egunari.



M8-ko lehen ekitaldia plazan. ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK



Igone Armendarizi omenaldia. GOIENA



Aresko martxan. GOIENA



Herriko kaleetan zehar egindako manifestazioa. ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK


## Autobabes neurriak ikasiz

*Defentsa pertsonal integrala* izeneko ikastaroa egin zuten joan den zapatuan, Joseba Iñurategin. KAP Kickboxing eta Muay Thai Federazioak antolatuta, hainbat autobabes-neurri erakutsi zizkieten bertaratutakoei Extremaduratik etorritako Cristo Gamero maisuak. Horrekin batera, Atama taldeko Rafa Carriet irakaslearen ikasgaiak ere izan zituzten.



IMANOL SORIANO

## LEINTZ GATZAGA | 23



Santa Columba ermitan, Gatz Museoeko harrera-gune berria. IMANOL BELOKI

## Harrera-gune berria estreinatu dute Gatzagako Gatz Museoan

Zapatuan, 'Gatz egile egun batez' izeneko ekintza berria izango dute Gatz Museoan hurrek familian egiteko

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Gatz Museo alboko Santa Columba ermitako lanak amaituta, harrera-gunea eta biltegia izango duen eraikina prest dute. Egunotan ari dira lekua pixka bat atontzen, eta pozik geratu dira emaitzarekin.

Eraikin zaharra hutsik geratuko denez, bertan zer egin guttiz zehaztu barik daukatela adierazi du Jon Errasti Gatz Museoeko langileak: "XX. mendeko dorla eta fabrika zena erakusgarri jarri nahi dugu eraikin zaharrean, hori da proiektua. Hala ere, azken gatz lotea egiten

ari gara. Behar duguna baino gatz gehiago biltegitratuko dugu, gero, eraikin berrian biomassazko galdarari eskua hartzeko denbora beharko dugunez, gatzazateko".

**'Gatz egile egun batez'**

*Gatz egile egun batez* izenburupean, hurrek familian egiteko ekintza izango da, zapatuan, 10:30ean batuta. Gatzaren prozesua ezagutu eta gatz egingo dute bertaratzen direnek, besteak beste. Izen-ematea: 943 79 64 63 telefono zenbakira deituta egin daiteke.



GARAZI OROBENGOA

## M8-arekin bat eginez, bazkaria

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko urteroko bazkaria egin dute Leintz Gatzagako Sorginak emakume taldeko kideek. Guztira, 27 emakume batu ziren joan den domekan Gure Ametsa jatetxean bazkaltzeko. Bapo jateaz batera, herria kolore moreko zapiekin apaintzeko eta triki-poteoa egiteko ere aprobetxatu zuten.



Frankistak Bergarako udaletxean eta hainbat herritar San Martin plazan, 1937an. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA



San Martin plaza bergarrez beteta Ikurrina legeztatu zenean, 1977ko urtarrilaren 19an. JUAN IDIGORAS FONDOA

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Ahaztu Barik Bergarako memoria taldeak gaur estreinatu behar zuen *Egia Bat. Bergara ezkertiar eta abertzalearen historia* izeneko dokumentala, Seminarixoan (20:00). Hala ere, koronabirusa dela-eta erakundeek agindu dituzten neurriak ikusita, atzeratzea erabaki dute. Data berria zehaztearekin batera aditzera emango dutela adierazi dute. Hori bai, sarreraren bidez lortutako dirua Harrera Elkartera bideratuko dute, presoak espetxetik irteten osteko gizarteratzean laguntzen duen elkartera. 71 minutu irauten duen dokumentala da, bereziki gatazka ezagutu ez zuten belaunaldi berriei begira egindakoa. "Ez dugu nahi kontakizun bakar bat ezarri. Adierazpen askatasuna oraindik mugatuta dugu arren, gertuko historiaren parte bat azalerratu nahi dugu".

**Bergarako bederatzi militante**

Bederatzi lagun elkarrizketatu ditu Ahaztu Barik taldeak, Bergarako "militante ezkertiar eta abertzaleak" guztiak: "Mugimendu baten historia agertzen da, Bergarako militanteen ahotik eta Bergara erdigunean jarrita; azken finean, Euskal Herriaren azken hamarkadako historia kontatzen da".

Kontakizuna Bigarren Errepublikatik ETArekin desagerpena arteko tartean kokatzen da nagusiki, betiere Bergarako ikuspegitik. Honako herritar

# "Egia bat" azalera, gatazka ezagutu ez zutenei begira

Ahaztu Barik taldearen 'Egia Bat. Bergara ezkertiar eta abertzalearen historia' izeneko dokumentala gaur zen estreinatzekoa, baina koronabirusa dela-eta data berri bat jarriko dute; gatazka Bergaran izan duen eragina erakusten du, ezker abertzalearen ikuspegitik

hauek elkarrizketatu dituzte Ahaztu Barik taldekoek: Jose Luis Elkoro, Ane Miren Alberdi, Pello Belastegi, Mila Elorza, Eukene Gracia, Aitor Arantzabal, Agurne Barruso, Ane Jaurregi eta Aitzol Gandiaga.

Dokumentala egin ahal izateko irudiak lortzeko hainbat iturritara jo dute egileek. Iturri horien artean daude Bergarako udal artxiboa, Olaso Dorrea

**GAUR ESTREINATU BEHAR ZUTEN, BAINA KORONABIRUSA DELA-ETA BESTE DATA BAT JARRIKO DUTE**

Fundazioa, Eusko Ikaskuntza, Zumalakarregi Museoa, Koldo Mitxelena Liburutegia, Euskal Memoria Fundazioa eta Iratzar Fundazioa.

**"Zokoratu nahi izan den borroka"**

Ahaztu Barik taldekoek dokumentalean kamera aurrean agertzen diren ezker abertzaleko militanteen lana aitortu nahi izan dute: "Zailak dira azaltzeko

**ERREPRESIOA, HEROINA, ORDUKO BORROKA FEMINISTA ETA BESTE HAINBAT GAI DITU HIZPIDE**

lan honetan agertzen diren hainbat gai. Gogorak dira hainbat pasarte. Protagonistek, beraz, aitortu egiten diegu egin duten ahalegina. Kamera aurrean horrela biluztea ez da erraza".

Horrekin batera, gatazkaren gordina azpimarratu dute: "Zintzotasunez, kontatzen zaila den eta zokoratu nahi izan den borroka bat azaldu nahi izan dugu. Nondik gatozen jakin, oraina

**BEDERATZI MILITANTE ELKARRIZKETATU DITUZTE, GATAZKAREN GARAI EZBERDINAK BIZI IZAN DITUZTENAK**

ulertu eta etorkizuneko erronkei hobeto erantzuteko. Borroka gogorra egon da Euskal Herrian, eta baita Bergaran bertan ere. Konpondu ez den gatazka horren begirada bat egin dugu". Belaunaldi ezberdinetako militanteak elkarrizketatu dituzte, eta, beraz, gatazkaren pasarte ezberdinak ageri dira, betiere elkarrizketatu horien ahotik.

**Errepresioa, drogak, feminismoa...**

Askotariko gaiak lantzen dira dokumentalean. 40 urte iraun zuen frankismoaren ondorioak eta Franco hil osteko Alkateen Mugimendua ageri dira, eta mugimendu horretan eragile aktibo izan zen Jose Luis Elkoro aitortzen du, besteak beste, zein gogorra izan zen frankista zen udaletxe baten sartzea. 1980ko hamarkadan heroinak herriko gazteengan eragin zuen minaz ere badihardurik ikus-entzunezkoak; 1987an Jarrai ezker abertzalearen gazte antolakundeak San Martin plazan gauzatutako ekin-tza ageri da, gamelu baten formako panpina bat paseatu zuten eta *Heroina = Policia* zioen mezu batekin, drogaren "erabilera politikoa" salatzeko.

Feminismoa ere badu hizpide dokumentalak. Emakumezko elkarrizketatuen bizipenak aintzat hartuta, agerian geratzen da borroka feministaren "hasiera oso gogorra" izan zela Euskal Herrian, "erabat matxista" zen gizarte baten. "Jarrain militatu nuen lehendabizi, eta gero, Egi-



zan erakunde feministan aritu nintzen. Ez zuen zerikusirik gaur egun gizartearen egoera daitekeen kontzientiazio-mailarekin. Garai hartan, feministak gaizki ikusita geunden eta ezker abertzalearen baitan ere ez zen ondo ulertzen gure borroka. Laga egiten ziguten egiten, baina ez genuen babesik. Izugarri aurreratu da arlo horretan", dio Agurne Barrusok. Mila Elortzak, era berean, berdintasunaren kontzeptua beste era batera ulertzen zela dio: "Berdintasuna oso agerikoak ziren lorpenekin lortzen zela zirudien eta ez da horrela. Argi dagoena da benetakoa feminismotik planteatzen diren politikak gauzatzen badira botere aldaketa bat izan behar delako nahitaez. Eredu kapitalista ezin daiteke eredu feminista izan".

2002ko ekainaren 27an onartu zen Alderdien Legearen osteko ilegalizazio garaia ere islatzen ditu dokumentalak. "Ilegalizazio garaiei aurre egitea ezker abertzalearen historiako garaipen handienetako bat izan zen. Badakit ezker abertzaleak akatsak egin dituela, baina zerbait ondo

## 39 urte bete berri dira Telesforo Monzon hil zela, Bergaran

Ez dago ulertzerik euskal abertzaletasuna Telesforo Monzonen ekarpenik gabe (Bergara, 1904-1981). Familia karlista baten jaio arren, euskal nazionalismorantz jo eta Bigarren Errepublikaren garaian, besteak beste, EAJko zinegotzi izan zen Bergaran. 36ko gerra galdu ostean, baina, ihes egin behar eta 40 urtez Ipar Euskal Herrian bizi izan zen.

### HBren sorreran, "klabea"

Denbora tarte hartan "aldaketa ideologiko sakona" eman zuen Monzonek eta Hego Euskal Herrira itzuli zenean Herri Batasunaren sorreran zuzenean hartu zuen parte. "Herri

Batasuna sortzeko pertsona klabea izan zen Monzon, zubi-lan handia egin zuena", dio dokumentaleko protagonistetako bat den Pello Belastegik. Herri Batasunaren sorrerarako lehen urratsa Altsasuko mahaian (EAE, ESB, Hasi eta Laia) egin ostean, Bergarako UNEDen egin zuten aurkezpena independenteeekin, 1978ko urrian; azken horien artean zeuden Monzon bera eta frankismoaren osteko lehen alkate izan zen Jose Luis Elkoro. Elkorok berak ere gogoan du Monzonek egindako lana HBren sorrera posible izateko: "Ikusi zuen Herri Batasunaren oinarriak koherenteak zirela bere ikuspegiarekin".



Monzonen hilkutxa, eta ondoan haren emazte Maria Josefa Ganuza. ROMAN LARRAÑAGA

### "Jendetza itzela" hiletan

1981eko martxoaren 9an hil zen Monzon eta haren hileta Euskal Herrian ordura arte izandako ekitaldi jendetsuen artean

kokatu beharra dago. "Hileta itzela izan zen. Jendetza izugarria gogoratzen dut; egun eta gau guztia egon zen hilkutxa udaletxean", dio Belastegik.

kudeatu bada garai hori izan zen. Itzelak izan ziren zailtasunak, jazarpen handia izan genuen; kartel bat inprentatik jasotzeko kotxe bat aurretik bidali behar izaten genuen. Min handia egin zigun, isolatu egin gintuzten;

muskulu gutxiarekin geratu ginen", dio Aitor Arantzabalek.

### Belaunaldi berriei begirako lana

Gatazka lehen pertsona eza-gutu duten elkarrizketatuen bitartez egindako kontakizuna

da, baina belaunaldi berriei begira dago egingo bereziki. Gatazka ezagutu ez dituzten gazteei dago zuzenduta gehienbat: "Agerikoa da gure borroken transmisioa ez dela behar besteko sendoa izan; kontaktu ez diren

edo kontaktu ezin izan diren istorioak kontaktu nahi izan ditugu. *Egia bat* izena jarri diogu. Zergatik? Ez delako nahi kontakizun bakar bat ezartzea. Isilaraziak izan diren ahots batzuk ekarri ditugu".

## Bergarako ezker abertzaleko bost ahots, iraganaz eta etorkizunaz



JOSE LUIS ELKORO

### "Elizako eskaileretatik tipo bat ni apuntatzen ikusi nuen"

"Hainbat eta askotarikoak izan dira jaso ditudan mehatxuak. Batallon Vasco Español eta Triple A taldeek idatzitakoak gordeta ditut etxean, eta makina bat dira. Telefonoz ere mehatxu oso gogorrak jaso nituen (...). Egun baten, alkate zen lagun batek esan zidan apartatzeko, norbait ni apuntatzen ari zela; ikusi nuen San Pedro elizako eskaileretatik tipo bat apuntatzen ari zela (...). Ezker abertzalea oso sektore garrantzitsua da herri honentzat, eta herriaren benetako beharrak defendatzen dituen bakarra da. Hori izango da Euskal Herriaren etorkizunerako oinarria".



ANE MIREN ALBERDI

### "Borroka armatua onartua zegoen herrien askapenerako"

"Estatu-terrorismoa bizitzea tokatu zitzaidan. Egun baten, Arantxa Sasiain eta biok bizi ginen etxe kanpoko eskaileretan iskanbila entzun genuen eta gutxira tinbrea behin eta berriz jotzen hasi ziren; norbait zerbait gertatzen ari zitzaiola pentsatu, eta atea ireki genuen. Irekitzeaz bat, pistola bat nuen buruan; pentsatu nuen hor bertan akabatuko gintuztela (...). Borroka hastean egoera ezberdina zen oso; herrien askapenerako onartua zegoen borroka armatua erabiltzea. Baina ikusten denean borroka ez duela aurrera egiten laguntzen, bukatu beharra dago".



AITOR ARANTZABAL

### "Sormena eta lana beharko dira, baina ziur lortuko dugula"

"Oroitzapen oso onak gordetzen ditut institututik, eskola iraultzailea izan zen. Jende abertzale, ezkeriar eta iraultzaile mordoak ezagutu nuen (...). Izan genituen liskarrak Jarrai eta gaztetxea eramaten zutenekin; ez genuen jakin mugimendu horretara behar moduan batzen, gero eskuz esku lan egin arren (...). Beste aldeko biktima batekin eseriko bagina elkarri entzuteko benetako gogoz, aurrerapauso handia litzateke (...). Sormena eta lan itzela beharko dira Euskal Herria libre ikusteko, baina egiten ari gara, egingo dugu eta ziur nago lortuko dugula".



ANE JAUREGI

### "Errepresioak jende asko beldurtzea lortu zuen"

"Errepresioak eragin itzela izan zuen, jende asko beldurtu zuen jazarpenak. Beldurra erreala zen: sarekadak, atxiloketak... Gaztetxe mugimenduko jendea atxilotzen zuten, Segikoa izan eta kartelak jartzeagatik espetxera zindozten (...). Oporretan geundela, 9 urte nituela, *bisita* bat izan eta ondoren gurasoek esan ziguten beste herri batera mugituko ginela, eta aitak esan zigun egun batzuetarako bakarrik joango zela. Gero, amak esan zigun atxilotzeko arriskuan zeudela eta banatu egingo ginela. Esan nion ezetz, gure ama zela eta gurekin geratu beharra zuela".



PELLO BELASTEGI

### "Abertzaleon arteko elkarlana defendatu zuen Monzonek"

"Amnistiaren Legea irten zenean garbi genuen laster hasiko zirela euskal preso politikoak berriro espetxeratzen. Hala izan zen: 1977ko abenduan irten zen azkena, eta hilabetera hasi ziren berriro kartelak betetzen (...). Telesforo Monzon 1977an etorri zen Bergarara, Askatasunaren lbalaldiarekin, eta 1981ean hil zen. Nahiz eta Bergaran gutxi bizi izan, deigarria zen jende gaztearekin egoteko izaten zuen gogoia; Pol-Pol tabernan egon izan ginen, eta argi zuen gazteok egin behar genuela aurrera. Abertzale guztion batasuna eta elkarlana defendatzen zituen".

# Grebarik gabe ere, indar erakustaldia kaleetan

Oso jendetsua izan zen Martxoaren 8ko manifestazioa, eta azken bi greba feministetan erakutsitako indarra galdu ez dela berretsi da; Martxanteren arabera, feminismotik etorriko da eraldaketa, eta "asteroko lanerako" jende gehiago erakartzea dute helburu

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Azken bi urteetan Martxoaren 8ko greba feministak Bergarako kaleetan erakutsi zuen indarra grebarik deitu gabe eta domeka izanda ahulduko zela uste bazuen norbaitek, oker zebilen. Izan ere, domekan feminismoaren indar erakustaldi berri bat eman zen Bergaran, bereziki Martxantere deitutako manifestazioan.

Herritar asko batu zituen *Antolatatu indarrak. Batu borroka feministara* lelo zuen manifestazioak. Irten aurretik, San Martin plazan performance txiki bat egin zuten hainbat emakumek. Gero, manifestazioan zehar herriko beste "leku sinboliko" batzuetan ere egin zituzten performanceak, leku bakoitzean gai bat landuta – Mizpirualde egoitza, kaleko muralak, San Martin plaza...–.

**Atzean, "urte osoko inurri lana"**

Hori bai, Emakumeen Egunaren biharamunean Martxantere nabarmendu dute urte osoko lanaren garrantzia: "Egun handien atzean, urte osoko inurri lana eta salda dago. Bergaran ere komunitate eta kolektibo feminista konprometituen bidez eraldatuko dugu gure herria. Asteroko batzarretan edo puntualki egiten diren ekintzetako



Martxoaren 8ko manifestazioaren hasiera, Martxantere deituta. IMANOL SORIANO

## 'AMALURRA' IZENEN ERAKUSKETA HILAREN 29RA ARTE EGONGO DA ZABALIK, AROZTEGI ARETOAN

parte-hartzea indartzea izango da hurrengo erronka!".

**21 artistaren lanak ikusgai**

Martxoaren 6an ireki zuten *Ama-lurra* erakusketa, herriko 21 artistaren eskutik. Ama lurra

gai nagusi hartuta, haren bueltan beste lau azpigai lantzen dira erakusketan: lur eremua, migrazioa, emankortasuna eta materia. Horiek landu dituzte margolanekin, eskulturekin, argazkiekin eta testuekin. "Nahi duguna egiteko askatasuna izan dugu", esan zuen erakusketaren antolakuntzan aritu den Julia Pajaresek. Martxoaren 29ra arte egongo da zabalik: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

## Mural berria itsatsi dute Oxirondon

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldietako *Kontatu gabeko emakumeak artearen historian* izeneko tailerra martitzenean borobildu zuten. Silvia Ayerrek gidatutako ikastaro horretako azken helburua izan da Martxoaren 8aren bueltan mural "berezi bat" itsastea leku ikusgarri baten; hilaren 5ean egin behar zuten, baina eguraldiatik hilaren 10era atzeratu zuten.



Murala Oxirondo azokan itsatsi osteko argazkia, martitzen iluntzean. GOIENA



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

## Bi orkestra

*Nire ustez* atala idazteko abisua jaso nuenean, 1889ko dokumentu bat nuen esku artean. Dokumentu horretan zehazten zuen Stoltz organo handia egiteko nolako soinu instrumentuak behar ziren. Kornetak, bonbardak, tronpetak, klarinak, klarineteak, biolinak, biolak, oboeak, baxuak, kontrabaxuak, biolontxeloak, flautak, kanpaitxoak... Izan ere, horiek dira orkestra sinfoniko baten beharrak; hain justu, San Pedro elizan daudenak. Beharrezkoa da nabaritzea ongilearen borondatea, eskuzabaltasuna, eta horren ondo hartutako erabakia, kontuan izanda San Pedro elizaren akustika berezia harmonizatzeke orduan normalean baino tonu erdi baxuagoa dela. Organo erromantikoen artean, Stoltz da jatorriko ederrena eta handiena. Baina kontuan hartzeko da beste orkestra berriago bat daukagula, 1986an sortutako sinfonikoa. Horren helburua da kultura musikal zabalagoa egitea gure herrian. Herri guztiek dituzte euren berezitasunak eta harro egoteko arrazoiak; bergararrok gauza asko ditugu gure gozamenarako; bi orkestra handi, besteak beste.

## Mugikortasun Plana: radarra Ibargarain, baina isunik jarri gabe

Ibilgailuek herri barruan hartu ohi duten abiadura neurtzeko gailuak jarri ditu Udalak Ibargarain kalean, Correos-en bulegoen aurrean. Helburua da datuak batzea Mugikortasun Planera begira, eta, beraz, Udalak argi utzi nahi izan du ez dela isunik jarriko. Aurreikusten dutenez, astebetez egongo da abiadura neurtzeko gailua Ibargarain.



Abiadura neurtzeko gailua. B.U.

## OHARRAK

### Koronabirusa: BAZ eta gizarte zerbitzuak zabalik

Koronabirusa dela-eta gaurtik aurrera itxita egongo dira udal zerbitzu guztiak, BAZ eta gizarte zerbitzuak izan ezik. Zehazteke dago noiz arte iraungo duen atzo arratsaldean hartutako neurriak.

### Kantari 7: koronabirusagatik atzeratu egingo da

Zapatuan eta domekan bosna saio ziren grabatzekoak Zabalotegin, 16:00etatik 20:00etara, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako 250 neska-mutikorekin. Prebentzio modura erabaki da asteburu honetan ez egitea, eta udalekin beste data bat zehaztu bezain pronto gurasoek jakinarazpena jasoko dute.

### Erramu zapatuko bazkarirako txartelak

Txartelak martxoaren 18an jarriko dira salgai Iralan (19:00). Txartel bakoitzak 12 euroko prezioa izango du, eta pertsona bakoitzak gehienez lau txartel erosi ahalko ditu. Txapa irriatik eta Xaxauk antolatuta dute bazkaria, Udalaren laguntzarekin.

### 1941ean jaiotako urteroko ospakizuna

Apirilaren 25ean batzokian bazkalduko dute (14:30); 14:15ean aterako dute argazkia. Izena eman behar da apirilaren 20a baino lehen, aurrez 30 euro ordainduta: ES21 3035 0009 19 0091156350.



Lehen territorial mailako mutilen taldea, orain dela bi aste Tolosan jokaturako partiduaren ostean. BERGARA ESKUBALOA

# Mailari eusteko puntu garrantzitsuen beharra

Aurreko jardunaldian berdinduta, bederatzigarren postuan dago une honetan lehen territorial mailako mutilen taldea. Mailari eusteko, geratzen diren lau jardunaldietan jokoan dauden zortzi puntuetatik sei eskuratzea "beharrezkoa" dela azpimarratu dute

**Jone Olabarria** BERGARA

Urola taldea hartu zuten etxean joan den asteburuan Josetxo Muniategiren mutilek; eta 23-23 berdinduta, bederatzigarren lekuan da sailkapenean lehen territorialeko taldea. Une honetan, 14 puntu dituzte bergararrek, eta, haiek bezala, puntu kopuru berberarekin daude beste bi talde: Ordizia Siglo XX eta Donibane Eskubaloia.

Joan den asteburuko partiduari dagokionez, "gazi-goza" izan zela azaldu du Muniategik. Aurkari "gogorra" izan zela aitortu dute, eta talde "gaztea eta indartsua" zela azpimarratu: "Nahiko ondo hasi baginen ere, lehen zatiaren amaierara lau puntuko aldearekin iritsi ginen, 11-15. Nahiko ataskatuta ibili ginen lehen zatian eta atezaina ere ez zen oso fin ibili. Bigarren zatian gora egin genuen pixka bat hasieran, baina ezin izan genuen Urola garaitu. Atzetik joan ginen markagailuan, ez genuen lortzen aurretik jartzea, nahiz eta azken

unean berdinketan amaitu. Defentsaren lana, dena den, ona izan zen eta atezainak bigarren zatian eta partidu amaieran lan polita egin zuen".

## Taldearen egoera

Taldearen egoeraz galdetuta, "kontzentrazio falta" azpimarratu du Muniategik: "Taldea ondo eta gogoz dagoen arren, kontzentratzea falta zaie jokalariei. Gorabehera handiak izaten ditugu partiduan zehar, eta hori saihestu behar dugu. Zati batzuetan indartsu ibiltzen gara, defentsaren lan ona izaten dugu, baina gero, behera egiten dugu. Kontzentratuta irteten garenean partiduak mendeen hartu eta lan polita egiteko gai garela

**"GOGOTSU GAUDE;  
KONTZENTRATZEA  
FALTA ZAIGU,  
GORABEHERA ASKO  
DITU-ETA TALDEAK"**

erakutsi dugu". Horren adibide orain dela bi aste Tolosan jokaturako partidua azpimarratu du Muniategik: "Lan egiteko gogoz irten ginen eta 29-37 irabazi genuen. Adibide bat besterik ez da, argi dago partiduak mendeen hartzeko gai garela".

## Partidu "erabakigarriak"

Hain zuzen ere, datozen asteetarako aurreikusia dituzten partiduak "bereziki garrantzitsuak" direla aitortu du Muniategik. Dena ondo bidean, Pulporren aurka, Laubide taldearen aurka, Ormaiztegi eta Aritzabalde Taberna Zarauzko taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Partidu "gogorak" izatea espero dutela aitortu du Muniategik.

Hala, jokatzeko dituen jardunaldi guztietan eskura ditzakeen zortzi puntuetatik gutxienez sei eskuratzea finkatu du "beharrezko" helburutzat Muniategik, bestela "arazoak" izan ditzaketela aitortu du eta.

## Alberdik eta Espinalek lortu dute astean finalerako pasea

Datorren asteko finalean, Fernandez eta Alberdi arituko dira promesetan; eta nagusietan, Etxeberria eta Espinal

**J.O. BERGARA**

Martitzen arratsaldean, hilak 10, Bergarako udal pilotalekuan jokatu ziren XI. Soraluze lau eta erdiko txapelketako finalerdiak. Hala, promes mailan Unai Alberdi azpeitiarrak 22-5 irabazi zion Oier Hormaetxeri.

Nagusien mailan, berriz, Iker Espinal iruindarra 22-10 nagusitu zitzaion Iñaki Elolari. Horrela, erabakita geratu ziren, finalean lehiatuko diren pilotariak: J. Fernandez eta Unai Alberdi lehiatuko dira promes mailan. Nagusietan, A. Etxeberria eta I. Espinal arituko dira.



Bigarren finalerdiko irudia. PILOTA SAILA

## Zaleei eskertze mezua

Otsailaren 4ean hasi zuten Soraluze lau eta erdiko pilota txapelketa. Aurtengoa hamakagarren aldia izan du kaiolako txapelketak eta ohi moduan, maila handiko pilotariak ekar-

tzen saiatu dira, zaleak erakarriko dituztenak. Hala, beste txapelketa batzuetan goian ibili diren pilotariak ikusteko aukera egon da. Era berean, eskerak eman nahi izan dizkiete hasi zenetik gaur arte pilotalekura hurbildu diren pilotazaleei.

## Zikloturistak Dorletan

Orain bi aste egin zuten Lokatza taldeko zikloturistek aurtengo lehen irteera. Bizikleta hartu eta denak batera abiatu ziren Dorletako Amari lore sorta eskaintzera, denboraldian zehar bere babesa izateko. Taldetik pozez jakinarazi dutenez, aurtengoan emakumeen presentzia areagotzen doa lokatzako zikloturisten artean.



LOKATZA

**UGARTE**  
AROTZEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurrira  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihoak · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTZEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**21**  
KALITEA

Enpresa Registrada 1190/025

# "Ikuslea identifikatua sentitzen da gurekin"

'Erradikalak ginen' ikuskizuna bihar izango da, 19:00etan, Torresoroan, koronabirusagatik bertan behera geratzen ez bada; bertsoa eta antzerkia umore fina erabiliz josten dute, eta arrakasta eta oihartzuna lortu du; feminismoa du hari-mutur

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Bertso eta bakarriketa formatuaren bitartez, indar handiko ikuskizuna dakarte Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal antzerkigileak. "Formatu honek agertokian baduela indarra ohar-tu gara. Izan ere, lehen bertsoan, *Erradikalak gara* izena zeraman emanaldiaz jada ohar-tu ginen horretaz. Bigarren honetan, *Erradikalak ginen* lanean formatu bera erabili gura izan dugu. Edukia aldatu eta berritu dugu", azaldu dio Ane Labakak.

**Feminismoa eta umorea ardatz**

Oraingo honetan, feminismoa eta umorea zehar-lerro dituen emanaldia ekarriko dute Antzuolara: *Erradikalak ginen*. Sexualitateaz, patriarkatuaz, gizarteak ezartzen dituen etiketez... jarduten dute. "Iruditzen zaigu gauzak beste era batera esaten saiatzeko eta eragina izateko tresna ona ere badela umorea".

Era berean, orain artean bigarren zati honek arrakasta izan duela eta jendearengana iritsi iritsi dela ere aitortu du Labakak, pozik: "Lehen lanak izan duen eragina ikusita, bageneukan beldur pixka bat. Izan ere, guztira, 100 emanaldi egin genituen Euskal Herrian barrena eta



Ane Labaka eta Beatriz Egizabal aurrez aurre. LAN KU

## "GAUZAK BESTE ERA BATERA ESATEKO AUKERA EMATEN DUEN TRESNA DA UMOREA"

nolabaiteko presioa sumatzen genuen bigarren lan honekin. Baina orain arteko erantzuna bikaina izan da eta oso pozik gaude. Oraingo, sei emanaldi egin ditugu eta balorazioa oso ona da".

Tabu izan diren gaiak azalera ekartzen dituzte Labakak eta Egizabalek. "Gai asko jorratzen ditugu eta beti gairen batekin gertutik identifikatua sentitzen den ikuslea izaten dugu emanaldietan. Bizipenen arabera modu ezberdinean eragiten dio ikusle bakoitzari gure lanak. Hori ikustea ere oso aberatsa izan dela guretzako esan nahiko nuke. Emanaldiaren amaieran guregana ere jo dute zenbatak. Kurioso ere izan da eta gustura gaude", adierazi du Ane Labaka bertsolariak.

## 'Eltzikorta': ia 23 urte kartzelan egin ostean, domekan irtengo da

1997an atxilotu zuten, Ortega Lararen bahiketagatik; egun, larriki gaixo dauden presoen zerrendan dago

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Joseba Erostege *Eltzikorta* antzuolarrak 22 urte eta zortzi hilabete pasatxo bete ditu kartzelan. Ia 23 urteren ostean irtengo da domekan, martxoaren 15ean, Ciudad Realgo Herrera de la Manchako kartzelatik.

Joseba Erostege *Eltzikorta* 1997ko uztailean leian atxilotu zuen Guardia Zibilak, Ortega Lara kartzelako funtzionarioaren bahiketa leporatuta. Antzuolara Xabier Ugarte eta Sabin Usandizaga oñatiarrekin, Joxe Migel Gaztelu bergararrarekin eta

Josu Uribeetxeberria arrasatearrarekin -2015ean zendu zen gaixotasun larri batek eraginda- atxilotu zuten. Hogeita hamar urteko espetxe-zigorra ezarri zioten bakoitzari.

Larriki gaixorik dauden preso- en zerrendan dago *Eltzikorta*. 66 urte ditu, eta 2014az geroztik dago gaixo; hainbat polipo ditu kolonean eta uzki zati bat dauka kenduta.

Sarek behin eta berrero salatu du Joseba Erostegek bizi izan duen "salbuespen legedia eta kartzelaldi ankerra".

## Landatxope adinekoen aisialdi-gunea itxita dago

Antzezlan, hitzaldia, erakusketa, kontzertua... askotariko ekintzak antolatuta ditu martxoan zehar egiteko Landatxope erretiratuen elkarteak, Kulturaldia ekimenaren baitan, baina, oraingo, dena bertan behera geratu da. Jaurlaritzako Osasun Sailaren gomendioa jarraituta, Antzuolako Udalak prebentzio neurri gisa erretiratuen aisialdi-gunea, Landatxope, ixtea erabaki du. "Erakundeekin une oro harremanetan gaude eta prebentziorako gomendioak jarraituko ditugu. Oraingo, Landatxopeko ekintza guztiak bertan behera geratu dira eta ez dakigu neurria indarrean noiz arte egongo den".

## OHARRAK

### Emakume Master Cup

Nagore eta Leire Galeano ahizpak bihar Elgoibarren jokatzekoak ziren pilotako finalerdia bertan behera geratu da.

### Derbia Eztalan

Antzuolak Aretxabaletako UDA hartuko du Eztalan zapatuan, 16:00etan -bertan behera geratzen ez bada-. Une honetan, talde gorria 15. postuan dago, 20 punturekin.

### Uzarragako igoera

Challenge denboraldia hasiko da gazteen Uzarragako igoerarekin. Martxoaren 21ean, zapatuan, izango da igoera, Aia-stui taldeak antolatuta, 16:00etan hasita.

## Berdintasuna aldarrikatuz

Emakumeen Nazioarteko Egunean antolatutako ekintza eta ospakizunen baitan, herriko hainbat emakumek Trekutz elkartearen bazkaria egin zuten.

### Hainbat ekintza

Eguerdian plazan eginiko elkarretaratzeaz gain, yoga saioa ere egin zuten emakumek domeka goizean Olarango aretoan.



Martxoaren 8an, emakumek bazkaria egin zuten Trekutzen. ANDRAMANUELA K

MUJIKA  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# "Ikasleekin kirola egiten genuen astean hirutan"

**JOSE INAZIO GARITANO** KIROLAREN TESTIGANTZA-BLOGAREN EGILEA

Bihar, zapatua, zen aurkeztekoa Jose Inazio Garitano Antzuolako kirolaren historia batzen duen testigantza-bloga, baina solasaldia bertan behera geratu da

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Atletismoak, saskibaloiak eta sokatirak herrian izan duten garrantziaz jardun du Jose Inazio Garitanok Goienan. Orain, testigantza oso-osorik blog batean jaso du herriaren ondare gisa.

**Antzuolan kirola herritarren artean sustatzen hasi zen lehena Cesareo Gabarain apaiza izan zen, ezta?**

14 bat urte geneuzkela, eta orduan geurera etorria zegoela, ezagutu genuen Cesareo Gabarain apaiza. Berak sustatuta hasi ginen 1961ean atletismoan. Diziplina asko lantzen genituen eta herriz herri ere egiten genituen txapelketak. Ondo moldatzen ginen, gainera.

**Danobat elkartean batzen zineten.**

Bai; tertulia giroan geundela Donostiako lehen maratonia egiteko ideia jaio zen. Bi hilabete-ko prestakuntzarekin soilik, hamar bat lagunek parte hartu genuen eta denok bukatu genuen. **Eta orduan erabaki zenuten gazte-txoen artean kirola zabaltzea?**



Jose Inazio Garitano, Goiena telebistako platoan. MAIDER ARREGI

Bai; auzoko jaietan hasi ginen *challenge*-ak egiten. Ondoren, eskolako haurren aisialdia betetzeko asmoz, proposamena egin genien eskolako irakasleei. Astean hiru egunez egiten genuen kirola. Tarteka, gurasoak ere

etortzen ziren; 90 lagun elkartzera iritsi ginen, pentsa! Hiru ginen bultzatzaileak –Igarza, Beistegi eta ni neu– eta entrenatzaile tituluak ere ateratu genuen sasoi hartan.

**Musu-truk egindako lana zen.**



## Erakusketa bertan behera geratu da

Antzuolako kirolaren historia jasotzen duen Olarango erakusketa bertan behera geratu da, oraindik, koronabirusagatik. Bihar Jose Inazio Garitanok egin behar zuen testigantza-blogaren aurkezpena ere atzeratu egin dute.

Egindako kalkuluen arabera, bakoitzak mila ordu sartzen genituen urtean; guztira, hiru mila ordu. Baina bizitakoak eta emandakoak merezi izan du.

**Atletismoak bai, baina Antzuolan sokatirak eta saskibaloiak izan ditu jarraitzaileak.**

Sasoi hartan, saskibaloia ez zen oso ezaguna. Baina gogoan dut astebeterako gurekin izan genuela Segundo Azpiazu, 2 metro eta 10 zentimetroko mutila. Orduan bai izaten genituela saskiratzeak; kar, kar. Eta sokatirari 1977an hasi ginen. Hasieran,

desafioa egin genuen: baserritarrak kaletarren aurka. Eta baserritarrek irabazi zuten. Baina berehala konturatu ginen indarrak batu behar genituela eta elkarrekin taldea osatu. Espainiako txapelketan bigarrenak izatera heldu ginen.

**"CESAREO GABARAIN APAIZAK ANIMATUTA EGIN GENION ANTZUOLAN KIROLA EGITEARI"**

**NIRE USTEZ**



**OIER PEÑAGARIKANO**

## 390 metro

390 metro dira Antzuola eta Bergara lotu beharko lituzkeen bidegorriari bere izena irabazteko falta zaizkionak. Bi herrietako herritarrok eta Debagoieneko gainontzeko biztanleak lotzeko falta zaizkigun metroak.

Herritarrak kezu gara, urteak daramatzagu errepide mozketa, hautsez eta zikinkeriaz betetako errepide zati batean gora eta behera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 43 milioi euro gastatu ditu Deskarga zulatu eta Antzuolako inguruak

porlanezko zutabez josten. Behin autobidea –doakotzat saldu ziguten hura– ireki eta gero, akabo.

Bukatu dira egunkarietako argazkitxo eta denbora irabaztearen kalkulua.

Gipuzkoako Aldundiari bidegorria amaitzeko eskatuz manifestazio jendetsu bat egin genuen eta herritarren eskaerari kasurik egin gabe, eta inork eskatu gabe, Deskargan erre motela kendu dute; txirrindularion mesedetarako izango omen da. Edo, beharbada, autobidearen fakturazio

kalkuluaren mesedetan, batek daki.

Hala ere, pozik omen dabil gure burugainetatik pasatzen zaigun jendea, hamar minutu lehenago iristen delako lanera.

43 milioi eta urte mordoxxa bat geroago, antzuolarrok berdin-berdin jarraitzen dugu.

Lokaztutako errepideetan mozketak jasaten, ur-araztegiak gabe eta Debagoienarekin lotu beharrean, inora ez daraman bidegorri batekin.



## Kantari bertan behera, oraindik

Martxoaren 1ean, Kantariko entseguak egin zituzten Antzuolako gaztetxoek Bergaran, Zabalotegin. Baina Goienako zuzendaritzak asteburuko grabazioak bertan behera uztea erabaki du, koronabirusa dela eta, prebentzio neurri gisa. Hala ere, udalekin adostuta beste egun bat jarriko dute saioak grabatzeko. Parte hartzaileei jakinaraziko zaie.

# "Gurasoek erabilera eredugarria egin behar dute"

Martitzenean, 'Adingabeak eta telefono mugikorrek' gaia izan zen hizpide eskolan, Kontsumobideko Cristina Blazquezen eskutik. Mugikorraren erabilerearen arriskuak aipatu zituen, eta gomendio batzuk ere eman zizkien bertaratu ziren gurasoei

**Maialen Regueiro** ELGETA

Elgetako Herri Eskolak antolatu eta Kontsumobideko Cristina Blazquezek gidatuta, *Adingabeak eta telefono mugikorrek* gaia izan zen hizpide martitzenean. Guztira, 22 emakume –guraso zein irakasle– elkartu ziren tailerrean parte hartzeko, eta, Blazquezen solasaldia entzuteaz gainera, norbere esperientziaren berri emateko aukera ere izan zuten. Besteak beste, segurtasuna, pribatutasuna eta menpekotasuna izan ziren jorratu zituzten esparruetako batzuk.

**Mugikorra erostearen arrazoiak**

Blazquezen esanetan, hiru dira gurasoek euren umeei mugikorra erosteko arrazoiak: "Umeek mugikorra izateagatik gurasoek izaten duten segurtasuna da arrazoietako bat; modu horretan, une oro umeekin kontaktuan egon daitezkeelako. Bigarrena entretenimendua litzateke, gurasoak lasai egon daitezkeelako umeak mugikorrarekin entretenitzen diren bitartean. Azkenengo arrazoiak umeen inguruko eragina izango litzateke. Izan ere, umeen inguruko mugikorra izaten hasten direnean, gurasoak, nolabait, behartuta daude euren umeari ere mugikorra erostera".

**Tik Tok eta Instagram**

LH-4 eta LH-5 mailetakoko ikasleek gehien kontsumitzen duten sare soziala Tik Tok dela adierazi zuen Blazquezek. DBHko ikasleak, berriz, Instagram-zaleak direla aipatu zuen, eta adin hori duten gazteen belaunaldiari *berrehala-kotasunarena* deritzola gehitu zuen. Blazquezen esanetan, Tik Tok eta Instagram gisako sare sozialaren arazoa da ume asko legeak ezartzen duen adinaren aurretik erabiltzen hasten direla. Kasu horietan, gurasoen arduraren jarri zuen fokua. Izan ere, bere ustez, gurasoek euren umeek egiten duten erabilerearen



Cristina Blazquez gurasoetako baten mugikorrean, saltsan. LARRAITZ ZEBERIO

## "LH-4KO ETA LH-5EKO IKASLEEN ARTEAN TIK TOK DA NAGUSI ETA DBH-KOEN ARTEAN, BERRIZ, INSTAGRAM"

gainbegiratu egin beharko lukete, betiere, umeekin hizketaldia izan aurretik eta bi aldean arteko onarpena egonik.

**Arriskuak**

Mugikorraren erabilera txarra egitea eta pribatutasuna ez zaintzea dira, Blazquezen esanetan, gailu hau erabiltzearen arrisku nagusiak. Gazteek egiten duten gehiegizko kontsumoa ere aipatu zuen, eta menpekotasuna sor dezakeela gehitu. Arrisku ekonomikoaren inguruan ere hitz egin zuen, eta ordainpekoak diren zerbitzuak zaindu egin beharko liratekeela esan. Eta, azkenik, pribatutasunaren galeraz mintzatu zen; gogorarazi zuen aplikazioak jaisten direnean baldintza guztiak onartzen direla eta, modu horretan, informazio pribatua helarazten dela.

Arrisku hauen berri eman ostean, azpimarratu zuen gurasoek mugikorraren erabilera eredugarria egin beharko luketela seme-alaben aurrean. Gauzak horrela, ideia bat azpimarratu zuen Blazquezek: "Gurasoen gainbegiratu oso garrantzitsua da eta neska-mutikoei mugikoretik komunikatzeko erabiltzen duten modua ere aztertu beharko lukete".

**Abantailak**

Arriskuen berri eman ostean, mugikorraren erabilera hainbat abantaila ere badituela aitortu zuen Blazquezek: "Mugikorrak komunikazioa ahalbide-tzen du larrialdi kasuetan, neska-mutikoen ardura bultzatzen du eta, azkenik, komunikazioa errazten du".

**Pasahitzen ezarpena**

Gauzak horrela, saioa amaitzeko, gurasoei pasahitzen ezarpeneko hainbat gomendio eman zizkien Blazquezek: "Mugikorrerako hatz-aztarna pasahitz segurua da eta mugikorra bakoitzean lau gorde daitezke. Aldiz, *patroia* erraz antzeman daiteke eta ez da gomendagarria".



UDA

## Elkoro eta Serna, txapelaketa

UDAK antolatuta, zazpigarrenez jokatu da Emakumeen Frontenis Txapelaketa eta finala martxoaren 8an jokatu zen. Idoia Serna eta Idoia Elkoro elgetarrak finalera heldu ziren, eta baita irabazi ere (22-11).

Elgetako amateur frontenis txapelaketako izen-ematea zabalik dago dagoeneko eta martxoaren 23a izango da izena emateko azken eguna.



ELGETAKO EMAKUME TALDEA

## Bazkari morea herriko plazan

Domekan, martxoak 8, 45 lagunetik gora elkartu ziren herriko plazan bazkari morea egiteko. Aurretik, elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek *Errotik dena aldatzen ari gara* leloa irakur zitekeen pankartarekin. Finalisten Eguna ere egin zen eta 180 pertsona inguru elkartu ziren Elgetan Ibiltarien Jaia ospatzeko.

## Prebentzio neurriak koronabirusa zabaltzea saihesteko

Udal zerbitzu gehienak, Herri Eskola, eskolaz kanpoko jarduerak... itxita edo bertan behera daude gaurtik. Askok dira Elgetan ere COVID-19 koronabirusa ez zabaltzeko hartu diren prebentzio neurriak. Udaletik zein eskolatik eskatu dute kontsultak eta eskaerak telefonoz edo emailaz egiteko. Informazio eguneratua, *Goiena.eus* atarian.

## OHARRAK

### DBH-4ko zozketa

DBH4ko ikasleek egindako zozketaren zerbaki irabazleak 33a da eta Elgetan saldu da. Saria 150 euro da eta irabazleak bi aste izango ditu saria jasotzeko.

### Podologoia

Erretiratuen kontsulta martxoaren 16an izango da. Txanda hartzeko, 943 76 80 77 telefonora deitu behar da.



Josu Mañarikua elgetarra *Darquis* belaontzian, Sagrestik Marokora bidean. JOSU MAÑARIKUA

# Bost hilabete belaontzi batean

Zumaiatik abiatu eta El Hierro uharterainoko bidea egin du Josu Mañarikua elgetarrak. Bakarrik egin du zeharkaldia, eta bizi esperientzia itzela izan dela dio. Hasierako asmoa zen egun gutxi batzuetan Galiziara joan-etorria egitea

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA  
Ez du uste aparteko balentria egin duenik, baina bost hilabete egin ditu itsas-portutik itsas-portura, eta sekula horrelakorik egin ez duenarentzat bada zerbait. Bidaia, orokorrean, ikasketa prozesu bikaina izan dela dio. "Jende eta paraje zoragarriak ezagutu ditut. Estu eta larri ibiltzea ere tokatu zait. Baina, batez ere, nabigatzen ikasi dut; izan ere, gauza bat da lizentziak edukitzea eta beste bat da itsasoan moldatzen ikastea. Ideiarik ez edukitzetik belaontzian eroso sentitzera heldu naiz, eta oso pozik nago", azaldu du.

Irailaren 19an ekin zion abenturari, bi aste lehenago erositako itsasontzi batekin. "Ekainean bukatu nituen Ingeniaritza ikasketak. Lanean ere banenbilen eta aldaketa baten premia nuela sumatzen nuen. Anestesiatu-

ta moduan bizi nintzen. Bidaia-txo bat egitea pentsatu nuen". Zumaia izan zuen abiapuntu eta Galiziara heltzea zen hasierako asmoa. "Belaontziak *Darquis* zuen izena. 1974ko Dufour Arpege bat zen. Itsasontzi oso basikoa zen, egungo gailu elektronikorik gabekoa. Zoratuta nengoela esaten zidaten ingurukoek, baina asmoa zen kostaz kostea eta portuz portu ibiltzea".

**Galiziara heltzeko 17 egun**  
"Kantauri itsasoa oso poliki hartu nuen. Egundak behar izan nuen Zumaia-Mutriku egiteko.

**"ANESTESIATUTA  
MODUAN BIZI NINTZEN  
ETA BIDAIATXO  
BAT EGITEA  
PENTSATU NUEN"**

Pentsa! Kontua da denborarekin oso gustura sentitzen hasi nintzela: haizea, itsasoa, bakardadea... Giro oso ona topatu dut itsas-portuetan". Poliki-poliki konfiantza hartzen joan zen eta bizi esperientzia itzela izan zen. "Galiziako Ons uhartera heldu eta pelikula batean figurante lanak egiteko proposatu ninduten. Kurioso izan zen; kar, kar. Uste dut laster egongo dela ikusgai *Ons* pelikula".

Galiziara heldu eta aurrera jarraitzea erabaki zuen elgetarrak. "Costa da Morten gaizki pasa nuen. Haize indartsuak eta eguraldi txarra harrapatu nituen. Bakarrik nintzen eta ez nuen ikusmenik. Bela bat apurtu zen, eta itsasontzia asko mugitzen zen... Lauzpabost orduz larri ibili nintzen". Hotzarekin lotzen du Portugal. "Porton oso gustura ibili nintzen, baina hoztu egin

## Askotariko esperientziak



Marokon ezagututako bi arrantzalarekin, haien itsasontzian. J.M

**Jende atsegina.** Bidaiak jende eta leku asko ezagutzeko aukera eman dio elgetarrari. Pertsona atseginekin egin du topo. Ikusi du itsas-portuetan elkarri laguntzeko joera handia dagoela.



Baso-mutil lanetan Kanariar Uharteetako El Hierro. J.M.

**Aurrekontu txikia** Gastuak ordaintzeko lan egin behar izan du Mañarikua. El Hierro uhartean, esaterako, baso lanetan aritu zen, eta taberna zerbitzari zereginetan ere bai.

zuen gero eta azkar egin nuen Algarvera. Horregatik, Sagresera iristea zoragarria izan zen. Astebete egin nuen eguzkitan".

**Maroko eta Kanariar uharteak**  
Bidaia lehen zeharkaldia etorri zen gero. "Ekaitz elektriko batek harrapatu ninduen itsasoan. Iluna zen, 03:00ak-edo ziren, eta gaizki ibili nintzen. Marokoko Jorf Lasfar portuan ere ez nintzen seguru sentitu".

Mañarikua gauez nabigatzen ere ikasi du. "Bakarrik egotera, ordubeteko loaldiak egiten nituen, tarteka dena ondo zegoela

**"JENDE ETA PARAJE  
ZORAGARRIAK  
EZAGUTU DITUT; ESTU  
ETA LARRI IBILTZEA  
ERE TOKATU ZAIT"**

egiazatu behar bainuen". Marokon, Safi herria du gogoan. "Familia batek bere etxera gonbidatu ninduen. Beste kultura bat ezagutu nuen".

Kanariar uharteetara iristeko ere beste bi egun eta erdiko zeharkaldia egin zuen. "Meteorologia alde nuen, esperientzia gehiago nuen... Oso eroso sentitu nintzen". Kanaria Handian senitarteko batekin kontaktatzea lortu zuen. "Galduta genuen harremana. Lau izarreko hotela dauka eta hotelean egun batzuk pasatzera gonbidatu ninduen. Zoragarria izan zen". El Hierro egin zuen gero. "Diru barik nongoen, eta itsasontziak mantentze-lanak behar zituen. Salmentan jarri nuen. Berehala erosi zuten. Azkarregi. Ez dakit benetan hori nahi nuen". Etxean da, berriz, Mañarikua. Noiz arte? "Gaztea naiz. Auskalo!", dio.



Espeleologoak kobazulo barruan martxoaren 7an egindako garbiketa lanean. AMET

## Kobazuloan pilatutako zikina ateratzeko lanak

Aretxabaletako Arronkondoko koba barruan pilatutako bi tona eta erdi hondakin atera dituzte Euskal Herriko eta kanpoko hainbat espeleologok, AMETeko kideek gidatuta. Hondakinak eguaztenean jaitsi zituzten eta Mankomunitateko edukiontzietan sartu

### Oihana Elortza OÑATI

Euskal Herriko eta kanpoko hainbat espeleologia taldetako kideak elkartu, eta Aloña Mendi Espeleologia Taldeak gidatuta, Aretxabaletako Arroskondoko leizea garbitzen aritu dira martxoko lehen zapatuan. Zikinez husten. Egindako garbiketari esker, tamaina eta material askotariko hondakinak atera dituzte: 2,5 tona zikin.

### Urteetan pilatutako zikinak

Bildutako zaborraren artean zeuden, esaterako: hozkailuak, garbigailuak, gurpilak, kupelak, burdinazko egiturak, arantza-alanbrea, sehaskak, eltzeak eta kristalezko eta plastikozko botilak. Aurreikusita zutena baino hondakin kilo gehiago.

AMETeko kide Santi Ugarte oñatiarrak azaldu duenez, urtean pare bat irteera egiten dituzte kobazuloak garbitzeko. "Guk ez baditugu garbitzen, beste inork ez du lan hori egiten eta garbiketa egin beharra dagoela uste

dugu", dio. Horrela, espeleologo taldeek garbitu beharra izan dezaketen leizeak proposatzen dituzte, eta guztien artean adostu zein garbitu. "Leize hau 70eko hamarkadan topografiatu zuten eta harrezkero ez da inoiz garbitu. Bagenekien urte askotako zikinak egon zitezkeela barruan, eta horrela izan da, baina kilo asko jaso dira, bai. Lehen, ta-

malez, obra-hondakinak botatzeko gune moduan erabiltzen zituzten askok kobazuloak eta hara botatzen zituzten hondakin guztiak. Egun, ohitura hori aldatzen doa, nahiz eta topatzen ditugun hain zaharrak ez diren hondakinak ere". Ugartek aurreratu du hurrengo garbiketa irteera Bilboko Haitzulo taldeak proposatutakoa izango dela, Pa-

gasarri mendiaren inguruan dagoen koba batera.

### Sokak eta poleak

Guztira, 25 lagun elkartu ziren Arroskondoko koba garbitzeko eta hiru taldetan banatu ziren, talde-lanean aritzeko. "Ordu askoko lana izaten da: kobaren sarrera ondoraino joan behar izaten dugu, materiala deskargatu, antolatu, barruko zikina atera eta hondakin guztiak sailkatu. Koba hori, gainera, konplikatua samarra da; salto bat du hasieran, eta aldapa bat gero. Horrek esan gura du poleak eta sokak erabili behar izan zituztela barruko hondakinak kanpora ateratzeko", azaldu du AMETeko kideak. Ateratako hondakina Mankomunitateak jarritako edukiontzietan uzten dute gero, sailkatuta, eta Mankomunitatea bera arduratzen da bakoitza bere tokira eramateaz. "Guk asko eskertzen dugu laguntza hori eta baita Jaurlaritzak ematen digun dirulaguntza ere. Oraingo irteera honetan Aretxabaletako Udalak ere lagundu digu eta lursailen jabeak ez digu inolako eragozpenik jarri", dio Ugartek.

### Kamioi batean jaitsi dituzte

Arroskondoko koban zikinaz gain fauna eta flora asko daukela adierazi du Ugartek; horien artean, esaterako, saguzarrak eta kobaren sarreran dauden landareak. Gauzak horrela, martxoaren 7an atera zituzten hondakinak kobaren ondoan utzi zituzten eta aste honetan, eguaztenean, jaitsi zituzten behera kamioi baten laguntzarekin. Modu horretan, Arrikruzteko aparkalekuan Mankomunitatean utzitako edukiontzietara hustu zituzten.

## Kirol arloko udal dirulaguntzak eskatu daitezke dagoeneko

Herriko elkarteek kirola sustatu eta kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko 13.000 euro banatuko dira dirulaguntzetan. Udaletik jakinarazi dutenez, bi dirulaguntza lerro ditu: herriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako 3.000 euroko partida izango du eta ohikoak ez diren kirol jardueretarako beste 10.000 euro.

Jakinaraiz dutenez, dirulaguntza hauek eskatzeko hilabeteko epea egongo da, apirilaren 6ra arte. Baldintzei dagokienez, klub edo kirol elkarte nahiz entitate juridikorik ez duten talde eta partikularrek eskatu ditzakete, egoitza Oñatin badute edota bailaran izanik gutxienez kirolarien %15 Oñatikoak badira edo Oñatin erroldatuta badaude. Jasoko den dirulaguntza mugatua da; gehienez, 1.500 euro eskuratu ahal izango dira, eta askotariko irizpideak hartuko dira kontuan banaketa egiteko orduan.

## 5G teknologiarri eta ondorioei buruzko hitzaldia egingo dute

5G teknologiak osasunean eta ingurumenean duen eraginaz egingo dute hitzaldia datorren martitzenean, hilak 17, 19:00etan, kultura etxean. Hain zuzen, eragin horiek gizarteratzeko sortu den Informa\*tu elkarteak antolatu du hitzaldia. Ekologistak Martxan taldeko Miguel Angel Martinez de Morentin izango da hizlaria.

## Plaza ondoko kale batzuetan argia kenduko dute gaur

Kiroldegiko eremuan dagoen argindarraren transformadorea lekuz aldatu behar dute eta argia kenduko dute gaur, egubakoitza, arratsaldean, kale hauek hainbat ataritan: Bidebarrietan, Foruen plazan, Kale Barrian, San Juan kalean eta Unibertsitate etorbidean. Aparatu elektronikoak deskonektatzea gomendatu du Oñargik.

## Lizartzako koban aurrera egin ezinda

AMETeko espeleologoak azken irteerak Lizartzako kobazuloan irteera topatzeko izan dira. Lizartzan sartu eta Gesaltza parean irtetea zen euren kalkulua, baina, hara helduta, ez dute irtenbiderik aurkitu. Azken irteeran, gainera, ezin zeharkatu daitezkeen urez betetako putzu bateraino iritsi ziren. Gogorra izaten ari da abentura hori Oñatiko espeleologoendako.



AMETeko espeleologoak urez betetako putzuaren aurrean. AMET



# Konpostatzea azkarrago egiteko dira ontzi berriak

Oraingo edukiontzia handiagoak eta material gogorragoekin egindakoak dira. Konpostatzea egiteko behar den temperatura denbora laburragoan lortu gura da, eta arratoiei lana zailtzea. 200 familiak baino gehiagok egiten dute auzo-konposta Oñatin

## Oihana Elortza OÑATI

Duela zazpi urte hasi ziren hondakinak atez ate batzen Oñatin, eta harrezkero daude auzo-konpostatze guneak herrian. Orduetik honako ibilbidea aztertu eta konpostatzea hobetzeko helburuarekin aldatu dituzte edukiontzia.

## Hermetikoagoak

Jarri dituzten berriak handiagoak dira, 700 litrokoak ziren lehengoak eta 1.000 litroko edukiera dute oraingoak. "Lehen baino gutxiago egongo dira orain auzo-konpostatze guneetan, baina handiagoak dira. Masa bolumen handiagoa hartuko dute, hermetikoagoak era badira, eta horrek erraztu egingo du konposta egiteko behar den tenperatura altua errazago hartzea. Konpostatze ona egiteko, 55 gradu hartu beharko litzuzke materia organikoak denbora batez; beraz, bolumen handiagoan hori mantentzea errazagoa da", dio Ingurumen zinegotziak, Asier Iraetak. Lehengoetan ez bezala, berrietan jasota utzi daiteke tapa, erosoagoak dira alde horretatik, eta materialari dago-kionez, gogorragoak. "Arratoiengatik kezak izan dira eta material gogor hau haien kontrako ere izan daiteke. Orain arte



Edukiontzia berriak Zubiberriko gunean. O.E.

aldatu ditugun guneetan ez da antzeman arratoiak egon direnik eta ez da ikusi zultzeko gai direnik ere", dio Iraetak.

## 200 familiatik gora

Herrian zazpi gune daude auzo-konpostatzea egiteko eta guztietan aldatu dituzte edukiontzia Ugarkaldeko, San Lorentzoko, eta Eltzia ondoko guneetan aldatu dituzte dagoeneko. Baita Errekaldekoak eta San Martingoak ere. Eta azken bi aste haue-tan Zubiberrikoak eta Auzaberrikoak aldatu dituzte. Iraetak

adierazi duenez, gorabehera batzuk egon diren arren, mantendu egiten da auzo-konpostatzea egiten duten familien kopurua; 200 familiak baino gehiagok egiten dute egun.

## Mankomunitateak, kontrola

Iaz, konpostatzearen gaineko lege berria sartu zen indarrean eta Mankomunitateak enpresa bat hartu du bailarako auzo-konpostatze guneak ikusteko eta lege berrira egokitze gomen-dioak egiteko. Oñatiko al-daketak bide horretatik doaz.

## 'Varados' izeneko dokumentala ikusgai gaur, Kultur Etxean

Hotz-Oñatiren eskutik, gaur, 19:00etatik aurrera, *Varado* dokumentala ikusteko aukera izango da Kultur Etxean. Grezian gatibu dauden errefuxiatuei buruzko dokumentala da eta Helena Taberna altsasuarrak egin du.

Horren harira, hilaren 27an, Greziako Lesbos irlako kanpalekuan egon diren Miren Zubeldia eta Xabi Gesalaga oñatiarrek hitzaldia eskainiko dute, 19:00etan, Kultur Etxean.

Hotz-Oñati gainera, errefuxiatuen aldeko hileroko elkartasun azokak egiten hasi da dagoeneko. Ohiko produktuak salduko dituzte eta baita hiru produktu sorta zozkatu ere.

## Bailarako musikariei zuzendutako tailerra eskainiko du Beratu

Beratu jaialdia arloko profesionalen eta musikazaleen topaleku izanik, askotariko tailerrak egin izan dituzte, eta orain ere hala egingo dute, zapatu goizean, Los Sara Fontan bikotearen eskutik. "Musikariei eskainitako musika inprobisazio tailerra izango da, asmatu duten karta joko baten bitartez egingo dutena. Parte hartzaileei musika tresna bat ekartzeko eskatuko diogu", azaldu dute Beratu jaialdiko antolatzaileek.

Tailerra martxoaren 28an izango da, Eltzian, 11:00etan. Doan izango da, baina plaza mugatuak ditu, eta aurrez eman behar da izena, [beratujaialdia@gmail.com](mailto:beratujaialdia@gmail.com) helbidera mezua idatzita.



NIRE USTEZ

XABIER GESALAGA

## Birusik berriena...

Koronabirusa. Lehen begiradan, bi hitz: *korona* eta *birusa*. Eta hauxe burura... korona: errege edo erregetza –monarkikoa ez naizen aldetik, ezer onik ez-. Birusa: kontrolik gabe eratzten den gaixotasun kutsakorra. Beldurra, izua. Hau da, erregetza eta beldurra, uztarri berean; beldurraren erreinuan bizi gara, zalantza gabe. Beldurraren eta, sarritan, izuaren menpe bizi garen sententzia da. Ekonomia-krisi berri baten beldurra, minbiziaren beldurra, aldaketa klimatikoaren beldurra, elikadura osasuntsu bat ez eramatearen beldurra, desberdinari beldurra. Zerrenda luze-luzea dugu eskura... Honek, besteak beste, inoiz baino jendarte "libreago" batean, preso bihurtzen nau, apaingarri distiratsuek atontzen duten mendebaldeko mundu moderno honetan. Gaixotasuna hor dago, bai, eta, era berean, beldurra. Azken hau izaki orori bizirauten laguntzen dion defentsa mekanismo naturala, biologikoa, da. Baina beldur naiz gaur egungo sistemaren gidari diren gorbatahun errege alu hauek ez ote duten beldurra bera birus bihurtu, eta orain, gizon eta emakume gehienok kutsatu.



**Gualbi**  
asesores

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • [onati@gualbiasesores.com](mailto:onati@gualbiasesores.com) • [www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

# "Espainiako txapelketan aritzea da helburua"

**MIKEL UGARTE TRIATLOILARIA**

Madriren bizi den oñatiarrak distantzia laburreko probetatik distantzia luzeetakora egin du salto. Aldaketara "egokitzen" ari den arren, asteburuan txapeldun izan da

**Maialen Santos OÑATI**

Orain arte, distantzia laburreko triatloiak egiten jardun du Mikel Ugarte oñatiarrak. Madriren bizi da egun, eta aurtengo denboraldian distantzia luzeeko triatloiak egiten hasia da. Talde berria ere badu, Atletico San Sebastianen babes du orain. **Zer egiten duzu Madriren?**

Ikasketekin jarraitzeko asmoz etorri nintzen; biomekanikako doktoretza egiten ari naiz. Bestetik, errendimendu handiko masterra ere banabil egiten, entrenatzaile izateko bidea egin gura dut eta. Ikasketek eta kirolak betetzen dute egunerokoa.

**Kirol arloan, zertan ari zara?**

Aurreko urtera arte, distantzia laburreko probak egiten jardun dut, eta aurten, aldiz, distantzia luzeeko probak egitera animatu naiz. Baina, betiere, triatloiak. **Talde berria ere baduzu...**

Hala da, bai. Saltokin aritu naiz orain artean, baina Atletico San Sebastian distantzia luzeerako taldea sortu guran zebilen eta taldera batzeko proposamena egin zidaten. Nik gustura hartu nuen, egia esan.

**Eta zer moduz daramazu aldaketa?**

Momentuz, gustura ari naiz, eta ilusio handiarekin. Dagoeneko egin dut distantzia luzeeko triatloiren bat eta oso ondo joan da. Hala ere, oraindik egokitzen ari naiz.

**Asteburuan txapeldun izan zara... Zorionak!**

Hala da, eskerrik asko! Distantzia luzeeko duatloian hartu nuen parte, Madrildik gertu -Jarama herrian-. Hamabost kilometro egin nituen korrika lehenengo; gero hirurogei bizikletan, eta amaizteko, beste zazpi kilometro pasa korrika. Eta bai, helmugaratzen lehena izan nintzen. Oso pozik nago.

**Noiz izango da hurrengoa?**

Ezin jakin. Koronabirusa dela eta ez dakigu noiz izango den hurrena; proba asko bertan



Mikel Ugarte triatloian igeri egiteko prest. M.U.

## "SENTSAZIO ONAK DITUT, ETA HORI DA GARRANTZITSUENA; ALDAKETARA EGOKITZEA

behera geratzen ari dira eta. Apirileko lehen hastean Katalunian egotekoa nintzen, baina ez dakit posible izango den. Txantxa moduan diot aste batzuetarako ni izango naizela txapelduna.

**Entrenamenduak nola antolatzen dituzu?**

Ikasketak direla eta nahiko ordutegi nahasia daukat. Arrazoi horregatik, aurten nire kabuz ari naiz dezente entrenatzen. Goizean entrenatzen naiz pixka bat, eta arratsaldean, berriro. Egiten dudanari dagokionez, korrika aritzen naiz, eta igeriketa probaren bat ere egiten dut entrenamendu modura.

**Taldearekin ez zara entrenatzen?**

Ahal dudanean. Errendimendu handiko zentro horretan entrenatu gaitzke, edo bestela, ohikoa izaten da libre dagoen norbaitekin elkartu eta biok batera

entrenatzera joatea. Disponibilitatearen arabera da; nork bere ordutegia baitauka.

**Eta entrenatzaile lanetan ere ari zara?**

Horretarako ikasten ari naizen arren, banabil zerbaitetan. Dagoeneko entrenatzen ditut kirolari batzuk. Denetarik egiten dute: maratoia, distantzia laburrak, luzeak...

**Erronkarik baduzu aurrera begira?**

Momentuz, sentrazio onak ditut, eta hori da garrantzitsuena; aldaketara egokitzea. Hala ere, ekainera begira indartsu egon gura nuke. Salamancan egingo den Espainiako Txapelketan egotea da nire helburuetako bat.

**Herri-minik baduzu?**

Bai, noski! Faltan igartzen dut Oñati bera, baita bertako jendea ere. Baina egia da probetara joateko dezente bidaiatzen dudala, eta probarik ez dudanean nahiago dut Madriren lasai geratu. Halere, gurasoak dezente etortzen zaizkit bisitan.

**Noiz etorriko zara?**

Ziur aski, uste baino lehen. Koronabirusa dela eta egoera okerrera doa Madriren. Agian, probetxatu egingo dut Oñatira joan eta bertan egun batzuk egiteko.

## Dagoeneko eman daiteke izena udalekuetan begirale izateko

Baldintza jakin batzuk bete eta dokumentuak aurkeztu beharko dira. Puntuazioaren arabera aukeratuko dira

**M.S. OÑATI**

Datorren ekainaren 29tik uztailearen 24 bitarte egingo dituzte udaleku irekiak, baita arte udalekuak ere. Bietan izena emateko epea zabalik dago dagoeneko. Hain zuzen, martxoaren 20aren aurretik eman beharko dute izena haurrek zein begirale aritu nahi dutenek; eta azken kargu horretarako baldintza zehatz batzuk bete beharko direla jakinarazi du Udalak. 16 urte beteta izatea, eskola-graduatu izatea eta hirugarren hizkuntza eskakizunaren pareko euskara maila izatea dira batzuk.

**Izen-ematea, HAZen**

Udaletxeko herritarren arretarako zerbitzuan eman beharko dute izena begiraleek, eta zenbait dokumentu aurkeztu beharko dituzte eskaera orriarekin batera: nortasun agiriaren fotokopia,

eskatzen den tituluaren fotokopia, euskara mailaren ziurtagiria, eskaeran aipatutako merezimenak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak eta haurtzarora eta adolezentiaren babes sistema aldatzen duen uztailearen sexu delitugileen Erregistro Zentraletako agiri negatiboa.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak onartu eta argitaratuko dira Udalaren iragarki taulan eta [www.onati.eus](http://www.onati.eus)-en. Onartutakoen zerrendatik baztertuak izan direnek hiru egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Jarraian egingo dira oposizio fasea -euskarazko titulurik ez dutenek euskara proba egin beharko dute-, baita lehiaketa fasea ere; puntuazioaren arabera egingo baitute kontratazioa.

## Kobazuloen XI. eguna Arrikrutzen ospatuko da, domekan

Arrikrutzek Kobazuloen XI. eguna hartuko du, domekan, hilaren 15ean. Lurpea elkarre osatzen duten zortzi haitzuloek antolatutako eguna da. Arrikrutze koba erdi prezioan ikusteko aukera egongo da eta bisitariak zozketa ezberdinetan -nekazalturismo batean gau bat igarotzea, produktu saski bat eta kobak bisitatze 10 bono-

parte hartzeko aukera izango dute.

Kobazuloen egunaren harira, Udalak autobus zerbitzua eskainiko du herritarrek Arrikrutze-ira igo daitezen. Eta domekan, Arantzazura joateko autobus zerbitzua egongo den bezala, zerbitzu hau mantendu egingo da hurrengo asteburuan. Gauzak horrela, martxoaren 19an eta 22an Oñatitik Arantzazura eta Arantzazutik Oñatira joateko autobusa egongo da, baita martxoaren 29an ere.

## Domeka honetan izango da Musika Bandaren kontzertua

Hileroko kontzertua eskainiko du Oñatiko Udal Musika Bandak etzi, martxoaren 15ean. Lehenengo eta behin, kalejira egingo dute Oñatiko kaleetan zehar; 11:00etan hasita, eta horren ostean, 12:45ean ekingo diote kontzertuari. Santa Ana aretoan eskainiko dute emanaldia, eta, betiko legez, sarrera herritarrentzat irekia izango da.

## 'Hansel eta Gretel' antzezlanaren egongo dute hilaren 22an

Datorren astean, martxoaren 22an, 17:00etan iritsiko dira *Hansel eta Gretel* Santa Ana aretoko oholtzara. Borobil antzerki taldearen eskutik, Anartz Zuazuk zuzendutako obra ikusteko aukera izango dute txikienek. Sarrerak dagoeneko salgai daude Txokolatexan, leihatila digitalean eta [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean; 3,50 euroren truke.

# Badator... Udaberrixa



MARTXOAK

21 - 28



**SARIAK**  
zure zain daude

Establezimendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu,  
idatzi [txanda.oinati@hotmail.com](mailto:txanda.oinati@hotmail.com) helbidera

*txanda*  
Euzkadiko Herriak



**OÑATI**  
dabilen herria

*Euzkadi,*  
ayuntamiento, Aste comitè



# Kantari Arrasate: ahots koloretsuek bizi-bizi girotu dute kantuen festa

Aramaioko eta Arrasateko 250 neska-mutiko inguru izan ziren Amaia antzokiko oholtza gainean euskal kantuak abestu eta dantzatzen. Ane Rot abeslariak eta Potx eta Lotx pailazoek ere bat egin zuten artista txiki handien ikuskizunarekin



Izarrak eta Ilargia taldeko partaideak *Zarena zarelako* kantua eskaintzen.



Goizargi taldeko neska abesten.



The Four Crazy taldeko mutila abesten.



Ilargia taldeko neska emanaldian.



Parte-hartzaileak Amaia antzokiko oholtza gainean ikuskizuna eskaintzen.



Betiko Lagunak taldea *Deabrutxo maitea* kantua abestu eta dantzatzen.



Potx eta Lotx pailazoak kantuan.



Parte-hartzaileak *Iñaki* kantua abestu eta dantzatzen.



Euskara Neskak taldeko partaideak talde argazkia ateratzen. ARGAZKIAK: XABIER MARTIN



Katakrat taldeko partaideak Ken Zazpi taldearen *Hel nazazu eskutik* kantua abestu eta dantzatzen.



Onenak taldeko partaideak *Udarako gau luzeak* kantua eskaintzen.



Tiramisuak taldeko neska *Musikaren doinua* kantua abestu eta dantzatzen.



Onenak taldeko neska kantuan.



Tiktokers taldeko partaideak *Aldapan gora* kantua abestu eta dantzatzen.



Ane Rot, gonbidatua, *Ilargia* abesten.



Eguzkilore taldeko partaideak emaldia eskaintzen.



Kantari saioko aurkezleak eta parte-hartzaileak saio baten grabazio amaieran.

# OHARRA

Koronabirusa dela eta, asteburuan **Bergaran** grabatzekoak ziren **Kantari saioak bertan behera** uztea erabaki du Goiena Komunikazio Taldeak, prebentzio neurri moduan.

goiena

7. ALDIA  
**Kantari**  
DEBAGOIENA



Ander Bengoa, iaz, Aramaioko lasterketan; lokatzetan ondo moldatu zen aramaioarra. GOIENA

## Aramaioko Opena azken ordukoaren zain dago

**MENDIKO BIZIKLETA** Domekan Aramaion Euskadiko Openeko bigarren lasterketa egitekoak dira, baina hitzordua kolokan dagoela aitortu dute antolatzaileek: "Federazioko erantzun ofizialaren zain gaude", adierazi du Martin Arriolabengoak

### Xabier Urzelai ARAMAIO

Eguen goizean, Aramaioko Openeko antolatzaileak Federazioko arduradunen erantzun ofizialaren zain zeuden. "Berez, Araban kirol hitzorduak bertan behera utzi dituzte, eta, seguruenik, guk ere halako neurriren bat hartu beharko dugu", adierazi dio GOIENARI Martin Arriolabengoak. Erredakzioa itxi orduko, baina, erabakia ofizialki jasotzeko zuten (azken orduko albisteak, *Goiena.eus* atarian).

Hala, domekan (11:00), koronabirusagatik azken ordukorik ez badago, Euskadiko Openeko egutegiko bigarren lasterketa egingo dute Aramaion. Iaz 130 lagun batu ziren irteera puntuan, eta lasterketa aurrera badoa seguruenik eragina izango du izen-ematean (10:00).

### Ibilbidean aldaketarik ez

Hala, Barajuengo auzoan egiten duten urteroko hitzorduan, ibilbideari dagokionez lasterketak ez du aldaketarik izango; anto-

latzaileek 5.500 metroko zirkuitua prestatu dute, eta desnibel positiboa ez da 200 metrora iritsiko –itzuli bakoitzeko–. Hala, 23 urtez azpikoek eta elitekoek bost itzuli emango dizkiote zirkuituari, master 30ekoek lau itzuli, emakumezkoek, juniorrek eta master 40tik gorakoek hiru itzuli eta kadeteek bi itzuli egingo dituzte. Bi minutuko tarteari itzuloak dira kategoriatan guztiak.

### Debagoienan badira faboritoak

Lasterketari dagokionez, ibarrek hainbat txirrindulari aurrean ibiltzeko hautagaiak dira. Iaz podiumera igo zen Ander Bengoa aramaioarra da horietako bat, urtero ibiltzen da aurreko postuetako *saltsan*; eta aurrean ibiliko da Openeko lehen lasterketan, Erreterian, bigarren sailkatu zen Iker Eskibel.

Eurekin batera ez da erraza aurrez zenbatak esku hartuko duten jakitea, egunean bertan eman ahal izango dute-eta izena, baina Erreterian egon ziren,


esaterako, Iker Senar eta Julen Ibabe aramaioarrak eta Oreka Cycling taldeko Josu Viejo, Ruper Ayala, Harri Anzizar, Josu Urzelai eta Aitor Urrutia. Dorletako Amako Xabi Kortabariak ere lasterketa amaitu zuen, eta baita Argider Isastik ere.

### Openak bost hitzordu

Euskadiko Open barruan egun bost lasterketa daude. Eta Arriolabengoak garbi du erantzuna: "Lehen Nafarroako lasterketak Euskadiko Open barruan zeuden, eta orain aparte antolatzen dituzte. Eta federazioen arteko tira-biraren bat tarteko Bizkaia ere bere lasterketak Euskadiko Openetik kanpo antolatzen ditu".

**"ARABAN, BEREZ, KIROL HITZORDUAK BERTAN BEHERA GERATU DIRA, EA ZER ESATEN DIGUTEN"**


## Aurrean ibiliko diren hautagaiak



ANDER BENGEO SH METALGRAF-EKO ZIKLISTA

### "Pedalei eragiteko zirkuitua da etxekoa"

"Domekan nahiko siku egongo da zirkuitua, haize apur batekin segituan sikatzen da zona hori eta ni lokatzetan hobeto moldatzen naiz. Etxeko lasterketa da eta gustatzen zait bertan parte hartzea, baina ez dut aparteko helbururik. Kontrara, Eskibelek ezetz esango du, baina argi harekin; nire ustez, lasterketa irabazteko borrokan ibil daiteke. Pedalei eragiteko zirkuitua da, aproposa da bere ezaugarriendako".



IKER ESKIBEL GOAT TALDEKO ZIKLISTA

### "Lokatzetan ez naiz horren ondo moldatzen"

"Egia esateko, iaz baino garrantzi txikiagoa ematen nabil Euskadiko Openari, beste helburu batzuekin nabilerako, baina Erreterian zortea izan nuen [bigarren egin zuen]. Lasterketa bi ordu luza zen eta ez zen oso ibilbide tekniko. Ni diesel samarra naiz eta lasterketa luzatzea ondo etortzen zait. Domekan Aramaion ibilbidea siku samar egotea komeni zait niri, lokatzarekin ez naiz ondo moldatzen".



Axi Alonso. GOIENA

## Alonso, Ugarte eta Arregi euskal selekzioarekin

Espainiako Txapelketa hasi zuten atzo, eguena, eta domekara arte lehiatuko dira Cerlerren

### X.U. ARRASATE

Eguenean hasi zuten, Cerlerren, mendiko eskiko Espainiako Txapelketa, eta, azken ordukorik ez badago, txapelketa normaltasun osoz egingo dute: "Gaur [eguna], erreleboetako lasterketa egiten dabilta normaltasunez, baina selekzioko kideek ez dute gaur esku hartuko. Hala ere, astebururako gure ordezkari guztiak normaltasunez lehiatuko dira, egubakoitzetik elkarrekin egongo dira denak etxe batean, antolatzaileek ez digute bestelakorik esan", adierazi dio GOIENARI Federazioko prentsa arduradun Unai Ugartemendiak.

Hala, euskal selekzioko ordezkarien artean egongo dira Axi Alonso oñatiarra senior mailan eta Aitor Ugarte aramaioarra eta Sara Arregi oñatiarra gazte mailan. Alonsok asteburu bete izango du, selekzioko senior mailako taldekide gehientsuenen moduan hiru modalitatetan jardungo du eta. Gaur, egubakoitza, esprintean lehiatuko da, eta bananakoan eta lasterketa bertikalean ere izango da oñatiarra. Eta beste horrenbeste egingo du gazte mailan Sara Arregik.

Ugarte, kontrara, lesio bat tarteko esfortzuak zaintzen dabil eta lasterketa bertikalean soilik lehiatuko da.



Bergarak Beti Gazte hartu behar zuen zapatuan Agorrosinen; gaiak buruhaustea sortuko du txapelketa guztietan. GOIENA

# Kirol jarduera federatuak bertan behera geratu dira

Koronabirusaren eraginez federazioak eta klubak erabakiak hartzen joan dira aste barruan, eta hartutako neurri horiek gogortzen joan dira egunak pasa ahala. Ateak itxita jokatu behar zituzten partidu asko bertan behera utzi zituzten atzo, eguna

## Xabier Urzelai ARRASATE

Datozen hamabost egunetan kirol federatuari dagokionez norgehiagoka guztiak bertan behera utzi dituzte koronabirusaren eraginagatik. Hasiere batean, Espainiako federazio ezberdinak hasi ziren neurri zorrotz hori hartzen, eta ondoren etorri ziren euskal federazioen erabakiak.

Esaterako, LFPk -Liga Futbol profesionala- bi astez futbol partidu guztiak bertan behera uzteko erabakia hartu zuen - eguaztenean Eibarrek eta Realak Ipuruan ateak itxita jokatu zuten-, eta beste horrenbeste egin zuten Euskadiko Futbol Federazioak. Baina horiek Hirugarren Mailarainoko eskumena dute, lurralde mailan Gipuzkoako federazioek dute eskumena, eta horiek Diputazioaren menpe daude. Bada, Gipuzkoako Federazioaren eta Diputazioaren erabakiaren zain egon dira klubetako ordezkari eta kirolari asko: "Eguaztenean izandako

batzarrean ez zen halako erabaki zorrotzik hartu, asmoa zen jardunaldiak normaltasunez jokatzeko, nahiz eta Reala, esaterako, partiduak bertan behera uztearen aldekoa zen", dio Mondrako ordezkari Ramon Azkarete. "Zenbait klubek, gainera, euren kabuz ere hartuta zuten euren taldeek partidurik ez jokatzeko erabakia".

Baina 24 orduan egoera erabat irauli zen, eta atzo, eguna, eguerdian ostera ere Diputazioordezkariekin batzartu ziren; hor bai, hamabost egunez partiduak bertan behera uzteko erabakia hartu zuten, eta horrekin batera, entrenamendu saiorik ez egiteko gomendioa ere eman zuten.

## EGUEN GOIZEAN HARTU ZUTEN ERABAKIA DIPUTAZIOAK ETA FEDERAZIOEK

## Ateak itxita ere ez

Baina aste zoroa izan da klubetako eta federazioetako ordezkariendako. Saskibaloian, esaterako, EBA kategorian MUK eta Baskoniak domeka arratsaldean Iturripen jokatu beharreko partidua ateak itxita izan behar zen. Eta ordu gutxitara etorri zen aldaketa, saskibalo partidu guztiak ere bertan behera utzi zituzten.

Eta gauza antzerakoa gertatu zen, baita ere, Bergaran egin beharreko kirol jarduerekin. Aste barruan erabaki zuten partiduak ateak itxita jokatzeko, atzo Federazioaren oharra jaso zuten arte: "Pilotako entrenamendu saioak bertan behera utzi ditugu, eta baita asteburuko norgehiagokak ere. Eta horrekin batera, martxoaren 17an jokatzekoak ginen Soraluze lau eta erdiko txapelketako finala ere atzeratu egin dugu", dio Julen Aranburuk. Zenbait adibide baino ez dira, baina denei eragin die berdin-berdin.

## Bertan behera Galeano ahizpek jokatu beharreko finalerdiak

**PILOTA** Zapatuan ziren jokatzekoak, Elgoibarren, Emakume Master Cup txapelketako norgehiagokak

## X.U. ARRASATE

Pilota goxoko kategorian Emakume Master Cup txapelketako finalerdiak jokatu behar zituzten bihar, zapatua, Elgoibarren, baina koronabirusa dela-eta partiduak bertan behera utzi dituzte. "Erakundeek koronabirusaren inguruan emandako aholkuei eta eginbeharrei jarraituz, erabakia arduragatik eta pilotari eta pilotazaleen hobe beharrez hartutakoa da", adierazi dute antolatzaileek.

Hala, finalerdietako batean Nagore Galeano eta Leire Galeano ahizpa antzuolarrak daude, eta Eneritz Arrietaren eta Amaia Jakaren kontrako jokatu behar dute zeingehiagoka hori.

## Arrate Bergara, kanpoan

Bestalde, txapelketa borobila egin eta gero, pilota mistoko finalerdiak kanpo geratu da Arra-



Galeano pilota astitzen. IMANOL SORIANO

te Bergara pilotaria, joan den astean Amaia Aldairekin batera 22-11 galdu zuten eta Olatz Arrizabalagaren eta Gentzane Aldairen kontra. Bizkaitarrek hasieratik hartu zuten abantaila, eta Arrizabalagak hasieratik egin zuen partidu ona.

**EUSKADIKO XCO-OPEN**

**ARAMAIOKO XIII. BTT SARI NAGUSIA 2020**

**Martxoak 15, Igandea**

**INFORMAZIOA**

ZIRKUITUA ETA HELMUGA  
Azkoaga - Barajuen

KATEGORIAK ETA IRTEERA

11:00 Elite, Sub-23  
11:02 Master 30, Junior  
11:04 Kadeteak, Neskak, Master 40

IZEN-EMATEA  
10:00etan Azkoagan

**ANTOLATZAILEAK**

**LAGUNTZAILEAK**

gokiena

# "Orain arte, gutxienez 15.000 euro galdu ditut"

LEO BASSI UMORISTA

Eskozap elkarteak gonbidatuta martxoaren 22an Amaia Udal Antzokian izan behar zen Leo Bassi, baina koronabirusa dela eta bertan behera utzi behar izan dute

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE 2018an izan zen azkenekoz Arrasaten; orduan ere, Eskoriatzako talde zapatistak antolatutako ekitaldia izan zen, eta itzultzeko gogotsu dago, baina Covid 19-aren bilakaera eta horren eraginez egunetik egunera murrizketak daudela ikusita, atzeratzea adostu dute artistak eta antolatzaileek.

**Zelan zaude?**

Egoera oso arraroa da; bizitza osoa daroat ogibide honetan eta sekula ez dizkidate horren denbora gutxian horrenbeste ekitaldi bertan behera utzi. Jendea beldurrez sumatzen dut kalean, eta nire barruan sentitu dut ausarta izan eta emanaldiekin aurrera egiteko desioa, baina uste dut horren gainetik dagoela osasun arloko arduradunek agindutako protokoloari men egitea. Publikoarekiko izan behar dudana erantzukizuna guztiaren gainetik dago, eta oso kontzientea naiz horrekiko.

**Arrasatekoaz gainera, dagoeneko ikuskizun asko galdu dituzu, ezta?**

Hala da, bai; Arrasateko emanaldiaren bezperatan Logroñon nituen laurak, batetik, aurrez Italian nituen beste hiru emanaldi ere bai...

**Zer galera ekarriko dizu horrek guztiorrek dirutan?**



Leo Bassi umoristaren Arrasateko emanaldia bertan behera utzi dute. LEO BASSI

**"2008AN BANKUEI DIRU PUBLIKOAREKIN LAGUNDU ZIETEN, BAINA EZ DUT USTE GURETAKO DAGOENIK"**

Orain arte, gutxi gorabehera, 15.000 euroko galera. Apirilean Alemanian eta Kanariar irletan ditut saioak lotuta, eta une honetan Madrilgo antzokiak itxita daude; hortaz, ikusi egin behar hemendik aurrera...

**Eta zer diote zure lagun-artistek?**

Lur jota daude; ni moduan, lagun gehienak langile autonomoak dira, hau da, ikuskizunetatik bizi gara, horietatik jaten dugu; nik, zorionez, ibilbide luzea dudanez, ez nago beste batzuk besteko egoera larrian.

**Zerbait egiterik baduzue? Konpentsatzeko modurik ikusten duzue?**

Ez dut artistendako dirulaguntza posiblerik aurreikusten. 2008an, diru publikoarekin lagundu zitzaien bankuei, eta orain, uste dut eurei dagokiela beste guztioi laguntzea, baina ez dut

uste horretarako prest egongo direnik. Konpainia txikia da nirea, baina lantalde bat dut eta eurei dirua aurreratzeko prest nagoela adierazi diet; izan ere, uste dut bertan behera geratu diren emanaldiak berriz ere programatuko dituztela.

**Arrasatera etorriko zara, ezta?**

Bai, duda barik, ari gara data berri bat lotzeko berbetan. 2018ko emanaldiko oroitzapen oso onak ditut; eta gainera, Mexikoko Chiapasi laguntzeko helburua du emanaldi horrek, eta nik ahal dudana guztietan bat egiten dut halako helburuak dituzten elkarteekin.

**Euskal publikoa maite duzula esan izan ohi duzu sarritan.**

Bai, hala da; oso gustuko dut Euskal Herrian antzeztea. Ezagutzen zaituztet eta gustatzen zait, orokorrean, zuen izaera. Arrasatekoaz gainera, Bilbon ere baditut pare bat emanaldi uztaileko lotuta, eta oso pozik joango naiz, koronabirusak ez banau lehenago akabatzen.

**Zure ikuskizunerako hurrengo gidoia koronabirusari buruzkoa izango dela uste duzue?**

Ematen du, bai, gaiak gidoi baterako; kar, kar, kar. Kaleko gizona naiz eta kalean zer ikusten eta entzuten dudana aintzat hartzen dut, baina ikusiko dugu; oraingoz, *Yo Mussolini*-rekin jarraituko dut, ederra da eta!

**Italiarra zara; arduratuta zaude hango egoerarekin?**

Hala nago, bai, bereziki, gaixotasun honek azpimarra jartzen duelako herrialde horrek aurrez dituen arazoetan, biztanleria oso zaharra du orokorrean; azken hamarkadetan jaiotza-tasa oso baxua da, eta gazte gehienek, gainera, atzerrira joan beharra dute lan bila. Nire gertukoak ondo daude, zorionez; guztiak.

**Bertan behera utzi dute datorren asteko opera emanaldia**

Ozenki elkarteak antolatuta *La cavalleria rusticana* opera zegoen Amaia antzokian maiatzaren 17rako iragarrita, baina atzo, eguena, jakinarazi zuen elkarteak emanaldia bertan behera utzi dutela: "Uste dugu halako ikuskizun bat eskaintzeko emozio eta bereziki osasun baldintzak ez direla betetzen; hortaz, data berria zehaztu barik oraindik, atzeratzeko erabakia hartu dugu, Osasun Sailak emandako gomendioak jarraituz".

Ozenki elkartekoek azaldu dute laster jakinaraziko dutela sarrerak erosi dutenek dirua berreskuratzeko moduak. Informazio gehiagorako, idatzi [Ozenkielkartea@hotmail.es](mailto:Ozenkielkartea@hotmail.es) helbidera.

**Huhezinema jaialdia atzeratzea erabaki dute antolatzaileek**

Martxoaren 25etik 27ra ziren MUko Ikus-entzunezkoen Fakultateak antolatzen duen Huhezinema euskarazko film laburren jaialdia egitekoak, baina koronabirusarekin lotutako babesneurriak direla eta jaialdi presentzialik ez egiteko erabakia hartu zuten atzo, eguena.

Antolatzaileak hainbat aukera ari dira aztertzen: aurrez iragarritako jaialdiaren datak errespetatuta *online* egitea ala maiatzera atzeratzea aurtengoa, hau da, hamahirugarren jaialdia; data horretan egiteko erabakia alde eginez gero, hiru eguneko egitaraua modu presentzialean edo *online* egingo duten zehaztuko dute geroago.

GOIENA TELEBISTA  
UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

# FUN DANTZ!

GOIENA TELEBISTA, KALEKO DANTZEN LEHIAKETA  
MARTXOAREN 14AN, ZAPATUAN, 15:30EAN, 18:30EAN ETA 23:00ETAN  
MARTXOAREN 15EAN, DOMEKAN, 12:00ETAN ETA 21:30EAN

goiena  
Zu hemen zaude.





Anti film laburra. EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA



Gau beltza film laburra.



Harria herria film laburra.



Jauzi bat eta Prixt film laburra.




Kateak film laburra.



Mamarro film laburra.



Pil pil film laburra.



Tigre bat film laburra.



Urak dakarrena film laburra.

# Euskarazko film laburren emanaldiak herriz herri

Euskaltzaleen Topagunearen Laburbira zirkuitu ibiltariak Debagoieneran lau geltoki izango ditu: Arrasaten, Antzuolan, Bergaran eta Oñatin.. Bederatzi lan eskainiko dituzte; horien artean, zine jaialdi garrantzitsuetan saritutako film laburrak daude

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Hamazazpigarren aldia da, eta hastapenetako helburuekin jarraitzen du: euskarazko film laburrak herriz herri eramatea, sortzaile berriei ere tokia eginez. "Ikus-entzunezkoen urrezko denboraldiak argi erakusten du euskarazko lanen kalitatearen gorakada, eta, beste urte batez, Laburbira honen erakusgarri izango da", dio Laburbirako antolatzaile Johana Olabarriak.

**Bederatzi laneko bilduma** 27 lan aurkeztu dira, eta bederatzia sartu dituzte bilduman: *Gau beltza* (Euskaltzaleen Topagunea); *Urak dakarrena* (Marilin taldea); *Anti* (Josu Martinez); *Tigre bat* (Amaia San Sebastian); *Pil pil* (Kristina Zorita); *Mamarro* (Ibon Iza Totorika); *Kateak* (Yolanda Mazkiaran); *Jauzi bat eta Prixt* (Maitane Eyheramonho) eta *Harria herria* (Dimegaz Kultur elkarte).

**Debagoieneran lau emanaldi** 33 herritan eskainiko dute, kanpoan ere bai: Londresen, Parisen, Valladoliden eta Valentzian. Arrasaten martitzenean egin behar zuten baina koronabirusaren babes-neurriengatik atzeratu egin dute. Antzuolara martxoaren 24an eskaintzea da asmoa, eta *Harria Herria* filmeko Janire Etxabe zuzendaria izango da han. Bergaran izango da hurrengoa, eta Oñatin, azkena.

## Liburu aurkezpena, afaria eta musika Tapoifest jaialdian

Gaur eta bihar egingo dute, 18:30ean hasita, kartzela zaharrean; 'DUT' liburua eskuetan hartuta ekingo diote

**A. Aranburuzabala** BERGARA Iaz azaroan argitaratu zuen Pablo Salgado Mendezek -Banizu Nizuke argitaletxearekin- 90ko hamarkadan Euskal Herrian post-hardcore doinuen ikur izan zen DUT taldeari buruzko liburu.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean izango da Xabi Strubell -DUT taldeko kidearekin- batera. Bien artean liburuaren aurkezpena egingo dute, eta taldearen argitaratu gabeko materiala ikusi eta entzuteko aukera

izango da. Ondoren, afaldu egingo dute -ez da aurrez izena eman behar-, eta, musika saioa gero, Keep\_a-ren eskutik.

**Bihar, bost talderen kontzertuak** 19:00etan, afari meriendarako proposatu dute biharko lehen hitzordua; eta ondoren bost talde izango dira taularen gainean: Erruki jauna; Dizerdit; Horzdun; Blood brothers eta Oñatiko Broken legacy; eta DJ Mugu-k hartuko du lekukoa gaztetxea musikarekin girotzen jarraitzeko.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko martxoko sariak!

#### Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Internet Merkatarietza produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzailoen artean egingo da zozketa.

Indarrezko lege (LPI) 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dugu, zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Taldearen bitartez automatikoki tratatu ahal izango direla. Datu horien helburua buruzko datu erabileraren zuzeneko gaitasuna eskaintzea da. Datu horien erabilera buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu, zure datu pertsonalaren erabilera buruzko informazioa eskaintzen dugun dokumentuak irakurri eta onartu behar dituzu. Gure datu pertsonalaren erabilera buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu, zure datu pertsonalaren erabilera buruzko informazioa eskaintzen dugun dokumentuak irakurri eta onartu behar dituzu. [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako otordua

### TABERNA BERRI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



KLUBA Jafetxea

[barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Bergarako Udaleri esker

'Sofari' haur antzerkirako sarrerak ditugu

Bergara | Seminarizoa | Martxoak 21 | 18:00etan

#### PARTE HARTZEKO:

E-posta: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "Sofari" [barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzailoen artean egingo da zozketa.

Indarrezko lege (LPI) 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dugu, zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Taldearen bitartez automatikoki tratatu ahal izango direla. Datu horien helburua buruzko datu erabileraren zuzeneko gaitasuna eskaintzea da. Datu horien erabilera buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu, zure datu pertsonalaren erabilera buruzko informazioa eskaintzen dugun dokumentuak irakurri eta onartu behar dituzu. Gure datu pertsonalaren erabilera buruzko informazioa eskaintzen dugun dokumentuak irakurri eta onartu behar dituzu. [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€

Deitu: 943 25 05 05

[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



OROIGARRIA

## Miriam Arregi Ortiz de Luzuriaga


2020ko martxoaren 8an hil zen, 33 urte zituela.

*Plazer bat izan da zu ezagutzea, eredugarria erakutsi duzun indarra eta kemena, gure bihotzetan eramango zaitugu, Miriam.*

Nandrollyko lagunak.  
Oñatin, 2020ko martxoaren 13an.



OROIGARRIA




## Zorione Arana Abarrategi

2019ko martxoaren 15ean hil zen.

*Zure izena gure buruan, zure oroitzak gure bihotzean.*

Zure kuadrilla.  
Arrasaten (Garagartza), 2020ko martxoaren 13an.



OROIGARRIA

## Zorione Arana Abarrategi

2019ko martxoaren 15ean hil zen.

*Inoiz minak irensten bazaitu, beti irriz oroitu nazazu ez da hilko eusten nauen arrazoi bakarra ez da hilko maitasuna.*

Arrasaten, 2020ko martxoaren 13an.



OROIGARRIA

## Amparo Etxaniz Unzueta

—Goian bego—

2020ko martxoaren 8an hil zen, 85 urte zituela.

*Argi bat itzali da hemen lurtean. Berri bat piztu da, han, zeru ederrean. Beti jarraituko duzu gure bihotzean.*

Zure ilobak. Etxaniz familia.  
Arrasaten, 2020ko martxoaren 13an.



ESKER ONA

## Amparo Etxaniz Unzueta

—Goian bego—

2020ko martxoaren 8an hil zen, 85 urte zituela.

Haren senarra: Vicente Mendiarratx. Semea: Iñigo. Bilobak: Iker eta Alaitz. Anai-arrebak: Katalin (Paco Iraegiren alarguna), Fernando eta Mari Kontxi Arrieta. Eta gainerako senideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko martxoaren 13an.



URTEURRENA

## Faustino Garcia Alonso

2019ko martxoaren 20an hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2020ko martxoaren 13an.



ESKER ONA



## Timotea Beitia Irasuegui

Blas Lopez de Bergararen alarguna

2020ko martxoaren 7an hil zen, 89 urte zituela.

*Zurekin pasatako momentu goxoak eta zuregandik ikasitakoak beti izango ditugu gure bihotzetan. Gurekin betirako.*

Eskerrik asko babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza domekan izango da, martxoaren 15ean, 12:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.  
Arrasaten, 2020ko martxoaren 13an.



ESKER ONA


## Juan Cortabarría Zulueta

2020ko otsailaren 26an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 14an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko martxoaren 13an.



HILDAKOAK

**Feli Pastor Rivera.** Bergaran, otsailaren 27an.  
**Bernardo Madariaga Alberdi.** Bergaran, 27an. 86 urte.  
**Maria Angeles Iregi Bidaburu.** Eskoriatzan, otsailaren 27an. 92 urte.  
**Juan Maria Palomo Sanchez.** Arrasaten, otsailaren 28an. 75 urte.  
**Anastasia Sanchez Alonso.** Bergaran, 28an. 93 urte.  
**Kepa Markaide Armendariz.** Eskoriatzan, otsailaren 28an. 56 urte.  
**Vicente Urrutia Galdos.** Arrasaten, 29an. 89 urte.  
**Margarita Perez Romero.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 87 urte.  
**Tomas Anton Rodriguez.** Arrasaten, hilaren 2an. 76 urte.  
**Mikel Balenciaga Errasti.** Arrasaten, hilaren 4an. 60 urte.  
**Alfredo Alonso Santamaria.** Arrasaten, hilaren 4an. 89 urte.  
**Migel Kortabarría Mendizabal.** Oñatin, martxoaren 5ean. 85 urte.  
**Bizenta Uribe-Etxeberria Azkarate.** Bergaran, martxoaren 6an. 94 urte.  
**Juan Urtunzaustegi Lansorena.** Arrasaten, martxoaren 7an. 78 urte.  
**Nieves Jurado Zafra.** Arrasaten, martxoaren 7an. 96 urte.  
**Timotea Beitia Irasuegui.** Arrasaten, hilaren 7an. 89 urte.  
**Jose Inazio Gorroño Egaña.** Bergaran, hilaren 7an. 75 urte.  
**Amparo Etxaniz Unzueta.** Arrasaten, hilaren 8an. 85 urte.  
**Maria Angeles Balanzategi Altuna.** Arrasaten, martxoaren 8an. 78 urte.  
**Miriam Arregi Ortiz de Luzuriaga.** Oñatin, martxoaren 8an. 33 urte.  
**Juan Maria Plazaola Zinkunegi.** Oñatin, martxoaren 9an. 83 urte.  
**Lorenzo Moldon Ferrero.** Bergaran, martxoaren 10ean.  
**Pablo Lopez Oianguren.** Arrasaten, martxoaren 11n. 86 urte.

BABESLEA

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

GUARDIAKO FARMAZIAK

<b>ARRASATE EGUNEZ</b>	
Egubakoitza, 13	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 14	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Domeka, 15	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 3
Astelehena, 16	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 17	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguaztena, 18	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguena, 19	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
<b>BERGARA EGUNEZ</b>	
Egubakoitza, 13	URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 14	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 15	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 16	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 17	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 6
Eguaztena, 18	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 19	URRITIKOETXEA: Orxondo plaza 4 / 943 76 11 74
<b>OÑATI EGUNEZ BAKARRIK</b>	
Egubakoitza, 13	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 14	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 15	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 16	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 17	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 18	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 19	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

**ARRASATE GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)  
2020ko abuztuaren 31ra arte:  
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

**BERGARA GAUEZ EGUNERO**  
(22:00etatik 09:00etara)  
2019 osoan:  
ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: **QOF** Gipuzkoako aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Bergarako emakume artistak**

Laugarren urtez jarraian, herriko artisten lanak protagonista diren erakusketa antolatu dute Martxanerek, Martxoaren 8aren bueltan. Oraingoan, *Amalurra. Emakume artisten erakusketa* izena jarri diote eta lau azpigai jorratu nahi izan dituzte: lur-eremua, migrazioa, emankortasuna eta materia. Artistak egon ziren erakusketaren lehen egunean.

**2. Emakume artisauen lanak**

Martxoaren 8ari begira Oñatiko emakumeen artisau azoka egin zuten aurreko zapatuan Oñatiko gaztelekuan. Belarritakoak, ukenduak, poltsak, lepokoak, panpinak eta beste hainbat gauza ipini zituzten ikusgai eta salgai. Oihalarekin, larruarekin, metalarekin, belarrarekin eta beste material batzuekin egindako produktuak ziren.

**3. Martxoaren 8arekin bat**

Mondragon Assemblyko pertsona guztiak berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko asmoz, Aretxabaletako bulegoetan lan egiten duten pertsona guztientzako askotariko jarduerak egin dituzte martxoaren 2tik 6ra: hitzaldiak, kafea hartzeko uneak, testigantzak jasotzeko ekintzak... Talde argazkia egiteko ere aprobeztatu zuten.

**4. Trialsin txapelketa ikusgarria**

Aretxabaletan jokatuko Gipuzkoako trialsin txapelketak akrobazia ikusgarriak utzi zituen aurreko zapatuan. Euriari aurre eginez, parte-hartzaileak ez ziren kikildu, eta askotariko ariketak egin zituzten. Kamioien erruberak, edukiontzia, harrizko blokeak... Horien guztien gainetik ibili ziren, ahalik eta puntu gehien lortzeko.

**5. Bideoklip berria**

Brigade Loco taldeak Elgetako Espaloian aurkeztu zuen bere bideoklip berria, primizian. Aretoa lepo bete zen *Ez dira pasako lana* ezagutzeko. Taldeko kideek aurkezpen hitzak esan zituzten, eta ostean erakutsi zuten Elgetako lubakietan Dani Sanchezekin grabatutako bideoa. *Making of-a* ere erakutsi zuten.

## ZORION AGURRAK



**BERGARA**  
**Narel Jauregi**  
Martxoaren 17an, 9 urte. Zorionak, Narel! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi-handi bat, familia osoaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Sara Garcia Borrego**  
Martxoaren 17an, 7 urte. Zorionak, Sara! Ondo ibili zure egunean! Besarkada estu bat familia osoaren eta, batez ere, aitaita-amamen partetik!



**BERGARA**  
**Julen Ortiz Tejada**  
Martxoaren 16an, 6 urte. Zorionak, Julen! Sei urte betetzen ditu etxeko txapeldunak. Primeran ospatuko dugu! Patxo erraldoi bat, etxekoaren partetik.



**ARRASATE**  
**Uxue Belategi Galdos**  
Martxoaren 16an, 3 urte. Zorionak, artista! Heldu da espero zenuen eguna. Besarkada bat familia osoaren partetik eta patxo erraldoia, Goiatzen eta Maddiren partetik.



**ARRASATE**  
**Markel**  
**Bereziartua Zabala**  
Martxoaren 15ean, 7 urte. Zorionak, artista! Zazpi urte honezkero. Denbora ihesi doala! Segi bizitzaz gozaten eta gure bihotzak alaitzen, Markel!



**ARRASATE**  
**Laia**  
**Agorria Lumbreras**  
Martxoaren 15ean, urtebete. Zorionak, Laia! Ze azkar pasatu dan urtetxo bat! Muxu handi bat, batez ere Xabiren, Juneren eta Lideren partetik!



**BERGARA**  
**Helene Sanchez**  
Martxoaren 15ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo ospatu zure eguna! Patxo handi bat etxeko guztion, eta bereziki, Haizearen partetik.



**BERGARA**  
**Libe Unamuno Lete**  
Martxoaren 15ean, 4 urte. Zorionak, maixkia! Egun politxa pasatu. Muxu potolo-potolo asko, danon partetik.



**IDIAZABAL**  
**Irai Zabaleta Urteaga**  
Martxoaren 14an, 2 urte. Zorionak amama, aitona, tia Leire, aita-amak eta Ekaintxoren partetik! Muxu potolo bat!



**ARETXABALETA**  
**Jasone Zabala Ibarra**  
Martxoaren 14an, 41 urte. Zorionak, amatxo, zure urtebetetzean. Oso ondo pasatu biharko eguna. Muxu bat etxeko guztien eta, batez ere, asko maite zaituen Inarren partetik.



**ARRASATE**  
**Laia**  
**Aranzabal Larraza**  
Martxoaren 13an, 2 urte. Zorionak, maixkia! Egun polita izan eta oso ondo ospatu familixarekin. Asko maite zaitugu. Patxo erraldoi bat!



**ARETXABALETA**  
**Noa Olivenza Iturricastillo**  
Martxoaren 12an, 8 urte. Zorionak, *guapi!* Musu asko, familia osoaren partetik! Ondo-ondo pasatu zure egunean!



**OÑATI**  
**Naia Intxausti eta Maiane Barrena**  
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunian. Besarkada bana familia danaren partetik.



**ARRASATE**  
**Xabi Andres**  
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak, pototo! Bost urtetxo jada! Handi egin zara! Jarrai ezazu zure kapa magikoaz eta zure superpotereekin gure bizitzak alaitzen!



**OÑATI**  
**Edurne Iciar Garcia**  
Martxoaren 11n, 6 urte. Zorionak, Edurne! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat, etxeko guztion partetik!



**ARETXABALETA**  
**Maddi Nuñez**  
Martxoaren 10ean, 5 urte. Zorionak, Titi! Pila bat maite zaitugu. Mua!



**ARETXABALETA**  
**Unai**  
**Idigoras Gonzalez**  
Martxoaren 10ean, 2 urte. Zorionak, Unai! Patxo handi-handi bat.



**BERGARA**  
**Hugo Davila Simon**  
Martxoaren 10ean, 7 urte. Zorionak, Hugo! Oso ondo pasatu zure egunean. Asko maite zaitugu. Aitaxoren eta amatxoren partetik.



**ANTZUOLA**  
**Maddi Acosta Seguro**  
Martxoaren 9an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Egun edarra pasatu! Muxu pila-pila bat, etxeko guztion, eta bereziki, Pauleren partetik.



**ARRASATE**  
**Ane Etxebarria Alzola**  
Martxoaren 9an, 3 urte. Zorionak, Anetxo! Ederto ospatu zure eguna, barre, jolas eta abesti artien! Asko maixe zaitxugu!



**ESKORIATZA**  
**Aner Orobengoa Nevado**  
Martxoaren 8an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Jarraitu halako alai eta jator. Besarkada bat etxeko guztien partetik.



**OÑATI**  
**Unai Sanchez Gomez**  
Martxoaren 7an, 6 urte. Zorionak, Unai! Oso ondo pasatu zure eguna! Segi horrela. Maite zaitugu. Familiaren partetik. Muxu asko!



**ARRASATE**  
**Nahia Rodriguez Baena**  
Martxoaren 7an, 4 urte. Zorionak, *prexioxa!* Patxo erraldoi bat lbairen, Jonen, Maireren eta familia osoaren partetik.



**ANTZUOLA**  
**Intza Lizarralde**  
Martxoaren 6an, 3 urte. Zorionak, politx hori! Milaka muxu etxeko eta lagun guztien partetik!



**ARRASATE**  
**Maialen Fernandez Bellido**  
Martxoaren 5ean, 4 urte. Zorionak, *pitxina!* Gure etxeko altxor txikiak lau urtetxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo erraldoia!



**OÑATI**  
**Malen Diaz Agirregabiria**  
Martxoaren 4an, 10 urte. Zorionak, Malen. Familia osoaren partetik, patxo handi bat. Ondo pasatu eguna!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Asteleheneko 10:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENeko EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 13

**ELGETA Erraldoiak egiteko tailerra**Laugarren saioa (bertan behera).  
*Ludotekan, 17:00etan.***ELGETA 'Ipuinen ordua'**17:00etan, LH-3tik aurrerakoak;  
17:30ean, 5 urteko gelatik  
gorakoak; eta 18:00etan, 2-3  
urtetik aurrerakoak.  
*Liburutegian.***ESKORIATZA Sexualitate tailerra**Gaztetxoendako.  
*Gaztelekuan, 17:00etan.***ESKORIATZA Kanpo jolasak**Umeendako.  
*Ludotekan, 17:30ean.***OÑATI Hilerokoari buruzko tailerra**Kuboko eta topalekuko  
erabiltzaileendako (bertan behera).  
*Gaztelekuan, 18:00etan.***ARRASATE 'Scape room' saioa**Gaztetxoendako (bertan behera).  
*Erdiguneko gaztegunean,  
18:30ean.***ARAMAIO 'Feminismo negro' hitzaldia**Manuel Iradier elkartearen eskutik.  
*Kultura etxean, 18:30ean.***BERGARA 'Dut' liburuaren aurkezpena**IX. Tapoi Fest jaialdiaren baitan,  
Pablo Salgado idazlearekin.  
*Gaztetxean, 18:30ean.***ARETXABALETA Pirritx, Porrotx eta Marimotots***Bizi dantza ikuskizuna (bertan behera).*  
*Ibarra kiroldegian, 18:30ean.***OÑATI 'Varados' pelikula**Elena Tabernaren pelikula, Hotz  
Oñatiren eskutik.  
*Kultura etxean, 19:00etan.***BERGARA 'Egia bat: Bergara ezkeriar eta abertzalearen historia' dokumentala**Ahaztu Barik elkartearen lehen lana.  
*Seminarixuan, 20:00etan.***OÑATI 'Preso baten kartzelako bizipenak' solasaldia**Presoen aldeko elkarretaratzearen  
ondoren.  
*Gaztetxean, 20:00etan.***ARETXABALETA Bertso afaria**Nerea Elustondo eta Nerea Ibarzabal  
bertsotan.  
*Hibai Gain elkarte, 21:00etan.***ARRASATE Serge bakarlaría**Sergio Ruiz Txabarrik bakarkako  
lehen lana aurkeztuko du.  
*Taupan, 22:00etan.*

## ZAPATUA 14

**ELGETA Erraldoiak egiteko tailerra**Laugarren saioa (bertan behera).  
*Ludotekan, 10:00etan.***LEINTZ GATZAGA 'Gatz egile egun batez' tailerra**Egurra bildu, egurraren jatorria  
ezagutu, sua egin, Gatz museoa  
ezagutu, gatz koloreztatu... Izena  
aurrez eman behar da 943-79 64  
63 telefonoan.  
*Gatz museoan, 10:30ean.***OÑATI Hotz Oñati**Informazio eta salmenta mahaia  
ipiniko dute.  
*Foruen plazan, 11:00etan.***ARAMAIO 'Hilekoa gorria ote?' erakusketa**Martxoaren 8aren harira.  
*Sastiñan, 12:00etan.***OÑATI Newroz Eguna**Kurdistanen ospatzen den egunaren  
inguruko solasaldia egingo dute.  
Hango jakiak egongo dira.  
*Gaztetxean, 17:00etan.***ARRASATE Haziekin poltsa beroak egiteko tailerra**Gaztetxoendako (bertan behera).  
*Erdiguneko gaztegunean,  
18:00etan.***BERGARA 'Amalurra' erakusketa**Bergarako emakume artistek  
egindako lanak ikusgai, hilaren 29ra  
arte.  
*Aroztegin, 18:00etan.***ANTZUOLA 'Erradikalak ginen' ikuskizuna**Ane Labaienekin eta Beatriz  
Egizabalekin (bertan behera).  
*Torresoroan, 19:00etan.***ESKORIATZA Bertso afaria**Jokin Uranga eta Iker Zubeldia  
bertsotan.  
*San Migel merenderoan, 20:30ean.***BERGARA Dizerdit, Horzdun, Broken Legacy, Erruki Jauna eta Blood Brothers taldeak**IX. Tapoi Fest jaialdia. Sarrerak,  
bost euro. Aurretik, 19:30ean,  
afari-merienda beganoa.  
*Gaztetxean, 20:30ean.*

## DOMEKA 15

**OÑATI Aralar mendikatera irteera**Guardetxe-Hirumugarrieta-Larraitze  
ibilaldia egingo dute.  
*Postetxean, 07:00etan.***OÑATI Koben Eguna**Gaur Arrikruzteko bisitak, erdi  
prezioan. Izena, aurrez, 943-08 20  
00 telefonoan.  
*Arrikruzten, 10:00etan.***OÑATI Oñatzen harrobia***Altxorraren bila* jolasa, dantzak eta  
talde argazkia (bertan behera).  
*Foruen plazan, 10:00etan.***OÑATI Zuhaitz Eguna Aloñako Lagunekin**Aloñako Lagunak taldearen eskutik.  
*Unaimendin, 10:00etan.***ARRASATE 'Ekintzailatza eta zaintza lanak'**Maria Teodocia Juncayk gidatutako  
saioa (bertan behera).  
*Emakume txokoan, 10:00etan.***ARRASATE 'Bedoñako altxor ezkutak' bisita**Santa Eulaliara bisita eta ondoren,  
auzoko txakolina dastatzeko aukera.  
*Bedoñan, 11:00etan.***ARAMAIO 'Hilekoa gorria ote?' erakusketara bisita gidatua**Ainhoa Aldazabalekin.  
*Sastiñan, 12:00etan.*

LA COMPANIA DEL KRISOL

**BERGARA 'Yo nunca' antzerkia**La Compañía del Krisol taldeak gizartean sexuak duen pisuaz eta adiera  
ezberdinez hausnartzeko sortutako antzezlan, gaztelaniaz. Porno,  
bortxaketaren kultura, familia, sexua... Sarrerak, zortzi euro.  
*Bihar, zapatua, Seminarixuan, 19:00etan.***OÑATI Musika bandaren kontzertua**Debalde.  
*Santa Anan, 12:45ean.***BERGARA Txistulari bandaren emanaldia**Debalde.  
*Udaletxean, 13:00etan.***ARRASATE 'Familian jolasean'**8 urte artekoendako ekintzak  
(bertan behera).  
*Okendoko ludotekan, 17:30ean.***ARRASATE Haziekin poltsa beroak egiteko tailerra**Gaztetxoendako (bertan behera).  
*Erdiguneko gaztegunean,  
18:00etan.***OÑATI Sophia Moralesen erakusketa**Argazki erakusketa zabalduko du  
gaur. Hilaren 29ra arte egongo da  
ikusgai.  
*Kultura etxean, 18:00etan.***ARRASATE Bakarrizketa saioa**Kaitin Allenderen saioa, debalde.  
*Irati tabernan, 19:00etan.***BERGARA Ekhiñe bakarlaría**Kartzela zaharreko haur eta guraso  
asanbladak antolatuta. Debalde.  
*Kartzela zaharrean, 18:00etan.***ARAMAIO 'Carmen y Lola' pelikula**Martxoaren 8ko egitarauaren  
barruan.  
*Kultura etxean, 19:00etan.***ARRASATE 'Simplicissimus' kabareta**Tartean Teatro taldearen antzezlan  
(bertan behera).  
*Amaitz antzokian, 19:30ean.*

## ASTELEHENA 16

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.***ARETXABALETA 'Erretratuak' erakusketa**Hilaren 31ra arte.  
*Foruen plazan, 12:00etan.***ARETXABALETA Basotxoren batzar orokorra**Iazko memoria eta diru kontuak, eta  
2020rako kudeaketa plana  
aztertzeke (bertan behera).  
*Erretiratu elkarte, 17:00etan.***OÑATI 'Ostegun kontalariak': gonbidapenak**Hilaren 26ko ipuin kontakatarako  
txartelak banatzen hasiko dira.  
*Haur liburutegian, 16:30ean.*

## MARTITZENA 17

**OÑATI 'Negozio ideiak proiektuetan eraldatzen'**Ekintzaileendako, autonomoendako,  
profesionalendako eta enpresa  
txikiendako saioak, Izena, aurrez:  
943-71 80 09.  
*Enpresagintzan, 14:00etan.*





AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

## Besarkadarik eta musurik ez

Besarkadarik eta musurik ez emateko aitzakia polita daukagu orain. Sekula baino euskaldunagoak izateko aitzakia perfektua. Buru-keinu bat aski da elkar agurtzeko, metro eta erdiko distantziara. Batzuek ez dute ezer aldatu behar izan: are gehiago, eskertu egiten dute kontakturik eza. Baina artikulu hau ez da koronabirusari buruz, lasai!

Euskaldunok harremanetarako dauzkagun mugei buruzkoa da. Kontaktututako gizartearen izan da gurea orokorrean. Besarkada robotikoak. Zaplada gogorrek bizkarrean. Muxu iheskorrek urtebetetzeetan, agurretan (oso urruti goazenean).

Estatu Batuetan bizi izan zen lagun batek kontatua: euskaldunak zeintzuk ziren berehala igartzen zela, liburutegian. Lehen aldiz sartzean, buru-keinu batekin agurtzen zuten liburuzaina, urrutitik. Serio. Ez zuten beren burua aurkezten, ez zertara joan ziren esaten. Poliki-poliki joaten ziren gerturatzen. Liburuzainarekin konfiantza hartzean, berriz, gai ziren mahaiaren atzealdera sartzeko ere, pantaila begiratzen.

Neurria hartzea kosta egiten zait niri ere, batzuetan. Liburutegekoak bezala sentitzen naiz. Nola jokatu ez dakidala.

## BUKATZEKO



Galder Azkue, Larrañako Arrano Erreka oilo-ustiategian. M.A

# 3.000 oilo aske, arrautza ekologikoak ekoizteko

Abenduan iritsi ziren oiloak Oñatiko Larraña auzoko Arrano Erreka ustiategira. Orduetik, fin-fin, batez beste 2.600 arrautza ekologiko ekoizten dituzte guztien artean egunero. Ekologikoa izateko ezinbesteko baldintzetako bat da oiloak larrean aske aritzea

### Miren Arregi OÑATI

Abenduan iritsi ziren oiloak Oñatiko Larraña auzoko Arrano Erreka ustiategira. 30 aste inguru dituzte orain eta egunero 2.500-2.700 arrautza artean erruten dituzte. Ekoizpen ekologikoa egiten dute, eta, horren baitan, berezitasunetako bat da oiloak larrean aske dabilzala, eta, hori horrela, ekoizten duten arrautza

kalitate handiko dela, "baserriko arrautza betiko horren antzekotasunik handiena" duena. Oiloek jan, edan lo eta errun nabean egiten dute, ekarri zituztenean martxan jarritako adaptazio prozesu baten ondorio. "Lehen asteetan ikasketa prozesu bat jarri behar izaten da martxan". dio ustiategiko jabe Galder Azkuek. 13 hilabeteko zikloa beteko dute

bertan, behin epe hori pasata ekoizpen kopurua asko jaisten da eta. Orduan, ustiategitik aterako dituzte eta beste 3.000 ekarri".

Barruan, bio-segurtasun eta higiene neurriak zorrotzak dira. "Elikagaiez ari gara eta oso neurri zorrotzak bete behar izaten dira". Legediak arautzen du, besteak beste, gehienezko oilo

kopurua. "3.000 da unitateko eduki daitekeen gehienezkoa. Dentsitatea ere arautzen du; hemen 3.000 dauden moduan, konbentzionalean 4.500-5.000 egon daitezke. Ekologikoa animalia bakoitzak eduki behar duen tokia ere handiagoa da".

### Automatizazioa

Automatizazioa da beste berezitasunetako bat. "Horri esker, lana eroso da", dio Azkuek. Izan ere, arrautzak egunero-egunero batu behar dira, gero komertzializazio prozesuari bide emateko. Asteen birritan joaten da kamioia arrautzak jasotzera. Zaldibiara eroaten dira, klasifikazio planta batera, eta bertatik komertzializatzen da: Euskaberren bitartez egiten dute hori. "Taldearen bitartez egiten dugu lana. Bertan arduratzen gara saltokietara eramateaz. Ohiko saltoki gehienetan daude, baita denda txiki, harategi eta bestelakoetan. Arrautza bereziak dira, ekologikoak eta Eusko Labela dutenak".

### Familia proiektua

Ustiategia familia proiektu bat ere bada; izan ere, "familia osoak parte hartzeko moduko lana da". Duela lau urte etorri ziren baserri bidezko eta hasieratik izan zuten garbi zerbait egin gura zutelana. Azkue albaitaria ere bada, eta, baserriaren gainbehera ikusita, konpromiso puntu horrek bultzatuta jarri zuten martxan guztia. Gaur-gaurkoz, pozik daude egindako apusturakin. "Gauza berri guztietan moduan, egun batzuk beste batzuk baino hobeak dira, hari-mutur asko daude lotu beharrekoak, baina balorazioa ona da, produkzioan ondo ari baitira".

**ALKIDEBA**

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIKURIA  
ERAIKUNTZARAKO ETA  
INDUSTRIARAKO

administracion@alkideba.net

NILFISK-en  
banatzaile  
ofiziala



Saskibaloi taldearen babeslea



Máizaga - Sorluze errepidea.  
Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabilioia  
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)